

Hezkuntza



Elkartasuna  
ikasiz

# LURRA BEGI BISTAN



A.L.B.C.I.N.



Mer a, e, o



# LURRA BEGI BISTAN



DBH 2. zikloko eta Batxilergoko  
Gizarte Zientziak arlorako  
material didaktikoa



# Aurkibidea

<b>1.</b>	ALBOANen aurkezpena	5
<b>2.</b>	Unitate didaktikoaren sarrera	7
<b>3.</b>	Aldez aurreko argibideak	11
<b>4.</b>	Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak	13
	<b>4.1.</b> Helburu orokorrak	13
	<b>4.2.</b> Edukiak	13
	<b>4.3.</b> Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak	14
<b>5.</b>	Proposamen didaktikoa	17
	<b>5.1.</b> Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera	19
	<b>5.1.1.</b> Hirugarren eta Lehen Munduaz hautematen duguna	19
	<b>5.1.2.</b> Garapenari eta azpigarapenari buruzko kontzeptua	27
	<b>5.1.3.</b> Hegoaldeko herrialdeetako mitoak eta errealitateak	37
	<b>5.2.</b> Amerikako giltzarri historikoak: kolonizazio- eta independentzia-prozesua	53
	<b>5.3.</b> Gaur egungo Amerikari begirada: merkataritza-neokolonialismoa	105

<b>6.</b>	Unitate didaktikoaren ebaluazioa	<b>125</b>
	<b>6.1.</b> Ikasleentzako ebaluazio-proposamena	<b>126</b>
	<b>6.2.</b> Irakasleentzako ebaluazio-proposamena	<b>129</b>
<b>7.</b>	Bibliografia	<b>133</b>
<b>8.</b>	Sareko beste zenbait baliabide	<b>135</b>



# 1.

## ALBOANen aurkezpena



**LBOAN** Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeak eta pertsonak elkartzen dituen plataforma bat da, eta, elkarbanatutako esperientziaz baliatuz, gizartea eraldatzea du helburu, giza garapena, bizitza duina eta justizia pertsona ororen ondare izan daitezen.

Prestakuntza-arloaren bidez, **ALBOAN**ek elkartasunaren kultura sortzearen alde egiten du apustu. Beraz, mundu zuzenago eta gizatiarrago bat lortzeko, gizartearen eraldaketaren alde apustu egingo duten "hiritar aktibo, kritiko eta solidarioak" sortzeko konpromisoa gero eta talde eta pertsona gehiagok har dezaten lagundu nahi du.

Horretarako, hiru eremutan egiten dugu lan:

- Hezkuntza-elkartasunean.
- Borondatezko lanean.
- Prestakuntza soziopolitikoan.

Alor horietako bakoitzean honako hauen bidez egiten dugu lan:

1. Prestakuntza-ekimenak sortuz.
2. Elkartasun-esperientziak sustatuz.
3. Elkarguneak eta gogoetarako guneak sortuz.
4. Gure hezkuntza-proposamenak zabalduz.

Gure iritziz, eta topikoetatik harantzago, hezkuntzak ahalmen handia du gizartearen eraldaketan. Beste gizarteratze-eskaerekiko "lehia" handia izan arren, eskola oraindik ere balioak transmititzeko leku garrantzitsua da. Eskolan ere sortzen da *kultura*, eta ez ezagutza-multzo gisa, baizik eta pertsonak elkarren artean harremanak izateko moduan, sentitzeko moduan, esanahiak sortzeko moduan, zenbait balioaren inguruan bizitza antolatzeke moduan... Eta eremu horretan eragin dezakegu hezitzaileok: kulturaren sorreran, *elkartasunaren kulturaren* sorreran. Elkartasunean bizi diren pertsonetatik abiatuta bakarrik hartu ahal izango ditugu mundu zuzenago eta gizatiarrago bat lortzeko aukera emango dizkiguten neurri eraginkorrak.

Arrazoi horiengatik, **ALBOAN**en garapenerako eta elkartasunerako hezkuntzaren alde egin dugu apustu gogor. Ahalegin horien barnean dago material didaktikoak egiteko proiektua, eta esku artean duzun hau da proiektu horren fruituetako bat.



Bilduma horretako unitate didaktikoak hezitzaile-talde batek egin ditu **ALBOAN**en laguntzaz eta aholkularitzaz. Prozesuak –luzea bera– hainbat fase izan ditu:

- Irakasle-talde bat motibatzea eta prestatzea.
- Irakasgaien ohiko programetako gaiak aukeratzea.
- Elkartasunerako hezkuntzaren ikuspegia kontuan hartuko duten jarduerak diseinatzea: metodologia aktiboak, parte hartzeak eta lankidetzakoak, bertako errealitatea eta errealitate orokorra lotuko dituztenak, eta ekintzara bideratuak.
- Jarduerak egitea eta gelako esperientziarekin alderatzea.
- Ebaluatzea eta hobetzea.
- Argitaratzea.
- Erabiltzaileen lana ebaluatzea.

Gure lan-esperientzia eta, batez ere, gure ilusioa biltzen dituen lan hau erabilgarria, iradokitzailea eta sustagarria izatea espero dugu gure itxaropen bera duten hezitzaileentzat: *benetako elkartasunean oinarritutako mundua eraikitzea posible da.*



# 2.

## Unitate didaktikoaren sarrera

**A**urkezten dizugun unitate didaktiko hau bi erakunderen elkarlanaren emaitza da: **ALBOAN** GKEren eta Iruñeko San Ignazio ikastetxearen arteko elkarlanarena. Bi erakundeok helburu bera genuen: irakasgai zehatz batzuetatik guk zabaldu nahi genituen balio eta jarrera batzuekin “konektatzen” zuten material didaktikoak sortzea; hau da, nola transmititu herrialde pobreekiko anaitasuna, espiritu kritikoa, gurea ez bezalakoak diren beste errealitate batzuekiko enpatia, elkarlana, etab. Gizarte Zientzietatik? Nola lotu gai ofizialak eta munduak planteatzen dizkigun galderak?

Erantzun batzuk “Lurra begi bistan” unitate didaktiko honetan aurkezten ditugu. Material didaktiko hau DBH 2. zikloko eta Batxilergoko Gizarte Zientziak arlorako diseinatu dugu. Material didaktikoak prestatzeko proiektu orokorrera, zenbait irakasgaitako beste irakasle batzuk etorri dira, Anaitasuna benetan egiazko zeharkako ardatz bihurtu eta gure heziketa-lana kutsa dezan; sinetsita gaude anaitasunaren balioa ezin dela gure hezkuntza-bizitzako esparru itxi batera mugatuta geratu.

“Lurra begi bistan” unitate didaktikoa praktikan erabili da ikastetxean DBH 4. mailako Geografia Ekonomikoa eta Etikako ikasleekin. Saioa oso onuragarria izan da. Hala ere, material hau beste arlo batzuetan ere, bai eskolakoetan eta bai eskolatik kanpokoetan, baliagarria izan daitekeela uste dugu.

Material hau prestatzeko hasieratik gidari izan den funtsezko oinarri bat honako hau izan da: hezkuntzak ikasleen nortasun osoa garatzen lagundu behar duelako uste sendoa. Kontzeptu honek norbanakoa eta gizartea hartzen dituela iruditzen zaigu, hau da, norbanako gisa guztiok ditugun jarrera eta gaitasunak, eta, halaber, gizartean elkarrekin bizitzeko ditugunak eta geure ezaugarri ditugunak. Gaur egungo hezkuntza-testuinguruan, azken alderdi hau ahuldu egin da ikaslearen banakako garapena sustatzearen, hau da, ikasleek beraien banakako gaitasun eta trebetasun guztiak gara ditzaten laguntzea da, horien artean: arrazoiketa logikoa, gaitasun kritikoa, ikasteko ohiturak, edukiak bereganatzea, etab.

Hori guztia oso premiazkoa da, noski. Hala ere, gure ikasleak gizartean bizi daitezen hezte eta prestatzea ere aurrekoa bezain premiazkoa da. Agian, epe ertainera aurre egin beharreko funtsezko erronka izango dute. Anaitasunean hezi nahi izateak gure ikasleak gizarterako nola prestatzen ari garen galdetzeraz



behartzen gaitu. Gizartean, lehiakortasun ankerra, gero eta berekoikeria handiagoa eta “ahal duenak ahal duena egin dezala” nagusi direla ikus daiteke. Ingurune orokorrangoan, “kontra-balio” multzo honek, nazioarteko harremanetarako sare konplexuarekin batera, munduko ordena erabat bidegabean du bere oihartzuna eta milioika pertsona dago edozein gizakirentzat duintasunik gabekoak diren bizi-baldintzak sufritzen.

Testuinguru honetan “bizitzen jakiteko” trebetasunak eta prozedurak sustatzea ez da lan erraza. Horregatik, bakoitzak bere gizartea eta taldearen bizitza garatzen den espazioa eta lurraldea ezagutzea biziki garrantzitsu bihurtzen da. Ikuspegi horretatik beharrezkoa da inguratzen gaituen munduari begiratzea.

Bizi garen mundua sistema bezala ikusi behar dugu. Sistemako elementuak harreman ekonomikoen, politikoaren, kulturalen eta abarren sare estuaz daude elkarri lotuta. Horrela, harreman hauen desberdintasunaren emaitza munduko zati handi batean mantendu egiten da, ekosistema gero eta kaltetuagoa, eta onartezinak diren bazterkeria eta miseria egoerekin. Egoera honen berri guztiok dugu, noski. NBEk egindako zenbait txostenetatik hartutako datu batzuk azalduko ditugu hemen:

- XXI. mendearen hasieran, planetako % 20 jende aberatsenak, munduko sarrera guztien % 80 baino gehiago jasotzen du; aldiz, % 20 pobreenak, % 1 baino zerbait gehiago besterik ez du jasotzen.
- Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan urtean 17 mila milioi \$ gastatzen ditugu etxeko animalientzako janaritan. Munduko biztanle guztiari oinarritzko elikadura eta osasun-zerbitzua emateko 13 mila milioi \$ beharko lirakekeela kalkulatu da.
- Brasilek, bere nazio-aurrekontutik, Lehen Munduarekin duen kanpo-zorraren interesak ordaintzen, hezkuntzan baino kopuru handiagoa erabiltzen du.
- Kafearen kilo laurdenak 1,5 euro balio baditu ere, kafea jasotzen duen nekazariak 0,04 edo 0,05 euro besterik ez ditu kobratzen, eta % 10 baino ez da “Hirugarren Munduan” geratzen.
- Munduan, 1998an, NBEk kalkulatuak soildutako basoen azalera % 26,8koa zen, eta urtero, % 0,3 gehiago soilitzen da, baina Hegoaldean Iparraldean baino askoz azkarrago ari da oihasa galtzen. Iparraldean, berriz, basoaren azalera murriztu ez eta, gutxi bada ere, handiagotzen ari da.
- Munduko pertsona guztiak gizarte aberatsetako kontsumo-mailarekin biziko balira, gurea bezalako 6 planeta beharko lirakeke.

Diagnostiko honetatik abiatuta, aurkeztu dugun lan honen helburua, gure ikasleengan Hegoaldeko herrialdeez oso hedatuta dauden estereotipo batzuk (askotan alegiazko talde handiagoren oihartzun izaeratik) aldatzea da. Gai hau ikasgelan erabili denean, normalean, lehenik eta behin, *ondorioak* (gosea, pobretasuna, etab.) aipatzen direla ikusten da, baina gertaera horiek oso gutxitan egozten zaizkie *kausa* batzuei (nazioarteko harremanei, kolonializazioa eta deskolonializazioa prozesuei eta abarri). Horregatik, gure helburuetako bat, deskribapen hutseko pentsamendutik pentsamendu analitiko eta kritikora igarotzea da. Gure ustez, pentsamendu analitiko honek baino ezin du “bestea” maila apalagoan ikusteaz gain anaitasun-ekintza eragin.

Bestalde, zenbait estereotipo sumatu dugu. Gure ustez oso hedatuta daude eta aldatu egin nahi ditugu:

- *“Katastrofismo naturala”*: herrialde horietako *status quo* deitzen dena, kanpoko baldintza kaltegarriei egozten zaizkie: lehorteari, landu gabeko lurri, hondamendi naturalei eta abarri.
- *“Kultur atzerapena”*: historiaren garapenaz dagoen interpretazio erabat eurozentrikoa adierazten du, eta mendebaldeko kulturak izan duen garapenik izan gabeko beste kulturak nahitaez atzeratuta geratzen direla kontsideratzen da. Konponbidea, beraz, mendebaldeko eredu ekonomikoari heltzea da, hori baita “garapenera” iristeko eredu (ekonomiko) bakarra.

Interpretazio horren ondorio gisa mundua honela banatuta geratzen dela ematen du:

- "Herri garatuak": Lehen Mundua, aberatsa, egonkorra, demokratikoa, etengabeko aurrerapeneko kultur tradizio handiarekin.
- "Herri azpigaratuak": Hirugarren Mundua, pobreak, hondamenak izateko joera dutenak, diktadurak dituztenak, ezegonkorrak, bortizkeria erabiltzen dutenak, garapena oztopatzen duten kultura atzeratuak dituztenak, aurrerapenaren giltzarri den teknologiarik ez dutenak.

Iritzi oker hori gure irudimenean indartu egiten da gizarteko komunikabideen bitartez "mundu azpigaratuaz" ematen den ikuspegiarekin. Erremediorik gabeko katastrofismoaren aurrean erraz sortzen da larritasuna edo, kasurik onenean, paternalismoa.

"Bestea" sumatzeko dugun era hau aldatzen ez dugun bitartean, nekez aldatuko ditugu ikasle askorengan gai hauek sorrarazten dituzten apatia eta urruntasuna. Era berean, jarrera hori alda daitekeela uste dugu, eta nerabeek gureak ez bezalako errealitateekin enpatizatzeke gaitasun handia dutela ere bai. Horrela, benetan ekintza anaikorra sortzen da bidegabeko errealitate eta egiturak aldatuta.

Hori guztia kontuan izanda, ez dugu ahaztu behar, orain bizi garen eta elkarrekiko mendekotasun hain handia duen munduan, pertsona guztiok sare bereko zati garela eta Lurreko edozein lekutan gertatzen denak zuzenean edo zeharka gudan eragina duela. Funtsezkotzat jotzen dugu gure ikasleek bizi diren lekuko inguruneaz eta ingurune orokorraz diagnostiko kritikoa egin ahal izatea, jarrera eta prozedura jakin ba-tzuk garatzearen, eta, horrela, mundu zuzenagoa eraikitzen eta orain giza garapen jasangarri deitzen denarekin konpromiso handiagoaz eta aktiboki parte har dezaten.

Beraz, Lurreko egoera orokorra analizatuz, eta erantzukizunak aurkituz (besteak beste, geureak), errudunik bilatu gabe, gu barnean gauzkaten eboluzio eta garapeneko prozesu konplexuak ulertuko ditugu, eta etengabeko anaitasun-kontzientziako politika izan dezakegu, gure ingurunea aldatzen laguntzeko aukera izan dezagun.



# 3.

## Aldez aurreko argibideak

Unitate didaktiko honetan erabilitako zenbait kontzepturi buruzko hiru argibide eman nahi ditugu:

1. Planetako errealitate bikoitza adierazten duen lengoaiari buruz, ezinezkoa gertatu zaigu (unitate didaktikoko laugarren jardueran azaldutako gorabehera) "Ipar-Hego", "Hirugarren Mundua", "Herri garatuak eta azpigaratuak" eta antzeko kontzeptuak ez erabiltzea. Hala ere, badakigu zehaztasuna falta zaiela eta nahiko erlatiboak direla. Agian, egokiagoa izango litzateke "herrialde aberastuak" eta "herrialde pobretuak" esatea, zeren bikoiztasun horrek gure munduaren errealitateari objektibotasun handiagoz erantzuten baitio, baina gutxiago erabiltzen direnez, unitate didaktikoa ulertzea zailagoa izango litzateke.
2. Materialean ikusiko duzue, Peters-en mapa erabiltzea gomendatzen dugu, eta ez Mercator-en ohiko proiektzioa, arrazoi hauek direla medio:
  - Peters-en proiektzioan, Ekuatorea doi-doi maparen erdian azaltzen da eta mundua bi zati berdinetan banatzen du; Mercator-enean, berriz, maparen beheko aldean dago eta Europa geografiko gune bihurtzen da eta Ipar-hemisferioari garrantzia handiagoa ematen dio (munduari buruzko ikuspegi eurozentrikoa da argi eta garbi, baina errealitatearekin ez dator bat).
  - Peters-en proiektzioan, maparen azalera osoa eskala berean dago, hau da, mapako edozein zatiren zentimetro koadroa errealitateko azalera berari dagokio. Mercator-enean, ordea, lehen azaldu dugunagatik, planetako Iparraldeak neurri handiegia ditu (hau da, ekuatorearen ondoko kilometro koadro mapan Iparraldeko kilometro koadro baino txikiagoa azaltzen da).
3. Unitate didaktiko hau Gizarte Zientziak arloan lantzeko prestatu dute egileek. Bestalde, material irekia denez eta egokitzeko aukera handiak ematen dituzenez, curriculumeko beste irakasgaietan edota hezkuntza ez-formalean ere erabili daitezke zenbait gai edo jarduera.

Unitateak hiru gai ditu eta horiek, aldi berean, hainbat azpigaitan banatuta daude. Azpigai horietako bakoitzerako jarduera-sorta bat dago. Azpigai bakoitzaren hasieran, helburuen, jardueren deskribapenaren eta behar den materialaren berri ematen zaio irakasleari, eta bakoitzak gutxi gorabehera zenbat iraungo duen adierazten zaio. Jarduera gehienek dokumentazio osagarria ere badute. Dokumentazio hori erabili baino lehen, irakasleei berrikustea iradokitzen diegu.

Unitate didaktikoan zehar zenbait ikono agertzen dira, eta honako alderdi hauei egiten diete erreferentzia:



**Irakasleentzako gida**



**Taldeakako dinamika**



**Jarduera**



**Irakasleentzako erantzunak**



**Banakako dinamika**



**Dokumentazio osagarria**

## Peters-en proiektzioa



# 4.

## Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak

### 4.1. Helburu orokorrak

- Ipar eta Hegoaren arteko bidegabeko harremanetara hurbiltzea eta esperientziaz ezagutzea.
- Fenomeno orokor batzuek gu bizi garen ingurunean oihartzuna dutela jabetzea.
- Inguratzen gaituen munduarekiko anaitasuneko portaera eta jokabide zehatzak sustatzea.

### 4.2. Edukiak

#### Kontzeptuzkoak

- Globalizazio-fenomenoa.
- Garapena eta azpigarapena (garapen ekonomikoaren mailak, garapen jasangarria...).
- Giza Garapenaren Indizea.
- Komunikabideen eginkizuna Hegoaldeari buruzko irudi-sortzaile gisa.
- Gaur egungo mundua ulertzeko giltzarri historikoak: kolonializazioa eta deskolonializazioa, kanpo-zorra, desberdintasuneko elkartrukea, nazioaz gaindiko enpresak, neoliberalismoa, neokolonialismoa...

#### Prozedurazkoak

- Zenbait informazio-iturri erabiltzea.
- Aldez aurretik ideiak identifikatzeko estrategiak.
- Talde-lanak (lanak banatzea, ondorioetan bat etortzea...).
- Zenbait informazio-iturritatik lortutako informazioekin gaikako mapak prestatzea.
- Taula estatistikoak irakurri eta interpretatzea.
- Giza Garapenaren Indizeak (GGI) kalkulatu eta analizatzea.
- Elkarrizketak eta eztabaida irekiak.
- Gai monografikoei buruz azterketak eta ikerketa txikiak egitea.
- Rol-jokoak agertokian jokatzea, simulazioak eta antzezpenak.



## Jarrerazkoak

- Inguratzen gaituen mundua aurkitu eta ezagutzeko jakin-mina.
- Norbera harritzeko eta errealtate berrietara irekitzeko gaitasuna.
- Gaur egungo munduan aurre egiteko arazo nagusiez kontzientziatzea, Ipar-Hego harremanei dagokienez eta egoera horretan gure parte hartzea eta erantzukizuna kontuan hartuta.
- Ingurumena eta Lurreko bioaniztasuna baloratzea, munduko altxor gisa eta gizarte zein kultura aldetiko aberastasun gisa, zaindu eta defendatu behar den aberastasun-iturri direla kontsideratuz.
- Baliabide-eskasia, zanaketa, miseria, baztertzea... sufritzen duten biztanleria-sektoreekiko anaitasuna.
- Munduan kultura, politika, gizarte eta ekonomiaren arloetan dauden harremanen ikuspegi eurozentrikoaz espiritu kritikoa izatea.
- Gu bezalakoak ez diren pertsona eta errealtate sozio-kulturalen aurrean geure estereotipoak aldatzeko gaitasuna, egiazko ezagutzatik sortzen den enpatia sustatuz.
- Deskribapen hutseko pentsamenduaren aurrean pentsamendu analitiko eta kritikoa sustatzea.

## 4.3. Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak

### 1. GAIA: Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera 1, 2, 3, 4 eta 5 jarduerak

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
<b>Kontzeptuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garapen/azpigarapen kontzeptuak eta Giza Garapen Jasangarria.</li> <li>• Garapena neurtzeko adierazleak.</li> <li>• Pobretutako herrialdeetako errealtatearen aniztasuna eta konplexutasuna.</li> <li>• Pobretutako herrialdeen kultur eta giza aberastasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 25</li> <li>• % 25</li> <li>• % 25</li> <li>• % 25</li> </ul>	Idatzizko proba eta banakoaren behaketa.
<b>Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa</b>			
<b>Prozedurak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurea bezalakoak ez diren errealtateen aurrean geure aurreritziak zalantzan jarri eta gainditzea.</li> <li>• Hegoaldeko herriez komunikabideetan ematen den irudiaren analisi kritikoa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 50</li> <li>• % 50</li> </ul>	Talde-lana eta banakoaren lana behatzea.
<b>Prozedurazko edukien azken kalifikazioa</b>			
<b>Jarrerak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eurozentrismoa beste errealtateak ezagutzeko eskema mugatua delako kontzientzia.</li> <li>• Hegoaldeko herrialdeen errealtateekiko enpatia sustatzea.</li> <li>• Norberaren iritzi-irizpideak sortzeko autonomia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 33</li> <li>• % 33</li> <li>• % 33</li> </ul>	Talde-lana eta banakoaren lana behatzea.
<b>Jarrerazko edukien azken kalifikazioa</b>			

## 2. GAIA: Amerikako giltzarri historikoak: kolonizazio- eta independentzia-prozesua 6 jarduera

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
<b>Kontzeptuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ameriketako kolonizazio- eta independentzia-prozesuak ekonomia, gizarte eta politikako arloetan izandako eraginak.</li> <li>Latinoamerikako gaur egungo egoeraren giltzarriak ulertzen laguntzen duten sustrai historikoak.</li> <li>Ameriketako Estatu Batuen sorrera eta eraikuntza, "muga berriko" espirituaren eragin historikoetatik abiatuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>% 33</li> <li>% 33</li> <li>% 33</li> </ul>	Taldeek idatzi eta emandako gidoia eta antzezpena behatzea.
<b>Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa</b>			
<b>Prozedurak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat informazio-iturri maneiatzea eta analisi kritikoa egitea.</li> <li>Taldeko lanetan, erantzukizunez eta anaitasunez aritzeko, lankidetzarako eta parte hartzeko estrategiak hartzea.</li> <li>Mintzamena eta jendaurrean hitz egiteko gaitasuna sustatzea.</li> <li>Talde-lanarekin ados jartzeko sormena eta sintesi-gaitasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>% 25</li> <li>% 25</li> <li>% 25</li> <li>% 25</li> </ul>	Talde-lanari behatzea eta eszenaratzea.
<b>Prozedurazko edukien azken kalifikazioa</b>			
<b>Jarrerak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azpigarapenaren naturalizazioa desmitifikatzea, bere giltzarri historikoetatik abiatuta.</li> <li>Beste kulturekiko enpatia eta anaitasuna sustatzea, kultur aniztasunaren aberastasuna balioetsita.</li> <li>Besteei aktiboki eta begirunez entzutea.</li> <li>Espiritu kritikoa eta pentsamendu-autonomia sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>% 25</li> <li>% 25</li> <li>% 25</li> <li>% 25</li> </ul>	Talde-lana eta banakoaren lana behatzea.
<b>Jarrerazko edukien azken kalifikazioa</b>			

## 3. GAIA: Gaur egungo Amerikari begirada: merkataritza-neokolonialismoa 7 jarduera

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
<b>Kontzeptuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Neoliberalismoa, maquilak, nazioaz gaindiko enpresak.</li> <li>Nazioarteko ekonomia-egitura bidegabeak, Hegoaldeko herrialdeen pobretzea iraunarazten dutenak.</li> <li>Globalizazio ekonomikoaren konplexutasuna eta ondorioak.</li> <li>Nazioaz gaindiko enpresak eta horiek, nazioarteko ekonomian dituzten eraginak.</li> <li>Gure banakako kontsumo-ohiturek mundu-mailan duten eragina.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>% 20</li> <li>% 20</li> <li>% 20</li> <li>% 20</li> <li>% 20</li> </ul>	Taldeek prestatutako gidoia.
<b>Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa</b>			

	<b>Edukiak</b>	<b>Kalifikazioa</b>	<b>Metodoa</b>
<b>Prozedurak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure kontsumo-ohiturek nazioarteko merkataritzan duten eraginari buruzko gogoeta.</li> <li>• Talde-lanetan, erantzukizunez eta anaitasunez aritzeko, lankidetzarako eta parte hartzeko estrategiak eskuratzea.</li> <li>• Arazoak konpontzeko irudimena eta sormena garatzea.</li> <li>• Zenbait informazio-iturriren analisi kritikoa.</li> <li>• Pobreziaren arazoari erantzukizuneko irtenbideak bilatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 20</li> <li>• % 20</li> <li>• % 20</li> <li>• % 20</li> <li>• % 20</li> </ul>	Taldeek prestatutako gidoiari eta, talde-lanari eta telebista-programaren azalpenari behatzea.
<b>Prozedurazko edukien azken kalifikazioa</b>			
<b>Jarrerak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pobretutako herriekiko anaitasuneko jarrerak eta jokabideak sustatzea.</li> <li>• Lankidetzaz aktiborako jarrera, lanen banaketa eta talde-laneko erantzukizuna onartuz.</li> <li>• Gure kontsumo-ohiturak aldatzeko gaitasuna, pobretutako herrialdeetan izan ditzaketen eraginaren arabera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 33</li> <li>• % 33</li> <li>• % 33</li> </ul>	Talde-lanari eta telebista-programaren azalpenari behatzea.
<b>Jarrerazko edukien azken kalifikazioa</b>			



# 5.

## Proposamen didaktikoa

### 5.1. Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera

5.1.1. Hirugarren eta Lehen Munduaz hautematen duguna

1. jarduera: Azpigarapeneko eta garapeneko mapa
2. jarduera: Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak
3. jarduera: Osatu gabeko esaldiak

5.1.2. Garapenari eta azpigarapenari buruzko kontzeptua

4. jarduera: Zer da Garapena?

5.1.3. Hegoaldeko herrialdeetako mitoak eta errealitateak

5. jarduera: Afrikari entzunez
  - 5.1. jarduera: Afrika prentsan
  - 5.2. jarduera: Afrikatik gutuna
  - 5.3. jarduera: Logika-hausnarketa
  - 5.4. jarduera: Afrika koloretan
  - 5.5. jarduera: Inkesta

### 5.2. Amerikako giltzarri historikoak: kolonializazio- eta independentzia-prozesua

5.2.1. Amerikaren espainiar kolonializazioa

5.2.2. Ipar Amerikako antzinako kolonia britainiarren kolonializazioa

6. jarduera: Antzerki-tailerra

### 5.3. Gaur egungo Amerikari begirada: merkataritza-neokolonialismoa

7. jarduera: Cati Rodriguez-en kasua



# 5.1. Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera

## 5.1.1. Hirugarren eta Lehen Munduaz hautematen duguna

1. jarduera: Azpigarapeneko eta garapeneko mapa
2. jarduera: Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak
3. jarduera: Osatu gabeko esaldiak



## Irakasleentzako gida

### 1. Helburuak

- Ipar-Hego harremanak aztertzekeo taldea motibatzea.
- Gaiari aurre egiteko alde aurretiko ideiak detektatzea, munduko errealitatea analizatzeko estereotipoak aldatu ahal izateko.
- Mundua, aurrez aurre dauden bi alderditan zatitzeak sortzen duen zailtasunaz eta pobretzeaz jabetzea.
- Ipar-Hego errealitateaz ditugun estereotipoak agerian jartzea.
- Normalean azpigaratutzat hartzen ditugun herrialdekoei egozten dizkiegun errealitateak herrialde garatuetan ere badirela egiaztatzea.

### 2. Jardueren segida

#### 1. jarduera: Azpigarapeneko eta garapeneko mapa

- *Deskribapena:* Unitateari hasiera emateko, alde aurretiko ideiak atzematetik abiatuko gara. Horretarako, zehazten ditugun lehen hiru jarduera hauek erabiliko ditugu. Gure hasierako justifikazioan adierazi dugunez, gizarteak oro har gai honi buruz dituen

aurreiritziak, ustezko sen onaren izenpean ematen diren irudiek eta, askotan, errealitate-arekin bat ez datozen estereotipoek baldintzatzen dituzte. Horregatik, beharrezkoa da, gure ikasleek Hirugarren Mundua deitutakoan bizi diren milioika pertsonaren errealitatea benetan nola hautematen duten ezagutzuz hastea unitate didaktikoa.

- *Beharrezko materiala:* Mapamundi mutua.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 20 minutu.

## 2. jarduera: Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak

- *Deskribapena:* Estereotipatutako ezaugarri batzuetatik abiatuta, zein dagozkien herrialde azpigaratuei eta zein herrialde garatuei aukeratuko dute ikasleek. Irakasleek joera orokorra zein den ikusiko dute: errealitate positiboak (aberastasuna, kultura, bizi-kalitatea, guztientzako heziketa...) herrialde garatuei egozte, eta negatiboak (indarkeria, gosea, Giza Eskubideak bortxatzea...) herrialde azpigaratuei egozte.
- *Beharrezko materiala:* Jarduera-taula.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 30 minutu.

## 3. jarduera: Osatu gabeko esaldiak

- *Deskribapena:* Jarduera honekin amaitzen da unitate didaktikoaren lehen zatia. Zatiaren amaieran, taldearen iritziak eta ondorio batzuk jasoko dira. Denak ere Hirugarren Munduko herrialdeez ditugun aurreiritziak zehazteko izango dira. (Interesgarria izango litza-teke, halaber, "herrialde azpigaratu", "herrialde garatu", "garatze-bideko herrialde", "herrialde aberats edo pobre", "Lehen Munduko edo Hirugarren Munduko herrialde", "pobretutako herrialde", "erdiguneko herrialde edo periferiako herrialde" terminoen kontzeptualizazioak berak dituen eraginak analizatzea). Azken batean, kontua taldeak herrialde bat "garatua" edo "azpigaratua" den zehazteko dituen irizpideak eztabaidan jartzea da, zifra makroekonomikoak (hori da irizpide erabiliena) alde batera utzita. Beste datu batzuk ere (bizi-kalitatea, Giza Eskubideen defentsa, ingurumena errespetatzea, etab.) kontuan hartzeak duen garrantzia ikusi behar dute.
- *Beharrezko materiala:* Osatu gabeko esaldien orria.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak.





## 1. jarduera



### Azpigarapeneko eta garapeneko mapa

Margotu mapa hau, esandakoaren arabera:




Herrialde garatuak



Herrialde azpigaratuak

Peters-en proiektzioa





## 2. jarduera



### Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak

1

Ondoren, ezaugarri batzuen zerrenda duzu eta horietako bakoitza herrialde garatukoa den edo herrialde azpigaratukoa den sailkatu behar duzu. Horretarako, gurutzea markatu dagokion laukian.


Ezaugarria	Herrialde garatua	Herrialde azpigaratua
Aberastasuna		
Lehortea		
Gosea		
Kultura		
Indarkeria		
Emakumearen berdintasuna		
Oihana soiltzea		
Superpopulazioa		
Osasun-zerbitzuak		
Analfabetismoa		
Hezkuntza denentzat		
Basamortua		
Bizi-kalitatea		
Demokrazia		
Herrialde kolonizatuak		
Hondamen naturala		
Biztanle-dentsitate txikia		
Giza Eskubideak bortxatzea		
Arrazakeria		
Gizarte Segurantzza		
Kanpo-zorra		

## 2

Taula bete ondoren, bateratu emaitzak proposatzen diren galdera hauek erantzunez:

- Aberastasuna, zergatik da herrialde garatuena? Zer aberastasunez ari gara? (diruaz, aniztasun ekologikoaz, kulturaz...)?
- Basamortua, zergatik da herrialde azpigaratuena? Basamortuak hondarrezkoak ez ezik biztanle gutxiko lekuak ere badirela kontuan hartuta, antzeko errealitateak ditugu herrialde garatuetan: Kanadan eta Australian.
- Kolonizatutako herrialdeak, zergatik dira azpigaratuak? Ameriketako Estatu Batuak eta Kanada ez al ziren herrialde kolonizatuak izan?
- Biztanle-dentsitate txikia, zergatik da herrialde azpigaratuen ezaugarria? Begiratu taula honi:

Herrialdea <sup>1</sup>	Biztanle kopurua kilometro koadroko
Herbehereak	383,4
Txad	5,2
Japonia	332,6
Bolivia	7,1



Iturria: Zenbait egile, 1999.

<sup>1</sup> Akal, 1998.



### 3. jarduera



## Osatu gabeko esaldiak

1

*Esaldi batzuk aurkezten dizkizugu hutsuneekin, eta horiek osatu egin behar dituzu zerrendako herrialdeen artean aukera eginez. Gogoan izan, behin baino gehiagotan erabil daitezkeela eta denak ipini beharrik ez dagoela.*

Amerika, Asia, Europa, Herrialde Garatuak, Suitza, Garatze-bideko Herrialdeak, Ameriketako Estatu Batuak, Etiopia, Kalkuta, Herbehereak, Zaire, Peru, Anberes, Kuba, Kanbodia, Espainia.

1. .... 20,5 tona CO<sub>2</sub> isurtzen dituzte urtean. Herrialde hori da munduan mota horretako kutsadura gehien eragiten duena.
2. .... ko umeen ia % 90 tuberkulosiaren kontra immunizatuta daude.
3. .... n, biztanleen % 44,1ek ez daki edozein produktu eskatzeko orria betetzen.
4. .... n, bost pertsonatik bat ez da gauza erabilera-orria irakurrita umeari zenbat pilula eman behar zaizkion jakiteko.
5. .... n, bederatzi segundoan behin, emakume batek bortxakeria fisikoa jasaten du.
6. Ekonomiaren eta politikaren arloan erabakiak hartzeko emakumeen parte hartzearen indizea ..... n Frantzian baino handiagoa da.
7. .... n, 200 milioi su-arma baino gehiago ditu jendeak.
8. .... n, 50 milioi pertsona inguru pobrezian bizi dira eta 18 milioi pertsona lanik gabe daude.
9. .... n, 3.300 pertsona heriotza-zigorraren zain daude.
10. .... n, jatorrizko basoen % 1 baino ez dago zutik.
11. 40 milioi pertsonak ez du osasun-zerbitzurik ..... n.
12. .... n, emakumezkoen salerosketako sareen biktima diren 1.500 prostituta inguru erakusten dira kaleetan eta erakusleihoetan.



## Irakasleentzako erantzunak<sup>2</sup>

1. Ameriketako Estatu Batuek 20,5 tona CO<sub>2</sub> isurtzen dituzte urtean. Herrialde hori da munduan mota horretako kutsadura gehien eragiten duena.
2. Garatze-bideko herrialdeetako umeen ia % 90 tuberkulosiaren kontra immunizatuta daude.
3. Herbehereetan, biztanleen % 44,1ek ez daki edozein produktu eskatzeko orria betetzen.
4. Suitzan, bost pertsonatik bat ez da gauza erabilera-orria irakurrita umeari zenbat pilula eman behar zaizkion jakiteko.
5. Ameriketako Estatu Batuetan, bederatzita segundoan behin, emakume batek bortxakeria fisikoa jasaten du.
6. Ekonomiaren eta politikaren arloan erabakiak hartzeko emakumeen parte hartzearen indizea Kuban Frantzia baino handiagoa da.
7. Ameriketako Estatu Batuetan, 200 milioi su-arma baino gehiago ditu jendeak.
8. Europan, 50 milioi pertsona inguru pobrezian bizi dira eta 18 milioi pertsona lanik gabe daude.
9. Ameriketako Estatu Batuetan, 3.300 pertsona heriotza-zigorraren zain daude.
10. Europan, jatorrizko basoen % 1 baino ez dago zutik.
11. 40 milioi pertsonak ez du osasun-zerbitzurik Ameriketako Estatu Batuetan.
12. Anberesen (Belgikan), emakumezkoen salerosketako sareen biktima diren 1.500 prostituta inguru erakusten dira kaleetan eta erakusleihoetan.




<sup>2</sup> Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP), 1998.



# 5.1. Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera

## 5.1.2. Garapenari eta azpigarapenari buruzko kontzeptua

4. jarduera: Zer da Garapena?



## Irakasleentzako gida

### 1. Helburuak

- Garapenari eta azpigarapenari buruzko kontzeptuez gogoeta egitea.
- Herrialde baten garapena edo azpigarapena zehazten duten irizpideak eztabaidan jartzea.
- Biztanleriaren garapena adierazten duten beste aldagai batzuk ezagutzea.
- "Hirugarren Mundua" kontzeptuaz eta "Ipar/Hegoa" esapideaz gogoeta egitea.

### 2. Jardueren segida

#### 4. jarduera. Zer da Garapena?

- *Deskribapena:* Aurreko jardueri errepaso labur bat eman ondoren, taldeari oinarri teorikoa proposatuko diogu, orain arte analizatutakoa sakonago ulertzeko. Horretarako, irakasleak (dokumentazio osagarriaren arabera) garapena/azpigarapena kontzeptuen konplexutasuna azalduko du; baita zenbakiz neurtzeko dauden mugak ere. Halaber, errealitatera zuzena-  
go hurbiltzeko, zenbait aldagai kontuan hartu beharra ere azalduko du.

Irakaslearen azalpena osatuko duen kasu praktiko batekin bukatuko dugu.

- *Beharrezko materiala:* 4. jarduerako 3. puntuko galdera sorta.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak eta dokumentazio osagarria.





## 4. jarduera



### Zer da Garapena?

1

Aurreko jarduerak kontuan hartuta, ikasgela osoko elkarrizketari ekingo diogu, gai hauen inguruan:

- Orain arte egindako hiru jardueretan, zer da gehien harritu zaituztena?
- Jardueraren hasieratik amaiera arte, alderdiren batean iritziz aldatu al zarete?
- Osatu gabeko esaldietan, informazioa objektiboa iruditu al zaizue? Iparraldeko herrialdeen errealitate osoa adierazten duela iruditzen al zaizue? Komunikabideek Hegoaldeko herrialdeez eskaintzen diguten informazioarekin antzik ba al du? Alde bateko ikuspegia dela iruditzen al zaizue?
- Zer muga ikusten diozue herrialdeak Ipar/Hegoko edo garatu eta azpigaratu gisa sailkatzeari?

2

Orain irakasleak honaino ikusitakoa ordenatu egingo du, garapen-kontzeptua azalduko du, haren jatorria, eboluzioa, izan ditzakeen sailkapenak... Horrela, "herrialde baten garapena" azaltzeko, zenbait faktore (eta ez faktore ekonomikoa bakarrik) kontuan hartzeko premia egiaztatuko dugu.

3

Bakarka, Giza Garapenaren Indizeaz (GGI) irakasleak azalduko du praktikan gauzatuko dugu datu hauek abiatuta (herrialde jakin batekoak dira):

NBGP 98	
Bizi-itxaropena	76,6 urte
Helduen alfabetizazioa	% 94,8
Matrikulazio-tasa	% 69
Per capita BPG doitua	5.969 \$

MUNDU BANKUA 98/99	
Per capita errenta	2.640 \$

- Kalkulatu GGla.
- NBEren araberako sailkapena eta Mundu Bankuaren araberako sailkapena.
- Herrialde hori zein gune geopolitikotakoa izan daitekeen arrazoitzen saiatu.
- Azkenean, azaldu zure emaitzak ikasgelako kideekin bat etortzean.



## Irakasleentzako erantzunak

### Costa Ricari dagozkion datuak

#### GGla kalkulatzea

- Osasun-indizea: 0.86
- Hezkuntza-indizea: 0.86
- Indize ekonomikoa: 0.95
- GGla: 0.889

#### Garapen-maila NBEren arabera

- Haren GGla ikusita, giza garapen handiko herrialdea da.

#### Garapen-maila Mundu Bankuaren arabera

- Per capita errentari begiratuta (2.640 \$), sarrera ertain-baxuak dituen herrialdea da.

GGla kalkulatu ondoren, honako honetaz ohartuko gara: NBEren arabera, giza garapen handiko herrialdea dela, baina Mundu Bankuak sarrera ertain-baxuko herrialdeztat jotzen duela. Irizpideak, beraz, oso bestelakoak dira, nahiz eta herrialdea bera izan.



## Dokumentazio osagarria

### 1. Garapenari buruzko kontzeptua

#### 1.1. Kontzeptuen agertzea

**1949:** Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) Presidenteak, Harry Truman-ek, Kongresuan egindako hitzaldi batean, lehen aldiz, munduko herrialdeak bi talde handitan banatu zituen: Garatuen eta Azpigaratuen taldeetan. Herrialde guztiek erreferentzia gisa hartu behar zuten ereduak eredu kapitalista zela iragarri zuen.

**1952:** A. Sauvy ekonomialari frantsesak, L'Observateur aldizkarian argitaratutako artikuluan, munduko herrialdeak hiru kategoriatan sailkatu zituen, eta orduan azaldu zen lehen aldiz Hirugarren Mundua deitutako kontzeptua. 1789ko Iraultza baino lehen Frantziako gizarteetan zeuden mailak erreferentzia gisa hartzen dituen sailkapen honen arabera, mundua honela egituratuta egongo litzateke:

1. Mundua: herrialde kapitalistak.
2. Mundua: herrialde komunistak.
3. Mundua: munduko gainerakoak.

Gaur egun kutsu negatiboa duen Hirugarren Mundua deitutako kontzeptua Iraultza baino lehenagoko Frantziako Hirugarren Estatuarekin egindako konparazioaz sortu zen. Gizarteko talde hura herri xeheak osatutakoa zen (beste bi Estatuak nobleziak eta eliz jendeak osatutakoak ziren). Hirugarren Estatuak ziren biztanle gehienak, baina boteretik ez zuten eta hori bidegabekeria handia zen.

**1980:** Willy Brandt-ek, Alemania Federaleko kantzilerrak, erabili zuen lehen aldiz "Ipar/Hegoa" ezapidea munduko errealitateaz egin zuen Brandt izeneko txostenean. Banaketa geo-ekonomiko hutsa den hau, herri garatuak eta herri azpigaratuak mapan non dauden ikusita ondorioztatua da.

#### 1.2. Kontzeptuen eboluzioa

Lehen azaldutako hiru kontzeptuek kutsu negatiboa dute. Gauza bera gertatzen zaio *azpigarapena* hitzari, eta horregatik NBEk "garatze-bideko" terminoaz ordezkatu zuen. Batzuk oker daude, "Ipar/Hegoa" esapidea, adibidez; izan ere, bi mundu horien arteko "muga" ez dago Ekuatorean (hori izango litzateke bi munduen arteko benetako banaketa geografikoa), askoz ere Iparralderago baizik. Eta termino gehienak zaharkituta daude; mundua hiru taldetan sailkatzea, adibidez, laurogeiko hamarkadan "Bigarren Mundua" erori zenetik.

### 2. Munduko herrialdeak beren garapen-mailaren arabera sailkatzea

Nazioarteko zenbait erakundek Lurreko herrialdeak beren garapen-mailaren arabera sailkatu dituzte, baina zenbait alderdiri kasu eginez. Horregatik, bertan ikusiko dugunez, sailkapena funtsean aldatzen da.

### 2.1. Mundu Bankuaren<sup>3</sup> araberako sailkapena

Munduko herrialde guztiak lau talde handitan banatzen ditu, irizpide ekonomikoak besterik kontuan hartu gabe. Hain zuzen, per capita errenta hartzen du kontuan:

- Sarrera txikiko herrialdeak: 785 \$ baino gutxiago.
- Sarrera ertain-txikiko herrialdeak: 786 \$ eta 3.125 \$ artean.
- Sarrera ertain-handiko herrialdeak: 3.126 \$ eta 9.655 \$ artean.
- Sarrera handiko herrialdeak: 9.656 \$ baino gehiago.

Ondorioz, aurreko datuon arabera, hiru herrialde aberatsenak, orden honetan, Singapur, Ameriketako Estatu Batuak eta Suitza dira; eta pobreenak, berriz, Sierra Leona, Etiopia eta Mozambique dira.

Sailkapen hau hainbat alderditatik eztabaidatu da, arrazoi hauek medio:

- Errealitatearen alderdi bat besterik ez du azaltzen, datu makroekonomikoak besterik kontsideratzen ez dituelako. Ezkutuko ekonomia eta beste balio ekonomiko batzuk alde batera uzten ditu eta munduko errealitatearen gainontzeko zenbait alderdi ere bai.
- Garapena neurtzeko tresna bakartzat zifra bat erabiltzea (gainera, hau batez bestekoa da eta muga asko ditu), engainagarria izan daiteke.

### 2.2. Nazio Batuen araberako sailkapena: Giza Garapenaren Indizea (GGI)<sup>4</sup>

Erakunde honek dio, herrialde baten garapena gai konplexua dela; ondorioz, ezin dela arlo ekonomiko hutsera mugatu. Horrek, Giza Garapenaren Indizea (GGI) sortu du, eta horren bidez, 0 eta 1 bitarteko zifra bakar batez (hiru hamartar dituen zifra bakarrez) sailtzen da herrialdearen garapen-maila azaltzen, irizpide hirukoitza erabiliz (ekonomiakoa, osasunakoa eta hezkuntzakoa).

Munduko herrialdeak hiru mailatan sailkatzen ditu:

1. Giza garapen handiko herrialdeak (0'801 eta 1 arteko Indizea).
2. Garapen ertaineko herrialdeak (0'501 eta 0'800 arteko Indizea).
3. Garapen txikiko herrialdeak (0 eta 0'500 arteko Indizea).

GGIak herrialde guztiak hiru kategoriatan banatzen ditu (kontuan hartu azpigarapen kontzeptua ez duela erabiltzen), eta 1 (lehena Kanada da, giza garapen handiena duena) eta 174 artean (Sierra Leona da giza garapen txikiena duena) sailkatzen ditu, hiru adierazleen batez bestekoa aterata. Honako hauek dira adierazleak:

1. Adierazle ekonomikoa: per capita BPGa<sup>5</sup>.
2. Osasun-adierazlea: bizi-itzaropena.
3. Hezkuntza-adierazlea: alfabetatzea eta matrikulazio-tasa.

#### *Nola kalkulatu da GGIa?*

Azal dezagun Espainiako kasuaren bidez. Horretarako, lau datu behar ditugu: bat, aldagai ekonomikorako; bi, hezkuntzarako; eta bat, osasunerako.

<sup>3</sup> Mundu Bankua, 1999.

<sup>4</sup> Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP), 1998.

<sup>5</sup> Per capita BPGa herrialde batek biztanle bakoitzeko duen barne-produktu gordina da. Kasu honetan, per capita BPGa doitu egin behar da formula matematiko baten arabera (ikusi NBGP 98, 107. orr.). Per capita errenta txikiko herrialdeak direnean, BPGa doitu BPGa errealekin (Mundu Bankuak erabiltzen duenarekin) bat dator.

## Espainiako datuak (NBGP 98)

Aldagai ekonomikoa:	Per capita BPG doitua: 6.187 \$
Hezkuntza-aldagaia:	Alfabetatze-tasa: % 97,1 Matrikulatze-tasa: % 90
Osasun-aldagaia:	Bizi-iraupena: 77,7 urte

Datu hauetatik abiatuta, bereizita kalkulatu behar ditugu ekonomiako, osasuneko eta hezkuntzako indizeak.

## Indize ekonomikoa:

$$\text{Indize ekonomikoa}^6 = \frac{6.187 - 100}{6.311 - 100} = 0,980$$

**Hezkuntza-indizea**<sup>7</sup>: Bereizita kalkulatu behar dira alfabetatze- eta matrikulatze-indizeak.

$$\text{Matrikulatze-indizea} = \frac{90 - 0}{100 - 0} = 0,900$$

$$\text{Alfabetatze-indizea} = \frac{97,1 - 0}{100 - 0} = 0,971$$

Azkenik, hezkuntza-indizea lortzeko zera egin behar da: alfabetatze-indizea bider 2, matrikulatze indizea gehitu eta zati 3.

$$\text{Hezkuntza-indizea} = \frac{(2 \times 0,971) + 0,900}{3} = 0,947$$

## Osasun-indizea:

$$\text{Osasun-indizea}^8 = \frac{77,7 - 25}{85 - 25} = 0,878$$

GGIa kalkulatzeko zera egin behar da: aurreko hiru indizeak batu eta zati 3.

$$\text{GGIa} = \frac{0,980 + 0,947 + 0,878}{3} = 0,935$$

Beraz, Espainiako GGIa 0'935<sup>9</sup> da eta munduko sailkapenean 11.a da. Nolanahi ere, gaur egun oso erabilia eta aurrekoa baino koherenteagoa den arren, ez da ahaztu behar hau ere indizea dela eta kontuz erabili behar dela.

Adibide honetatik abiatuta, ikasleei antzeko beste batzuk proposa dakizkieke, emandako datuetatik beste herrialde batzuen GGIa kalkula dezaten. Hona hemen adibide batzuk:

<sup>6</sup> 6.311 eta 100, per capita errenta handiena eta baxuena duten nazioei dagozkie (Suiza eta Mozambike hurrenez hurren), 0 baino handiagoa eta 1 baino baxuagoa den zenbaki bat lortzeko asmoz.

<sup>7</sup> Hezkuntza-indizeei dagokienez, ehunekoak direnez 0 eta 100 muturtzat hartzen dira.

<sup>8</sup> 85 eta 25 bizi iraupen luzeena eta motzena duten nazioei dagokie (Japonia eta Sierra Leona hurrenez hurren).

<sup>9</sup> NBGP 99-n, indizeak kalkulatzeko sistema zerbait aldatzen da, horren eraginez, Espainia, munduko sailkapenean, 11.a (NBGP 98) izatetik 21.a izatera pasatzen da.

Txile (31.a)	Haiti (159.a)
<p><b>1. Datuak:</b></p> <p>Bizi-itxaropena: 75,1 urte  Matrikulatze-tasa: % 73  Alfabetatze-tasa: % 95,2  Per capita BPG doitua: 6.116 \$</p> <p><b>2. Ebazpenak:</b></p> <p>Osasun-indizea: 0,84  Hezkuntza-indizea: 0,88  Indize ekonomikoa: 0,97</p> <p><b>GGI: 0,893</b></p>	<p><b>1. Datuak:</b></p> <p>Bizi-itxaropena: 54,6 urte  Matrikulatze-tasa: % 33  Alfabetatze-tasa: % 33,1  Per capita BPG doitua: 917 \$</p> <p><b>2. Ebazpenak:</b></p> <p>Osasun-indizea: 0,49  Hezkuntza-indizea: 0,40  Indize ekonomikoa: 0,13</p> <p><b>GGI: 0,340</b></p>

### 2.3. Beste aldagai batzuen arabera sailkapena

Azken urteotan, zenbait erakundek aurreko indizeak aldatu egin dituzte, aurreko emaitzak aldatzen dituzten beste aldagai batzuk sartuta. Adibidez, Euskal Herriko Unibertsitateak GGIentzat aldaketa batzuk proposatu ditu, poluzio-mailaren arabera adierazle ekonomikoa txikiagotuz. Hain zuzen, CO<sub>2</sub>-emisiok hartzen dira kontuan.

Horrela, zenbait herrialderi garapenaren "ranking"ean lehen zuten lekua aldatu egin zaie. Irizpideak zabaldua "postuak galdutako" herrialdearen adibide gisa, Ameriketako Estatu Batuak aipa daiteke. Espainiak, bestalde, postuetan gora egingo luke irizpideak zabaldua.

Irizpide horien arabera, hau da AEBen eta Espainiaren sailkapena munduko garapenean:		
	Ameriketako Estatu Batuak	Espainia
Per capita errenta	2.a	22.a
GGIa	4.a	11.a
GGIa + CO <sub>2</sub>	32.a	4.a

Taulan ikus daitekeenez, irizpide ekonomiko hutsa (per capita errenta) baldin badugu, Ameriketako Estatu Batuek bigarren postua izango lukete munduko sailkapenean. Ondorioz, eta datu hau kontuan hartuta, Ameriketako Estatu Batuak munduan bigarren herrialde garatuena dela esango genuke. Pentsa dezagun, ordea, herrialdearen garapena neurtzeko gure irizpideetan, GGIaren arabera, hezkuntzako eta osasuneko aldagaiak sartzen direla. Kasu horretan, Ameriketako Estatu Batuak munduan laugarren herrialde garatuena izango litzateke. Eta hiru aldagai hauetako bat (ekonomikoa, hain zuzen) CO<sub>2</sub>-arekin sortzen duen poluzioagatik jaisten bazaio, Ameriketako Estatu Batuak oso herrialde poluitzailea delako, 32. postuan egongo litzateke. Beraz, garapenari buruzko ikuspegi honen arabera, Ameriketako Estatu Batuak gutxi garatutako herrialdea dela esango genuke.

Espainiako kasuak antzeko aldaketak ditu. Zifra ekonomikoei begiratuta, Espainia 22. postuan dago munduko sailkapenean. Leku apala da garapena GGla eta CO<sub>2</sub>-emisioko kontuan hartuta izango lukeen postuaren ondoan. Gutxi poluitzen duen herrialdea delako, Espainia oso garatutako herrialdeetatik hartuko litzateke, munduko sailkapenean 4. postuan egongo litzatekeelako.

NBEk ere sortu ditu indize berriak. Horietan, GGla aldatu egiten da beste aldagai batzuen arabera. Emakumearen berdintasuna da aldagaietako bat. Generoari buruzko Garapen-Indizea (GbGI) da hau, eta, hortik abiatuta, herrialde gehienek aldaketa handiak dituzte GGla-erikiko. Generoari buruzko Garapen-Indizea kalkulatzeko, GGiko aldagai berak erabiltzen dira, baina sarrera bikoitzarekin, hau da, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak kontuan hartuta. Oso adierazgarria da, oro har, herrialde arabiarrek duten beherakada eta, bestalde, herrialde komunista ohien gorakada.

Generoa aldagaia sartuta munduko garapen-sailkapeneko postuetan sortzen diren aldaketak			
Herrialdea	GGIko sailkapeneko postua	Generoari buruzko Garapen-Indizea (GbGI)	Aldaketa
Espainia	11	19	8 postu beherago
Saudi Arabia	70	109	39 postu beherago
Letonia	92	71	21 postu gorago

Oro har, eta lehenago analizatutako guztiaren arabera, Eskandinaviako herrialdeak dira egonkorrenak, sartzen diren aldagaiak edozein izanda ere. Gainera, Herbehereekin batera, NBEk gomendatutakoaren arabera munduan garapenari laguntzeko BPGaren % 0,7ko mugara iritsi diren herrialde bakarrak dira.

### 3. Ondorioa

Lehenago azaldutako guztiak zenbait ideia sendotu egiten ditu. Horietako batzuk aurreko jardueretan adierazi dira eta garrantzitsua da gure ikasleek ulertzea:

1. Garapeneko eta azpigarapeneko kontzeptuek aldaketa handiak izan dituzte azken urteotan, eta, ondorioz, kontzeptu erlatiboak dira.
2. Herrialde baten garapen-maila ezin da alderdi ekonomiko hutsera mugatu; izan ere, beste balio batzuk ere badaude (hezkuntza, kultura edo ingurumenaren osasuna, adibidez, hau da, bizi-kalitatea). Horiek ere era erabakigarrian parte hartzen dute herrialdearen errealitatean eta funtsezkoa da garapena baloratzeko irizpidetat hartzea.
3. Garrantzia emandako balioaren arabera (ekonomikoari, bizi-kalitateari, ingurumenari...) emaitzak aldatu egiten dira, eta zenbait kasutan guztiz aldatu ere.

Era berean, komeniko litzateke ikasleek munduko errealitatea lehen begiratuan uste dena baino askoz ere konplexuagoa dela sumatzea. Horrek inola ere ez du, ordea, gure munduan Ipar eta Hegoaren artean (edo herrialde aberastuen eta herrialde pobretuen artean) gero eta leize handia-



goa dagoela argi eta garbi esatea eragozten. Gauza bat sinetsita hasiko gara injustiziako errealitate hau aztertzen: ezagutu eta ulertzen dena baino ez dugula hartuko gure borrokarekin alda daitekeen gai gisa.

Ikuspegi horretatik, Nazio Batuen Erakundeak garapenaren errealitate konplexuaz egiten duen hurbilketa bilduz amaituko dugu.

NBERen arabera, giza garapen jasagarria paradigma berria da, gizakia garapenaren erdigunean ipintzen duena. Hazkunde ekonomikoa bitartekotzat hartzen du, eta ez helburutzat, eta oraingo belaunaldiak ez ezik hurrengo belaunaldien bizitza-aukerak babestea kontuan hartzen du. Halaber, izaki bizidun guztiak baldintzatzen dituen sistema naturalak errespetatzea ere kontuan hartzen du.



Iturria: Zenbait egile, 1987.



# 5.1. Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera

## 5.1.3. Hegoaldeko herrialdeetako mitoak eta errealitateak

5. jarduera: Afrikari entzunez

5.1. jarduera: Afrika prentsan

5.2. jarduera: Afrikatik gutuna

5.3. jarduera: Logika-hausnarketa

5.4. jarduera: Afrika koloretan

5.5. jarduera: Inkesta



## Irakasleentzako gida

### 1. Helburuak

- “Hirugarren Munduaz” dauden orokorpen eta ikuspegi bateratzaileak saihestea; ezaugarri berak (askotan negatiboak) dituen osotasun homogeneo gisa hartu gabe.
- Herrien aniztasun sozio-kulturalera hura aberastasun-iturri moduan hartuta hurbiltzea.
- Batez ere komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuez gogoeta kritikoa egitea, Hegoaldeko herrialdeez dugun irudian sortzen dituzten estereotipoak hautemanda.
- Hegoaldeko herrialdeetara ikuspegi positiboaz hurbiltzea, kultura, arte eta gizarte aldetik duten aniztasunari balioa emanez.

### 2. Jardueren segida

#### 5. jarduera: Afrikari entzunez

- *Sarrera*: Hirugarren eta Lehen Munduaz hautematen dugunaz bat etorri, eta garapen eta azpigarapen kontzeptuetara hurbildu ondoren, errealitate honi buruz ditugun estereotipoak aurkituko ditugu, herrialde pobretuez aldeztatik errotatik eratuta ditugun ideien kausak eta sorrera analizatuz.

Horretarako, Afrikako kontinentea aukeratu dugu Hirugarren Munduaren ordezkari gisa. Izan ere, gure ustez, guk herrialde horiei buruz dugun ikuspegi homogeen eta sinpleegiaren adibide ona da Afrika. Irribarrez ari diren Afrikako pertsonak geure buruan ikustea erraza al da? Lehenbizi, Afrikari buruzko zuri-beltzeko irudia iristen al zaigu? Komunikabideek eta guk Afrikari buruz dugun jakinduria eskasak lagundu egin dute Afrika beti gosearekin, miseriarekin, izuarekin, gerratik ihesi doazen pertsonen ilara luzeekin edo ankerkeriaz elbarritutako pertsonekin lotzen.

Gure ikasleek Afrikaren beste aurpegi baten berri izatea nahi dugu, albistegietan inoiz azaltzen ez dena, albiste ez dena. Jardueran Afrikako 6 herrialderen inguruan lan egingo da. Kontinente osoaren aberastasuna, konplexutasuna eta bizitasuna azaltzea gure ahalmenetik kanpo dago, baina Afrikaren beste aurpegi baten zati txiki bat erakutsi nahi izan dugu. Bizi den Afrika da, barre egiten duena, bere kultura eta lana erakusten diguna. Ez dute hondamenen beharrik haienganako interesa izan dezagun. Hegoaldeaz inoiz ikusten ez dugun aurpegia da.

### 5.1. jarduera: Afrika prentsan

- *Deskribapena:* Gelako ikasleak taldetan banatu, eta alde zuzeneko gelara ekarritako zenbait aldizkari eman talde bakoitzari. Aldizkarian Afrikari buruz agertzen diren irudiak aukeratu eta ebaki egin behar dituzte. Gero, talde bakoitzak gelako gainerakoei aukeratutako 4 irudi erakutsiko dizkie, eta gelako arbelean edo erraz ikusteko moduko leku batean, Afrikako mapa mutuan ipiniko dira. Azkenik, denon artean, gehien azaltzen diren ideiak atara eta zerrenda egin.
- *Beharrezko materiala:*
  - Aldizkariak, egunkariak.
  - Guraizeak eta itsasgarria.
  - Afrikako mapa mutua.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### 5.2. jarduera: Afrikatik gutuna

- *Deskribapena:* Ikasle bakoitzari Tshimpanga Matala-ren dokumentua emango zaio, eta taldean horri buruz hitz egingo dugu gidari diren galderetatik abiatuta.
- *Beharrezko materiala:* Tshimpanga Matala Kabangu-ren gutuna.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### 5.3. jarduera: Logika-hausnarketa

- *Deskribapena:* "Afrikako herrialdeak" izeneko logika-hausnarketa jardueraren fotokopia ikasle bakoitzari eman, eta ikasleak osatu egin beharko du. Gero, denon artean, zuzendu, eta adostu jarduera honetan zerk harritu dituen gehien.

- *Beharrezko materiala:* Logika-hausnarketa jarduera.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 30 minutu.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak.

#### 5.4. jarduera: Afrika koloretan

- *Deskribapena:* Rol-joko erraz baten bidez, gela osoa sei taldetan banatu eta bakoitza Afriko herrialde batean bihurtuko da. Talde bakoitzak bere herria aurkezteko dokumentazioa izango du. Gainera, bakoitzak bere herriko paisaia eta jendea erakusten dituen bi argazki bilatu beharko ditu (Interneten erraz aurkitzen dira). Argazkiak bilatu ondoren, talde bakoitzak gelako gainerakoei nor diren azalduko die eta beren argazkiak erakutsiko dituzte. Afrikako beste mapa batean ipiniko dituzte. Bigarren mapa hori, "Afrika prentsan" jardueran egindakoaren ondoan ipiniko da.
- *Beharrezko materiala:* Afrikako mapa mutua eta talde bakoitzari dagokion dokumentazioa.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko 2 saio (lehen argazkiak bilatzeko).

#### 5.5. jarduera: Inkesta

- *Deskribapena:* "Afrikako mapa berrian" kontinente osoaren aniztasunera eta konplexutasunera hurbildu gara. Jardueraren hasieran aipatu genuenez, gure ahalmenak gainditu egiten ditu helburu horrek, eta, ondorioz, hurbilketa besterik ez dela azpimarratu nahi dugu. Gainera, badakigu prestatu dugun mapa berrian Afrikako bizimoduaren funtsezko alderdiak ez direla azaltzen: artea, musika, politikan duten lekua, gizon eta emakume artista edo intelektual afrikarrek egindako ekarpenak, etab.

Horregatik, jarduera "Afrikari entzunez" amaituko dugu. Gaur egungo munduan ospetsu diren pertsonaia afrikar batzuk protagonista dituen.

Ikasleek, taldeka banatuta, 10 pertsonari inkesta egingo diete (kalean, familian eta hurbileko ingurunean) jardueran proposatzen diren galderei buruz. Horrela, gizarteak Afrikako beste aurpegi horretaz duen jakite-maila "ebaluatuko" dute.

Inkestaren ondoren, inkestako emaitzak eta taldeek ateratako ondorioak bateratu egingo dira. Afrikako pertsonaia garrantzitsuez informazio osagarria duen fitxa erantsi dugu.

- *Beharrezko materiala:* Inkesta.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat kalean inkesta egiteko eta 50 minutuko beste bat bateratzeko.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.



## 5.1. jarduera



### Afrika prentsan

1

#### Talde-lanerako zereginak

- Hautatu eta ebaki zuen aldizkarietan Afrikari buruz azaltzen diren irudiak (testurik gabe).
- Aukeratu adierazgarrienak iruditzen zaizkizuen 4 argazki.
- Idatzi argazki horiek zergatik aukeratu dituzuen.

2

#### Gainerako taldeei erakustea

- Amaitutakoan, talde bakoitzeko kideek, gelako gainerakoei egindako argazki-aukeraketa azalduko diezue, eta horiek zergatik hautatu dituzuen argituko duzue. Azalpena eman ondoren, aukeratutako argazki bakoitza gelan dagoen Afrikako mapa mutuan kokatuko duzue.

3

#### Gela osoa bat etortzea

- Zein dira irudi guztien ezaugarri komunak?
- Zer sentipen edo sentimendu sorrarazten dizkigute?
- Argazkien arabera, zer adjektibo egozten dizkiogu Afrikari?
- Afrikako errealitateari erantzuten diotela uste al duzue? Zergatik?



## 5.2. jarduera



### Afrikatik gutuna

1

Irakurri bakarka eta arretaz erakusten dugun testu hau.

## Tshimpanga Matala Kabangu-ren gutuna<sup>1</sup>

Kontinente ezezaguna, ahaztutako lurraldea... horrela deskribatzen dute Afrika Iparraldeko herrialde batzuetan. Oso zabala da, 30.310.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du, independente usteko 53 Estatutan banatuta dago, eta gutxi gorabehera, 695 milioi biztanle ditu. Hala ere, Afrika erakargarritasun txikiko lurraldea da. Herrialde garatuak biztanleak Afrikaz gertaera larriak daudenean (Ruandan 1994an gerra zibilean genozidioa izan zenean, adibidez) besterik ez dira arduratzen. Kazetariak tributan bildutako herrien irudiak ematen dituzte, jendea ia biluzik dela, hezur eta azal besterik ez diren umeak erakutsiz. Badirudi, Afrikaren izate osoa errealtate bakar horretara murrizten dela. Gerra ankerren irudiak dira eta elkarrenganako gorrotoaz ari diren iruzkin maltzurrez laguntzen dituzte, baina benetako arrazoietan ez dute sakontzen; izan ere, batzuetan kudeaketa politiko txarraren eta azpigarapenaren ondorio izaten baitira. Gosete eta lehorte izugarrien irudiak ere izaten dira, Etiopian 80ko hamarkadaren erdialdera izandakoenak, adibidez.

Sentsazionalismorako arreta horretatik kanpo turistaren erakarmena dago, zeina kontinenteak exotikotik izan dezakeenari buruzko bere jakin-minetik sortzen baita. Ildo horretan, interesatzen dena parke naturalak dira, beren gorila edo lehoiekin, edo pigmeoak beren bizimodu primitiboekin. Hortik kanpo gehien interesatzen direnak, Estatu-mailako eta nazioarteko talde ekonomiko eta finantzarioen mailako negozio ekonomiko handiak dira. Non dago Afrikako herria bera garatzeko eta ongizatera bideratzeko interesa?

Independentzia lortu eta 30 urte baino gehiago igaro ondoren, Afrika ez da nazioarteko harremanetan behar adina txertatu. Gainera, kontinenteak etengabeko marginazio prozesua eta nortasun krisia jasaten ditu. Ekonomiaren aldetik, eta batez ere teknologiaren aldetik, duen atzerapenak larriagotu egin du mendebaldeko ondasun eta zerbitzuen merkatuez duen mendekotasuna. Egoera hauek zigortutako eta madarikatutako kontinentearen irudi negatiboa sortu dute, eta bizimoduaren garratzasunak galarazi egiten ditu etorkizun hobeko ilusioak eta itxaropenak.

Hala ere, Afrikak badu bere etorkizuna bideratzeko eta krisian dagoen nortasuna berreskuratzeko behar den kemena. Belaunaldi berriek zenbait urtetan egindako akatsez duten kontzientziak krisiaren konponbideari buruzko eztabaidak elikatzen ditu. Ildo egokiak aukeratu behar dira, Afrikako herritarra bere balore tradizional positiboekin adiskidetu eta kontinenteari nortasun-kutsua emanda garapen-prozesua bideratzeko.

*Tshimpanga Matala Kabangu, Zairen jaio zen. Zientzia Politikoetan doktore da, Lubumbashi-ko Unibertsitatean Nazioarteko Harremanetako irakasle da.*

2

Testua irakurri eta aldizkariaren irudiekin egin dugun mapari begiratu ondoren, taldean hitz egin galdera hauetatik abiatuz:

- Egilea Afrikaren mapa horrekin ados egongo dela uste al duzue? Zergatik?
- Egileak Afrikari buruz zer irudi berri eskaintzen du?
- Zuek Afrikaz duzuen irudiarekin bat al dator?
- Zerk harritu zaituzte gehien?

<sup>1</sup> Tshimpanga Matala Kabangu, 1996.



## 5.3. jarduera



### Logika-hausnarketa

1

Logika-hausnarketa jarduera bat proposatzen dizugu: azpian duzun taula bete behar duzu Afrikako zenbait herritako ohitura eta bizimoduaz proposatutako zazpi enuntziatuetatik abiatuta. Adibidez:

- a) Kongoko Herri Errepublikaren eta Kamerunen artean oihanean bizi garenok, emakumeek eraikitako txabola erdiesferikoetan bizi gara.
- b) Pigmeoek ehizatik eta oihanak ematen dituen fruituak biltzetik elikatzen gara.

Talde etnikoa	Pigmeoak			
Kokalekua	Oihana			
Ohitura	Emakumeek egindako txabolak			
Bizimodua	Ehiza eta fruitu-bilketa			

2

Adibidean ikusitakoaren arabera, bete taula hau ematen diren baieztapenetan oinarrituta:

1. Bororo herria oraingo Senegal eta Txaden artean dagoen sabanan bizi da. Beren ezaugarria edertasunari garrantzi handia ematea da. Sormen handia dute apaingarrietarako eta ospakizunetarako bere burua pintatzeko.
2. Afrikako kantari eta musikari onenak dituen ospea duen herria (albisteak ere "grio" edo kantari ibiltariaren bidez iristen zaizkie), ez da Kenyan eta Tanzanian bizi, ezta Saharako basamortuaren inguruan ere, baina abelazkuntzatik bizi da.
3. Togo, Ghana eta Beninen bizi direnek beren tradizioen erreferentzia gisa errearen kultura dute; izan ere, Ameriketako urre-hobiak aurkitu arte Europan lantzen zen ia urre guztia horkoa baitzen.
4. Peul herria, Sahel eta Niger-Gineako zonako sabanan bizi da.
5. Abelazkuntzatik zenbait herri bizi dira. Batzuk, batez ere, ganadua hazi eta salduta bizi dira, beste batzuk, nomadak dira eta lekuz aldatzen dira, bai Kenya eta Tanzania artean eta bai Sahara inguruan; beste batzuk, abelazkuntzatik bizi dira, baina sedentarioak dira, Senegal eta Txad artean.
6. Tuareg herria Saharako basamortuan bizi da, "ehen" izeneko denda batzuetan. Oso abegitsuak izatea da beren ezaugarria; izan ere, edozein bidaiarik haien baliabideak baimenik eskatu gabe erabil ditzake. Masaiak, berriz, "manyatta" izeneko etxeetan bizi dira eta beren gorputzen itxura eta irudia zaintzeko duten arretagatik nabarmentzen dira.
7. Ashanti herrikoak, batez ere, nekazaritza eta oihan-ustiaketatik bizi dira.



Talde etnikoa					
Kokalekua					
Ohitura					
Bizimodua					



## Irakasleentzako erantzunak

Talde etnikoa	Bororo	Peul	Masai	Tuareg	Ashanti
Kokalekua	Sabana Senegal/Txad	Sabana Sahel/ Niger-Ginea	Sabana Kenia/Tanzania	Saharako basamortua	Togo/ Ghana/ Benin
Ohitura	Edertasunari garrantzia (apaindurak...)	Kantari eta musikariak (Grio)	Norbere irudia zaintzea	Abegitsua izatea. "Ehen"	Urre-kultura
Bizimodua	Abelazkuntza sedentarioa	Abelazkuntza	Abelazkuntza nomada	Abelazkuntza nomada	Nekazaritza Oihan-ustiaketa



## 5.4. jarduera



### Afrika koloretan

# 1

## Taldearentzako materiala: Tuaregak

Fulbe, Somalia eta beste herri batzuekin batera Hamita familiako kide gara. Geografiari dagokionez, Mali, Aljeria, Libia, Niger eta Burkina Fason gaude, hainbat eratako herri eta kulturen ondoan.

Tuaregak Saharako basamortuan bizi gara; begiratu batera bertan bizitzerik ez dagoela ematen du: ia inoiz ez du euririk egiten, tenperatura askotan 40 gradu baino gehiagokoa da eta gauetz 0 gradutan egon gaitzke. Ondorioz, landareak haztea oso zaila da. Egoera latz horrek antolatzen erakutsi digu eta basamortuan bizitzeko gure baliabideak ahalik eta ongien aprobetxatu behar izan ditugu.


Guk "ehen" deitzen diegun dendetan bizi gara, baina hitz horrekin gauza asko adierazten ditugu. Ehen-a amaren etxea da, familia, tuareg gizartea eta baita unibertsoa ere. Gure kontzeptu nagusietako bat da.

Bizirik irauteko ehen-ak gure funtsezko bi elementu eduki behar ditu: ura eta lurraldea. Bi ondasun horiek inoiz ere ez dira norbanakoaren jabe gozatu. Horien erabilera komunitateko hierarkiek ezartzen dute. Abegitsuak garelako ezagutzen gaituzte. Hain zuzen, bidean doazen bidaiariek, baimenik eskatu gabe, lurralde bateko gure ur eta larreak erabil ditzakete beren egonaldia luzeegia ez denean. Erbesteratutako tribua ere hartzen dugu denboraldi baterako.

Funtsean abeltzain nomada gara, baina noizbehinka nekazaritzan ere aritzen gara, batez ere oasietan. Horiek, mendetan Sahara zeharkatu duten merkataritza-karabana handientzako atsedenlekuak dira. Karabana horiek Saharatik hegoaldeko lurraldeen eta Afrikako iparraldeko eta Ekialdekoen artean produktu-trukea bideratu izan dute.

Tuareg garenontzat nomada izateak bizi dugun ikusmoldea laburbiltzen du. Beti batetik bestera gabiltza, bide latzean ganadu-taldeak ura dagoen lekuraino eramanez. Ura guretzat harmonia da, atsedenlekua, baina beste etapa baterako abiapuntua ere bai.

1. Tuaregak bizi diren zona kokatu.
2. Bilatu Tuaregei buruzko bi argazki esanguratsu Interneten edo edozein liburutegitan. Funtsezkoa da argazkiak koloretakoak izatea eta tamaina folioaren erdia baino txikiagoa ez izatea.



## 2

## Taldearentzako materiala: Ashantiak

Yoruba, Krio, Mandinga, Bamileke, Shongai eta Afrikako beste zenbait herrirekin batera Sudango familiako kide gara. Gure herria Ghana, Togo eta Beningo zonan bizi da eta gure tradizioak findutako kulturatik eta zurrun egituratutako gizarte-ordenatik eratorritakoak dira.

Gure historia geure baliabide bati, urreari, lotutakoa da. Ba al zenekiten orain Ghana deitzen dugunari 1957. urtera arte Urre Kosta esaten zitzaioela? Europarrak heldu baino askoz ere lehenago, gure urrea Mediterraneo-ko kostaldera eramaten hasi ziren arabiarrek. Gero, portugesak iritsi ziren eta merkataritza Europara aldatu zen. Hain zuzen, Ameriketako hobi handiak ustiatzen hasi ziren arte, Europan lantzen zen urre gehiena gure lurraldekoa zen.

Gure herria guretzat ikurra baino gehiago den gauza batean islatzen da: Urrezko Aulkian. Aulki hori zerutik Komfo-ri eman zitzaion, hau da, gure errege garrantzitsuenetako baten (Tutu erregearen) apaizari. Harrezkerro, Aulkiak gure herriaren boterea ez ezik herri osoaren arima ere adierazten du.

Errege berria aukeratzen denean, zilarrezko bere aulkia duen errege zaharraren ama izaten da aukeraketari hasiera ematen diona. Horretarako, aholkua eskatu behar die erregearen arbaso diren bi familietako adin handieneko gizonei. Oinordekoaz ados jartzen direnean, herriari jakinarazten zaio eta errege berriaren izendapena ospatu egiten da. Errege berriak Lurra jainkosari eta bere arbasoei zin egin behar die herriarentzat errege ona izango dela. Zeremonia horietan, patriarkek urrezko orrazkera izaten dute eta urrezko hautsez apaintzen dira.

Urrearekin dugun harremana turistak erakartzeko bide nagusia izan da, nahiz eta turistek guretzat esan nahi duena ulertu ez.

1. Ashantiak bizi diren zona kokatu.
2. Bilatu Ashantiei buruzko bi argazki esanguratsu Interneten edo edozein liburutegitan. Funtsezkoa da argazkiak koloretakoak izatea eta tamaina folioaren erdia baino txikiagoa ez izatea.



## 3

## Taldearentzako materiala: Bororoak

Jatorriz Afrikan bizi ziren herrietako bat izateaz harro gaude. Fulbe taldekoak gara, hau da, Senegal eta Txaden hedatuta dagoen herrikoak. Nomadak gara eta ezaugarri horrek gure bizitzaren oinarri-oinarria markatzen du.

Guk ez dugu tailatzen eta ez dugu zura lantzen (hori herri sedentarioen zeregina da), baina gure sormena geure apaingarri, dantza eta ospakizunetan gorputza pintatzeko eran adierazten dugu. Edertasuna oso garrantzitsua da guretzat, eta horregatik, zaintzen dugu horrenbeste estetika geure festetan. Hala ere, hori bateragarria izan daiteke sabanak ezartzen duen benetako lan latzarekin. Horregatik, festa-egunaren ondoren, prest egoten gara ganadu-taldeak edo zezenak larre batzuetatik beste batzuetara eramateko.

Gure bizitza urtarook ere markatzen dute. Abenduan, euriteak amaitu direnean, belarra ihartzen denean eta eguzkiak berriz ere berotzen duenean, Hegoaldera joaten gara. Han, artean, ganadua elikatzeko ura eta landareak egoten dira. Horrela maiatza arte irauten dugu, eta orduan, berriz ere euria egiten hasten du, eta euriarekin batera bizitza berpiztu egiten da. Une horretan, festa ospatu eta errituak egiten ditugu, "Yakea", adibidez, hau da, gure dantza tradizionaletako bat.

Gure kulturen bizimodu nomada da askatasuna ematen diguna eta independente bizitzeko aukera eskaintzen diguna. Naturaren mende gaude eta naturaren ingurukoak dira milaka urtetan lagun izan ditugun gure tradizioak.



## 4

## Taldearentzako materiala: Peulak


Afrikako zenbait zonatan banatutako herri handia gara. Nigerren, Sahel-go basamortuko eremuetan, sabanan edo Gineako oihan tropikaleko zonan bizi gara. Guztiok osatzen dugu Peul herria. Zenbait Estatutan baldin bagaude ere, gure herria muga horiek guztiak baino lehenagokoa da.

Honaino nola iritsi garen jakin nahi al duzue? Oso atzera jo beharko dugu. Hasieran, peuldarrak nomada ginen eta horrela ezarri ginen gaur egungo Nigerren. Gutako batzuk sedentario bihurtzen hasi ginen eta harrezkero gure taldeak desberdinu egin ziren. Gure janzteko erak eta apaingarriak era askotakoak dira, baina ezaugarri komunak ere baditugu: harro-fama dugu eta geure abere-taldeak ongi zaintzen ditugu. Harroak garelara esaten dute, beste herriengandik bereizten gaituzten ezaugarriak ditugulako. Gure herrian, adibidez, emakumeak ekonomiaren aldetik gizonetik independenteak dira; izan ere, emakume bakoitzak bere ganadu-taldea baitu.

Beste herrietan gizartean dituzten arau zorrotzak eta mailak ez ditugu ulertzen, zeren guretzat gauzarik garrantzitsuenetakoa geure burua aske eta independente sentitzea baita. Horrek ez du esan nahi tradizioarik ez dugunik, desberdinak garelara baizik. Mantendu dugun ohituretako bat "grio"arena da. Kantari ibiltaria da eta beste lekuetan izandako berrikuntzen berri ematen digu. Iraganeko istorioak ere kontatzen dizkigu, betiere kantuz. Afrikako musikari eta kantari onenak garelara esaten dute.

Egunen batean hona etortzen bazara, adi egon astelehenetan, hau da, azoka-egunean. Djennee-ko meskitaren aurreko plaza merkatariz eta hainbat tokitatik etorritako jendez beteta egoten da. Bozzo herrikoak (arrantzale nekazekin), bambarak, tuaregak (hauen berri baduzue), aurkituko dituzue. Jarduera horretan, eta gure bizimoduko beste askotan, beste herriekin harremanak izaten ditugu eta horriengandik ikasi eta elkarren berri ematen dugu. Beste herriekin orekan bizitzen ikasi dugu.

1. Peulak bizi diren zona kokatu.
2. Bilatu Peulei buruzko bi argazki esanguratsu Interneten edo edozein liburutegitan. Funtsezkoa da argazkiak koloretakoak izatea eta tamaina folioaren erdia baino txikiagoa ez izatea.



## 5

## Taldearentzako materiala: Pigmeoak

Batzuek diotenez, gu gara Afrikako lehen biztanleak. Guk ere halaxe uste dugu. Orain Zaire, Ruanda, Burundi, Afrika Erdiko Errepublika eta Kamerunen banatuta gaude.

Itxura berezia dugu, oso tamaina txikikoak garelako (1,50 metro ingurukoak). Oihanean bizi gara, gure lurra hori delako. Horrek babesten eta elikatzen gaitu ehizaren eta fruitu-bilketaren bidez. 10 bat txabolaz osatutako gure herrixketan aurkituko gaituzue. Emakumeek eraikitzen dituzte esferaardiaren formako eta goialdea hosto handiez estalitako txabola hauek.

Gure lan jarduera nagusiak gauzatzeko lanak banatu egiten ditugu: gizonek ehizatu egiten dute eta emakumeek oihanean tuberkuluak, onddoak, termitak eta larbak jasotzen dituzte. Talde batzuetan emakumeek arrantzan ere egiten dute.

Pigmeoak ez dugu elikagairik edo inolako ondasunik metatzen. Oihanak egunero behar duguna ematen digunez, ez daukagu gauzak gordeta eduki beharrik.

Gure Jainkoa (oihaneko, zeruko eta beste munduko Jainkoa) arduratzen da guk denetik izan dezagun. Pertsona bat Lurrean zintzoa izan denean, hiltzen denean bere arima ortziko izar bihurtzen da, baina zintzoa izan ez bada, bere arima betiko ibiliko da oihanean alderrai. Galduta dabiltzan arima horiek dira pertsonengan gaitzak sorrarazten dituztenak.

1. Pigmeoak bizi diren zona kokatu.
2. Bilatu Pigmeoei buruzko bi argazki esanguratsu Interneten edo edozein liburutegitan. Funtsezkoa da argazkiak koloretakoak izatea eta tamaina folioaren erdia baino txikiagoa ez izatea.



## 6

## Taldearentzako materiala: Masaiak

Chichewa herrikoak bezala gu ere Bantu herri-multzoko kide gara eta seguru asko gure berri izango duzue. Kenyan eta Tanzanian bizi gara.

Hasieran nomada ginen, baina orain denboraldi luzeak igarotzen ditugu leku berean. Hori beti ez da erraza; izan ere, ingeles kolonizazioaren ondorioz (eta gero kikuyu nekazari-herria gure lurretara etorri delako) gure lurraldea erdira murriztuta baitago.

Gure eguneroko bizimodua herrixkan egiten dugu eta hor funtsezko zeregina dute gure ardi, behi eta ahuntzen taldeek. Umek abereak zaintzen dituzte eta gazteek "morán" deitutakoen taldea osatzen dute, hau da, herrixka defendatzeko eta abereak zaintzen laguntzeko gerrarien taldea eratzen dute.

Gure etxeei "manyatta" deitzen diegu. Hesola batzuetan finkatutako eta elkar gurutzatutako adar malguz egiten dira eta ganga-forma izaten dute. Gero, lokatz eta behi-simaurrezko nahasteaz estaltzen ditugu. Manyatten sarreran elikagaiak gordetzeko espazioa dugu, eta beste bat ere bai abereak gauean babestuta edukitzeko. Hor bizi gara gure familiekin. Mendebaldekoak baino askoz ere ugariagoak izaten dira; izan ere, aitona-amona, osaba-izeba, neba-arreba eta abar 15 bat pertsona izaten gara.

Kilimanjaroko gailurretan gure "Engai" jainkoa bizi da. Hark egiten digu oparirik onena, hau da, belarra hazarazten duen euria.

Masai herriko gizonak zein emakumeak asko arduratzen gara geure burua zaintzeaz eta irudi ederra izateaz. Gure apaingarri maiteenak belarritakoak, idunekoak eta pinturak dira; gorria batez ere, bere tonu guztiekin. Emakumeok buruko ilea moztuta edukitzen dugu, baina gazte gerrariak ile luzea izaten dute eta txirikorda ugari egiten dute tartean hariak eta buztin gorria ipinita.

Beraz, badakizue. Gure lurraldea zein polita den erakusten duten telebistako dokumental horiek ikusten dituzue, ez ahaztu lehoi, elefante eta jirafez gain, Serengeti, batez ere, Masaien lurraldea dela.

1. Masaiak bizi diren zona kokatu.
2. Bilatu Masaiak buruzko bi argazki esanguratsu Interneten edo edozein liburutegitan. Funtsezkoa da argazkiak koloretakoak izatea eta tamaina folioaren erdia baino txikiagoa ez izatea.





## 5.5. jarduera



### Inkesta

1

10 pertsonari inkesta egin (zeuen familiakoak, lagunak edo kaleko jendea izan daiteke) galdera hauei buruz. Zuek informazioa izan dezazuen, Afrikako pertsonaia ospetsu batzuei buruz, dokumentazio osagarria duzue.

*Politikan edo diplomazian ospetsua den pertsonaia baten izena.*

EUOPARRA	.....
ESTATUBATUARRA	.....
AFRIKARRA	.....

*Edozein espezialitatetan Nobel saria irabazitako baten izena.*

EUOPARRA	.....
ESTATUBATUARRA	.....
AFRIKARRA	.....

*Gaur egungo kantari baten izena.*

EUOPARRA	.....
ESTATUBATUARRA	.....
AFRIKARRA	.....

*Zine-zuzendari baten izena.*

EUOPARRA	.....
ESTATUBATUARRA	.....
AFRIKARRA	.....

*Kirolari baten izena.*

EUOPARRA	.....
ESTATUBATUARRA	.....
AFRIKARRA	.....

### *Inkesta egin ondoren taldean hitz egiteko galderak*

- Inkesta egin diezuen pertsonak zailtasunik izan al dute Afrikari dagokion laukiari erantzuteko?
- Ameriketako Estatu Batuetako errealitatea, ez al da guretzat Afrikakoa baino ezagunagoa?





## Dokumentazio osagarria

### Afrikako pertsonaia ospetsuak

Max Theiler	Pretorian (Hego Afrika) jaio zen eta sukar horiaren aurkako txertoa asmatu zuen. 1951n, Fisiologia eta Medikuntzako Nobel saria eman zioten.
Kofi Annan	Diplomatiko ghanatarra, Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusia.
Ousmane Sembére	Idazle senegaldarra, zinegile famatua.
Nadine Gordimer	Hego Afrikako idazlea, 1991n Literaturako Nobel saria jasotakoa.
Naguib Mahfuz	Egiptoarra, 1988ko Literaturako Nobel saria jasotakoa.
Butros Gali	Nazio Batuen Erakundeko Idazkari ohia, egiptoarra.
Desmond Tutu	Hegoafrikarra, 1984an Bakearen Nobel saria jasotakoa.
Haile Gebreselassie	Etiopiarra, Atletismoko Munduko Txapelketan (Sevilla, 1999) 10.000 metrotan urrezko domina irabazitakoa.
Eguzkiaren Alabak	Bi kantari ekuatoreginearrek osatutako musika-taldea.





## **5.2.** Amerikako giltzarri historikoak: kolonializazio- eta independentzia-prozesua

### 5.2.1. Amerikaren espainiar kolonializazioa

### 5.2.2. Ipar Amerikako antzinako kolonia britainiarren kolonializazioa

*6. jarduera: Antzerki-tailerra*



## **Irakasleentzako gida**

### **1. Helburuak**

- Ipar eta Hego Amerika kolonizatzean izandako desberdintasunak eta horiek sortutako ondorioak kontuan hartuta, Ameriketako kolonializazio-prozesua analizatzea.
- Latinoamerikak duen pobretzearen sustrai historiko batzuk ezagutzea.
- Egiazko kausa batzuk ezagututa, "Azpigarapenaren" naturalizazioa desmitifikatzea.
- Zenbait informazio-iturri erabilia ikerlana prestatzea.
- Beste lagunekin lankidetzan talde-lana egitea.
- Gertaera beraren bertsio desberdinak alderatuz, espiritu kritikoa sustatzea.
- Kolonializazio-prozesuez eta horien ondorioez eman ohi izan den historia ofiziala zalantzan jartzea, eta zenbait ikuspegitatik aberastea.
- Mintzamina eta jendaurrean hitz egiteko gaitasuna sustatzea.
- Sormena eta irudimena lantzea.

## 2. Jardueren segida

### 6. jarduera: Antzerki-tailerra

- Deskribapena:* Unitatearen bigarren zatira sartu gara; aurrekoan, Hegoaldeko herrialdeez ditugun aldez aurretiko ideiak detektatu eta beste informazio batzuekin aurrez aurre ipini ditugu. Atea zabalik utzi dugu Hirugarren Munduko errealtatera beste era batera hurbiltzeko. Ikasketa kritikoa, oinarria duena eta errealtate horiekiko enpatia sustatzen duena nahi dugu.

Planteamendu honetatik abiatuz, antzerki-tailerra proposatzen dugu; gela 4 lan-taldetan banatuko da eta horiek ikerketa amaitu arte iraungo dute. Horiek izango dira Hego Amerikako (XV-XIX. mendeak) eta Ipar Amerikako (XVII-XIX. mendeak) kolonializazio- eta deskolonializazio-prozesuetako protagonistak, eta ondorengo neokolonialismokoak ere bai. Horiek azalduko dute historia. Historia horretan beti bi ikuspegi izango dira: "kolonizatzaileena" eta "kolonizatuena". Horrekin, ez ditugu bi garai horietan izan ziren gertaerak epaitu nahi. Gure helburua, gaur egun Latinoamerikak dituen arazo handiak orduan nola sortu ziren jakitea da (hau da, azpigarapena "desnaturalizatu" eta zergati historikoetara jotzea), eta, halaber, alderdi batek (parte hartutako alde bakar batek) historia idazten duenean, errealtate osoaren ikuspuntu bat jasotzen duenez, kritikoki analizatzeko duen garrantziaz jabetzea. Azken batean, historia ofiziala "konplikatu" eta beste solaskide batzuegana hurbiltzea da.

Nolanahi ere, planteamendu erraz eta manikeotik ihes egiten saiatzen gara. Zenbait protagonistak parte hartzen duten errealtate konplexua proposatzen dugu. Horregatik, kolonializazio-prozesu bakoitza "kolonizatzaileen" ikuspegitik analizatzen da, baina "kolonizatutako" herrien ikuspegitik ere bai (kasu honetan Ipar Amerikako eta Hego Amerikako, bertako biztanle indigenen ikuspegitik, hain zuzen).

Jarduera honetan, oso mesedegarriztat jotzen dugu ikasketa ikasleen parte hartze handiarekin egin ahal izatea. Aldatu egiten da irakaslearengandik ikaslearenganako noranzko bakarreko ohiko ereduak. Ikasteko era berri honetan, ikaslea da ikasketa-prozesu honetako protagonista nagusia. Unitatearen zati honetan, irakasleen zeregina gidatu, orientatu eta laguntzea izango da, ikasleek beraiek edukiak antolatu eta bereganatu ditzaten.
- Beharrezko materiala:* Talde bakoitzak antzezlan-gidoia prestatzeko behar dituen jarraibideak eta testuak.
- Dinamika:* Taldekakoa.
- Iraupena:* Prestatzeko, aldez aurretiko 50 minutuko 3 saio eta eszenaratzeko, 50 minutuko 2 saio.
- Ikusi:* Lan-taldeentzako dokumentazioa:

  - Amerikaren espainiar kolonializazioa:
    1. taldea: kolonizatzaile espainiarrak.
    2. taldea: Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako biztanleak.
  - Ipar Amerikako antzinako kolonia britainiarren kolonializazioa:
    3. taldea: kolono britainiar ohiak Ipar Amerikan.
    4. taldea: Ipar Amerikako biztanleak.



## 6. jarduera



### Antzerki-tailerra

1

Gela lau lan-taldetan banatu ondoren, bakoitzari, eszenaratzeko gidoia prestatzeko behar duen dokumentazioa emango zaio. Talde bakoitzak honako informazio hau izango duzue:

- Antzezlan-gidoia prestatzeko jarraibideak.
- Kolonializazio- eta independentzia-prozesuko testu nobelatuak eta historikoak, talde bakoitzari dagozkionak (1., 2., 3., eta 4. fitxak).

2

Eszenaratzeko orduan, garrantzitsua da, alde batetik, talde bakoitzeko pertsonaiak protagonistekin identifikatzea eta gertaerak beraien ikuspegitik aurkeztu eta azaltzea. Bestetik, jendeari datu gehiago eskaintzeko, lagungarria da, agertokia ahalik eta gehien girotzea: diapositibak, musika, makillajea, janzkerak eta atrezzoak erabil ditzakezue.

3

Eszenaratu baino lehen, talde bakoitzak gidoia idatzi eta irakasleari eman beharko dio.

4

Talde bakoitzaren lana, ordena kronologiko bat jarraituz eszenaratu beharko da; lehendabizi, Latinoamerikako taldeak, eta gero, Ipar Amerikako taldeak.

5

Amaieran, eszenaratzeaz hitz egiteko alderdi batzuk adierazten dira.

## Amerikaren espainiar kolonializazioa

### 1. taldea: Kolonizatzaile espainiarrak

*Antzezlan-gidoia prestatzeko jarraibideak:*

# 1

#### Kontalaria

Eszenak hobeto ulertzeko, datuak eta arrazoiak emanez, antzezlanari koherentzia emango diona izango da. Kontalariaren helburua, ondoz ondo azaltzen diren eszenak ulertzen, kokatzen eta zentzua ematen laguntzea izango da. Kontuan izan, kontalaria ere istorioaren zati dela eta behar bezala girotuta egon behar duela (jantziak, etab.). Eta ez ahaztu antzezten ari garela. Kontua ez da datuen laburpena irakurtzea, istorio bat interpretatzea baizik!

Kontalariak, lehen agerraldi honetan, ikusiko dugun istorioa aurkeztuko du, espazioan eta denboran kokatuta: nor zareten, non eta nola bizi zareten, zeren bila zabilatzaten, etab. Kontuan izan, ikusleek ez dakitela zuei buruzko ezer.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

#### Lehen eszena

Ameriketara joan ziren garaian, espainiarrak zein ziren eta nola bizi ziren erakusten duen eszena aukeratu. Jendearen aurrean aurkezteko era izango da.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

# 2

#### Kontalaria

Labur kontatu beharko ditu espainiarrak leku ezezagunetara zerk bultzatu zituen eta hain mundu desberdinen arteko lehen harremana nolakoa izan zen: konkistatzaileen eta herri indigenen arteko harremana, alegia.

*Materiala: 2. fitxa: Zergatik abiatu zarete beste lurralde batzuetara? Nor topatu dituzue?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

#### Bigarren eszena

Ameriketara abiatzen diren espainiarren asmoak eta Ameriketako biztanleekin duten lehen harremana erakusten duen eszena aukeratu. Zerk harritu zituen? Nola erantzun zuten?

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 2. fitxa: Zergatik abiatu zarete beste lurralde batzuetara? Nor topatu dituzue?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 3

**Kontalaria**

Konkistatzaileek Ameriketara sortu zituzten erakunde nagusiak aurkeztuko ditu. Horretarako, datu esanguratsuenak emango ditu honako puntu hauek kontuan hartuta:

- Erakunde politiko-administratiboak: Erregeorderriak eta bertako agintariak.
- Erakunde ekonomiko berriak: enkomienda, mita eta errepartimendua.
- Merkataritza-sistema berria: urreak eta zilarrak konkistan izandako garrantzia.

*Materiala: 3. fitxa: Gizarteko eta ekonomiako zein erakunde sortu dira? Zein merkataritza-sistema sortu da?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Hirugarren eszena**

Kontalariak azaldutakoaren arabera, konkistatzaileek politikan, gizartean eta ekonomian ezarritako ordenaren alderdi esanguratsuenak erakusten dituen eszena aukeratu. Oso garrantzitsua da lehen eszenarekin kontrastea nabarmentzea. Hau da, espainiarrak abiatu baino lehen nola bizi ziren, eta Ameriketara haien bizimodua boterearen eta aberastasunaren bidez nola aldatu zen.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 3. fitxa: Gizarteko eta ekonomiako zein erakunde sortu dira? Zein merkataritza-sistema sortu da?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*


## 4

**Kontalaria**

Amaitzeko, kontalariak independentzia zein esparru historiko eta sozialean gauzatu zen adieraziko du, eta aldi berean, honen alderdi nagusienak ere erakutsiko ditu.

*Materiala: 4. fitxa: Zer prozesu izan du independentziak?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*



**Antzezlan-gidoia prestatzeko testuak:****1. fitxa: Aurkezpena****Kontalariarentzako materiala eta lehen eszena**

**G**aztelako erreinuan bizi gara, Isabel erreginaren gobernupean, baina penintsulan beste erreinu batzuk ere badira: Aragoikoa (erregea Fernando da, Isabelen senarra), Nafarroakoa eta Portugalgoa. Denak elkarrekiko independenteak dira, baina "Errege Katolikoek" ezkontzaren ondoren, beste bide bati hasiera eman zaio.

Aurten amaitu da Granadako erreinu arabiarrekin zegoen gerra, eta, ondorioz, 1492ko urtarrilaren 2az gero, penintsulan ez dago musulmanen agindupeko lurralderik.

Penintsulan bederatzi milioi biztanle inguru gara. Horieta % 80 nekazariak gara, ia denak oso behartsuak; aberastasun nagusia, lurra, oso gaizki banatuta dago eta oso pertsona gutxi (nobleek eta Elizako goi-agintariek) aberastasun handiak dituzte. Gutako gehienak, berriz, bizirik irauteko behar dena baino ez dugu.

Gure hirietako batera etorriko bazina, peoi eta artisau xumeez beteta dagoela ikusiko zenuke. Nekazariak herrietan gaude eta guk dugu bizimodurik latzena. Lurra jaun feudalarentzat lantzen dugu, hura baita luraren jabea. Uzta txarrek eta lan baldintza gogorrek ia-ia esklabo bihurtzen gaituzte, baina zerbait jan beharra dago eta... Bistan da, gure bizimodua ez dela batere erraza. Egunsentitik gauera arte lan egiten dugu uzta ona izateko itxaropenetan, baina gaixotasunak izaten ditugu (izurritea, besteak beste) eta umeen erdiak zazpi urte bete baino lehen hiltzen dira.

Orain dela gutxi arte, Aragoiko eta Gaztelako erreinuetan ia milioi erdi bat judu bizi ziren, baina gehienek, martxoaren 31ko ediktuaz gero, erreinuak utzi egin behar izan dituzte; hark behartu egiten baitzuten kristau bihurtzera eta erlijioz kristau izatera, hemen bizitzen segi nahi baldin bazuten. Musulmanei ere beste horrenbeste gertatu zale. Beren lurretik ihes egin behar izateko arrazoia Elizak orain duen eragin eta botere izugarria da. Musulmanak eta juduak ez ditu begi onez ikusten penintsulan. Fedearen batasuna arriskutan jartzen omen dute, nahiz eta erlijio horretakoak hemen mendetan bizi izan diren

(musulmanak 711. urteaz gero). Bi erreinuetan, kristau-fede bakarra izateari horrenbesteko garrantzia ematen zaionez, "Errege Katolikoek" Aita Santuari Inkisizio Santua ezar dezala eskatu diote, gezurretan kristau bihurtu direnak jazartzeko. Inkisizioa berriz ezartzearen kontra daude herritar gehienak, lan egiteko era ilun samarra duelako.

Horrek guztiak, oinaze handia eragin die belaunaldiz belaunaldi bizi izandako etxea eta lurak sei hilabeteren buruan utzi behar izan dituzten pertsoneri.

Gainera, juduak egoztea gure ekonomiarentzat hondamena da, hirietako munduan ekonomiaren arloan postu garrantzitsuetan baitaude: merkataritza, finantzatan... Granada konkistatu ondoren, musulman gehienak joateak ere eragin negatiboa izango du gizarteari eta kulturari dagokienez (musulmanen herriak kristautasunaren mundukoak baino aurrerapen handiagoak baitituzte zientzian eta kulturari); baita ekonomiari dagokionez ere (batez ere nekazaritzaren munduan, ureztaketa-sistemetan, etab.).


Egoera honetan, eta batez ere Granadako erreinua konkistatu ondoren, Isabel eta Fernando erregeek, baita Portugalgo erregeak ere, penintsulatik kanpoko politika espansionista areagotzen dute. Ildo horretan, Aragoik, geografiako logikaren arabera, Mediterraneo aldera jotzen du. Gaztelak eta Portugalak, ordea, Atlantikorantz begiratzen dute (berez Gaztela Kanarietako konkistari amaiera ematekotan da). Horregatik, Kristobal Kolonek, lehenbizi Portugalgo Erregeari eta gero Gaztelako Isabeli, Atlantikoan zehar Indietarako bidea aurkitzeko behar dituen baliabideak eskatu dizkie (karabelak, marinela, etab.). Portugalgo Erregeak ezezkoa eman ondoren, Isabelek azkenean, Kolonen eskaerari baietza eman dio.

Bide ezezagunetara abiatuko gara hurrengo abuztuaren 3an, hiru karabelatan, Kristobal Kolonen agindupean. Zer izango ote dugu abentura horretan?

*Gutierrez J., Fatás G. eta Borderías A., 1977.*



## Iberiar Peninsula XV. mende amaieran




### Penintsulako Erreinuak

1. Portugal
2. Gaztela
3. Nafarroa
4. Aragoi
5. Granada

### Gertaera garrantzitsuenak XV. mende amaieran. Bateratze baxua Peninsulan

- A. Granadako konkista
- B. Kanarietako konkista
- C. Rossellón eta Sardiniaren konkista
- D. Nafarroaren anexioa
- E. Ezkontza-politika Portugalekin

Iturria: Ricardo de la Cierva, 1993.



## 2. fitxa: Zergatik abiatu zarete beste lurralde batzuetara? Nor topatu dituzue?

### Kontalariarentzako materiala eta bigarren eszena

I taliako errepublikek Ekialdearekin merkataritza -harremanak izaten denbora luzea zeramaten. Luxuzko produktu asko inportatzen zen: alfanjeak, Pertiako alfonbrak, Txinako porzelanak eta Mediterraneoeko dieta monotonoa ontzen zuten espeziak. Espeziak, batez ere, Indiatik ekartzen zituzten, baina zona hori turkiarren inperioak hartu zuenez gero, hain estimatuak ziren espezien merkataritza arriskutan zegoen. Gaztelak eta Portugalek, orduan, Indiarekin merkataritza zuzenean hastea erabaki zuten. Horretarako, abenturan atera ziren, orduan Lurra laua zelako ustea ustela izango zenaren itxaropentan eta Atlantiko aldetik Indietara iritsiko zirelakoan. Kolonek kalkulatu zuenez, aurkituko zuten lehen uhartea Cipango (Japonia) izango zen, penintsulatik 4.500 kilometro mendebaldera.

Piperbeltza, jengibrea, iltze usaintsua, intxaur muskatua eta kanela, neguan okela zaporerik galdu gabe kontserbatzeko gatza bezain preziatuak ziren. Errege

Katolikoek iturrietara zuzenean jotzeko abentura finantzatu zuten. Ekialdeko lurralde misteriotsuetatik zetozen espezien eta landare tropikalen, muselinen eta arma zurien merkataritza beren esku zuten bitartekarien eta saltzaileen kate garestia alde batera utzi nahi zuten. Merkataritzako salerosketak ordaintzeko bide ziren metal preziatuak eskuratu nahiak ere bul-tzatu zuen itsaso madarikatuak zeharkatzeko abentura. Europa osoak behar zuen zilarra. Bohemia, Saxonia eta Tirolo mehatzeak ia agortuta zeuden.

Gainera, Iberiar penintsulan, erreinu kristauek, mende batzuk geroago iparramerikarrek "muga-espíritu" deitutakoa bizi zuten. Muga amaierarik gabeko espazioa zen, konkistarako eta populazio berriak ezartzeko dei egiten zuena. Geografian aurrera egitea penintsulako kristaudentzat bizimodu bihurtu zen.

*Eduardo Galeano, 1996.*

**"A**zkenean, nire abiatzea eta itzultzea laburbilduta emateko, eta bidaia honen abantailak labur adierazteko, hitza ematen dut inoiz menderatu gabeko gure erregeek emandako laguntza txikiekin behar adina urre aurkeztuko diedala, eta, aroma, kotoi, Quio-n baino ez dagoen erretxina eta aloea, eta Itsasgintzako zerbitzurako esklaboak Maiestateek eskatu adina ekarriko ditudala.

*Arabarba eta genero ezberdinetakoa arometatik ere beste horrenbeste eskaintzen dut, eta sinetsita nago han gotorlekuan utzi nituenek aurkitu dituztela eta aurkituko dituztela."*

Gutuna Rafaeli, "Errege Katolikoek" altxorzainari, Kristobal Kolonek 1493ko martxoaren 14an idatzia.

**"R**odrigo Trianakoa deitzen didate, 17 urte ditut eta gaur goizaldean abentura honetarako ontziratuta naiz. Jasota gera dadin, egunkari honi hasiera eman diot leku ezezagunetara abiatu garen egunean. Gaur, 1492ko abuztuaren 3an, hiru karabela hauskor Cadizko Palosko portutik atera dira. Pinta izenekoa, azkarrena, Niña bere jabearekin eta bere familiako bi senide ontziratuta dituela eta Santa Maria, handiena, 100 tona baino gehiago dituena, baina hiruretan baldarrena dena.

Eskifaian 87 kide gara, gehienak andaluzak (ni ere bai), extremadurarrak eta leondarrak. Gaur ontziratuta gara, abentura-egarriz eta Cipango (Japonia) urrun eta exotikorako bidea aurkitzeko helburuaz. Guztiok estutzen gaitu urdin ikaragarri horretan ezkutuan egon daiteke-

*enak. Istorioek diotenari aurre egitea onartu dugu. Berebiziko ekaitzek gure ontziak intxaur-oskolak bezala erabiliko dituzte eta munstroetaraino eramango dituzte; itsaso ilunetako suge handia, giza haragiaren gosez dagoena, zelatan da. Azken Judizioko su garbitzaileek mundua suntsitzeko ez da urte asko falta. Nik zer gal nezake? Atzean ama eta zazpi anai-arreba utzi ditut. Haien etorkizuna iluna da, eta pilatuta duten gosea uzten dut, Almiranteak agindu digun bezala itzultzeko: patrikak perlaz, harri bitxiz eta inoiz amestutu gabeko aberastasunez gainezka. Orduan, neure etxera itzuli eta gauzak aldatu egingo dira."*

Berak idatzia.  
Rodrigo Trianaren Ontziko Liburuaren lehen orrialdea.

“**E**ta Pinta karabelak bela handiagoak zituelako lehorra aurkitu zuen. Lehor hori, lehen aldiz, Rodrigo Trianakoa deitutako marinela ikusi zuen. Horregatik, marinelek beren erara kantatu ohi duten Salbea errezatu zuten. Gauerdiaren ondoren, ordu bietan (urriaren 12an), lehorra azaldu zen, indiarren hizkuntzan Guanahani izeneko uhartetxo. Gero, biluzik zebilen jendea ikusi zuten, eta Almirantea txalupa armatua lehorreratu egin zen, eta Martin Alonso Pinzon eta Vicente Anés, anaia, Niña-ko kapitain zena ere bai. Lehorreratu ondoren, Almiranteak bi kapitainei eta Rodrigo Escovedokoari, armada osoko eskribauari, dei egin zien, eta fede eta lekukotasuna eman zezatela esan zuen, denen aurrean uharte hura bere jaun errege-erreginengatik hartzen zuelako. Gero, uharteko jendea ugari bildu zen hara.

Nik (idatzi zuen Almiranteak) guganako adiskidetasun handia izan zezaten, gure Fede Santura jende hura indarrez baino errazago maitasunez bihurtuko zela banekielako, batzuei bonete gorriak, beirazko pieza batzuk (haiek lepoan ipintzeko) eta balio gutxiko beste gauza asko eman nizkien, eta oso pozik jaso zituzten. Haiek berriz, itsasontzietako txalupetara, gu geunden lekura, etortzen ziren igeri eginez. Papagaiak, kotoi-harilak, azagaiak eta beste gauza asko ekarri zizkiguten trukerako.

Maiestateei egiazatu egiten diet munduan nire iritziz hauek baino pertsona hobirik ez dagoela. Lagun hurkoa beren burua bezala maite dute eta hizkuntza gozoa eta barea dute, eta etengabeko irribarra ere bai. Amak munduratu zituen bezala denak biluzik ibiltzen dira, emakumeak ere bai. Eta nik ikusitako guztiak gazteak ziren, oso gorputz ederrekoak eta aurpegi onekoak, ile lodikoak (ia zaldi-isatsen zetazkoak) eta motzekoak.

Horiek ez dute armarik, eta ez dute armarik ezagutzen; izan ere, ezpatak erakutsi nizkien eta beren ezjakintasunean sorbatetik heldu eta ebakia egiten zuten. Ez dute burdinarik. Haien azagaiak burdinarik gabeko makilak dira eta batzuek muturrean arrain baten hortza dute. Denak gorputz luzekoak dira, handiak eta itxura onekoak, ongi egindakoak.

Eta ni adi nengoen eta urrerik ba ote zegoen jakin nahi nuen, eta haietako batzuek sudurrean duten zulotxotik zintzilik urre-pusketa zekartela ikusi nuen, eta keinuka ulertu ahal izan nien Hegoaldera joanda han errege batek urrezko ontziak eta urrea ugari zituela.”

Intermón Talde Pedagogikoa, 1993.  
Kristobal Kolonen egunkaririk.

“**I**zan ere, berorren gorentasunari, oso jaun ahaltsu horri, bertako jaun den Mutezumaren mendeko eta zerbitzurako Temixtitan hiri handi honetan dauden handitasunen eta gauza bitxi eta miresgarrien berri emateko, eta jende honek dituen erritu eta ohituren berri emateko, eta hiri honetan eta jaun horrena ziren besteetan gobernatzeko duen eraren berri emateko, denbora asko beharko litzateke eta kontalari asko eta onak ere bai; beraz, nik ehun zatitik bat besterik ez dut esaterik izango, baina ahal dudan moduan adieraziko ditut ikusitako gauza batzuk; izan ere, ongi esanak ez badaude ere, ondotox dakit miresgarriak irudituko zaizkizueta eta sinestekoak ez direla izango, gu geu ere geure begiez ikusitakoa adimenez ulertu ezinik gabiltzalako.

Temixtitan-go hiri handi hau aintzira gazian oinarritua da, eta lehorretik hiriko kaskora, edozein lekutatik sartu nahi izanda ere, bi legoa daude. Lau sarre-ara ditu, denak eskuz egindako galtzadazkoak, eta bi lantza motz adina zabalekoak. Sevilla eta Kordoba

bezain hiri handia da. Bertako kaleak, kale nagusiak, oso zabalak eta zuzenak dira, eta horietako batzuk eta gainerako guztiak erdia lurrezkoak eta beste erdia urezkoak dira, eta uretatik kanoatan ibiltzen dira, eta kale guztiak tarteka irekita daude batzuen urak bestenak zeharkatuz, eta irekigune hauetan guztietan (batzuk oso zabalak dira), habe oso zabal eta luzeko zubiak daude. Habe elkartu eta sendoak dira, ongi landutakoak, eta zubi horietako askotatik hamar zaldizko parean batera igaro daitezke. Eta hiriko biztanleek traiziorren bat egiterik nahiko balute, horretarako baliabideak izango lituzkete, hiri hori esanda bezala eraikita dagoelako, eta sarrera-irteeretako zubiak kenduko balituzte, goseak hiltzen utziko gintuzkete lehorreratu ezinik. Hiri horretara sartu nintzenean, presaka eginarazi nituen lau bergantin; oso denbora gutxian egin nituen, nahi genuenean hirurehun gizon lehorreratu eta zaldiak eraman ahal izateko.

Hiri honek plaza asko ditu eta etengabe daude azoka eta salerosketak. Beste plaza bat Salamanca hiria

*halako bi da, inguru guztia portalez inguratuta duena, eta egunero hirurogei mila pertsona baino gehiago aritzen dira salerosketan; era guztietako salgaiak daude, lurralde guztietan aurki daitezkeenak: mantengaiak eta elikagaiak, urrezko eta zilarrezko bitxiak, berun, letoi, kobre eta eztainuzkoak, harri, hezur, maskor, barraskilo eta lumazkoak. Karea saltzen dute, harri landua eta landugabea, pezoak, adreiluak, era askotako zur landua eta landugabea. Kale batzuetan ehiza saltzen dute, lurrean diren era guztietako hegaztiak, oiloak, eperrak, galeperrak, basahateak, doralak, zertzetak, usapalak, usoak, arraukako txoriak, papagaiak, hontzak, arranoak, aztoreak, gabiraiak eta belatzak; eta hegazti harrapari hauetako batzuen larrua beren luma, buru, moko, erpe eta guzti saltzen dute. [...] Hiri honetako jendea beste probintzia eta hirietakoa baino dotoreagoa eta trebeagoa da janzteko*

*eta zerbitzurako, gauza guztiak txukunago eta hobeto zainduta zeuden, Mutezuma beti han baitago, eta haren basailu diren jaun guztiak ere hirira joaten baitira. Eta hiri handi honetako gauzen zerrenda gehiegi ez luzatzearen, gauza bat besterik ez dut esango: bertako zerbitzu eta jendearen tratuan ia Espainian bezalako bizimodua dagoela, eta han adinako ordena eta zuzentasunarekin, eta jende hau barbaroa eta Jainkoa ezagutzetik eta arrazoi-meneko beste nazioekin harremanak izatetik hain urrun egonda, miresgarria dela gauza guztietan duten maila. [...]"*

Hernán Cortés-ek Karlos V.a enperadoreari egindako bigarren gutuna. Segura de la Fronteran, 1520ko urriaren 30ean.

"Ameriketako indigenen artean denetik zegoen: astronomoak eta kanibalak, ingeniariak eta Harri Aroan bizi ziren basatiak. Baina, hango kulturetan inork ez zuen burdinaren edo goldearen, beiraren edo bolboraren berririk, eta gurpilik ez zuten erabiltzen. Itsasoaren bestaldetik etorrita lurralde horietara zabaldu zen zibilizazioa, Errenazimentuko eztanda sortzailea ari zen bizitzen. Amerika beste aurkikuntza bat gehiago zen, bolbora, inprenta, papera eta iparrorratza bezala, Aro Modernoaren sorrerari erantsi zitzaion beste aurkikuntza bat. Bi mundu haien garapen-desberdin-

tasunak azaltzen du, neurri handi batean, zergatik menderatu zituzten hain erraz bertako zibilizazioak. Hernán Cortés Veracruz-en lehorreratu zenean ehun marinela, 508 soldadu, 16 zaldi, 32 balezia, brontzezko hamar kanoi eta zenbait arkabuz, moskete eta pistolatzar besterik ez zituen. Hala ere, azteken hiriburua, Tenochticlan, orduan Madril baino bost aldiz handiagoa zen, eta Espainiako hiri handiena zen Sevillan baino bi aldiz jende gehiago bizi zen han."

*Eduardo Galeano, 1996.*



### 3. fitxa: Gizarteko eta ekonomiako zein erakunde sortu dira? Zein merkataritza-sistema sortu da?

#### Kontalariarentzako materiala eta hirugarren eszena

**A**merika aurkitu zutela eta, Ameriketako lurren jabe Koroa egin da. Baina Fernando hil ondoren, Amerikak errege-erreginen ondare pertsonal izateari utzi eta Erreinu bihurtu da, Espainiako monarkia eratzen duten gainerako Erreinuak bezalaxe. Amerikari ezarritako eginkizuna, Espainiak Europan duen kanpo-politika finantzatzen laguntzea izan da. Horretarako, politika eta administrazio aldetik antolatzea egin behar izan da, metropoliko erakundeen antzekoak ipinita. Antolamendu hori bi erakunde desberdinen bidez gauzatu da: metropolikoen bidez (hots, Espainian dauden erakundeen bidez) eta lurraldekoen bidez (hau da, Ameriketako erakundeen bidez).

#### **Metropoliko erakundeak: Kontratazio Etxea eta Indietako Kontseilua**

Kontratazio Etxea lehenbizi Sevillan egon zen, eta orain, Cadizen badago ere, bere eginkizuna Amerikarekin dagoen merkataritza osoa kontrolatzea eta antolatzea da. Beraz, berau arduratzen da, Espainiako kolonia guztiek merkataritza Espainiarekin baino izan ez dezaten. Halaber, indigenen zerga guztiak eta espainiarrek erregeari ordaindutako zerga guztiak biltzen ditu. Gainera, zentro zientifikoa da, pilotu nagusia (nabigazioko artea irakasten duena) eta mapak zein itsas tresnak egiten dituen kosmografoa dituena.

Indietako Kontseilua arduratzen da Ameriketako funtzionario espainiarrak izendatzeaz, eta Kontseilu honek argitaratzen ditu legeak eta dokumentuak.

#### **Lurraldeko erakundeak: Erregeorderriak, Gobernadoreak eta Entzutegiak**

Karlos I.ak kolonizatutako lurraldea bi Erregeorderritan banatu zuen: bata Nueva España zen eta bestea Perukoa (XVIII. mendean beste bi Erregeorderri sortu ziren: Nueva Granadakoa eta Rio de la Platakoa). Bakoitzeko buru erregeordea da, hau da, Espainiako erregearen aginpide absolutuaren zuzeneko ordezkaria. Erregeordeak nobleziakoak dira eta Ameriketako agintari gorenak dira.

Gobernadoreak erregeak bera izendatzen ditu probintziak hirutik zortzi urte bitartean gobernatzeko.

Entzutegiak, Erregeorderriak baino maila apalagokoak izan arren, erregeek Ameriketara duten botere absolutua bermatzen dute justizia-epaitegi moduan lan eginez. 1527an, Nueva Españakoa sortu da, Hernán Cortés konkistatzaileak bereganatutako boterea mugatzearen.

**E**spainiaren eta Ameriketara finkatutako kolonoen artean, XVI. mendean zehar, merkataritza-harreman estuak ezarri ziren. Espainiak Ameriketara era guztietako produktuak bidaltzen zituen (janariak, jantziak, tresnak...) urrearen eta zilarraren truk.

Konkistako unean, zilarra eta urrea ugari lortzen zuten harrapakin moduan. Gero, zilar-meatzeetatik atera egin behar izan zuten (Boliviako eta Mexikoko batez ere).

Meatzeak erregearenak ziren, lur azpiaren jabe bakarra zelako. Erregeak ustiatzea partikularrei ematen zien, Koroari ateratako metalaren bostena ematekotan. Meatzeak indiarrak lan egitera behartuta ustiatzen ziren. Urea Iberiar penintsulara galeoi famatuetan, pirata ingelesak hainbeste gutziziatzen zituztenetan, eramaten zen.

Ameriketako urre eta zilar ugariak nazioarteko merkataritzan hazkunde handia eragin zuen. Espainiako ekonomiak hedapen handia izan zuen garai hartan, Ameriketako kolonoek Espainiako produktuak ugari eskatzen zituztelako.

Merkataritzako trukearen bidez, Ameriketako urrea eta zilarra besteren eskuetara joan ez zedin, monopolioa ezarri zen, hau da, Ameriketako lau itsas-portu garrantzitsuenek (Veracruz, Cartagena, Lima eta Panamak) Iberiar penintsularekin Kontratazio Etxearen bitartez baino ez zuten trukekerik izango. Horrela, ia urre guztia, eta batez ere zilarra, zuzenean edo merkataritzako jardueraz, Iberiar penintsulara iristea segurtatzen zen. Baina, ideia hori Europako potentziek ez zuten begi onez ikusi, Ameriketako merkataritzak ematen zituen etekin handiei uko egiteko prest ez zeudelako. Beraz, ingelesak, frantsesak eta herbeheretarrak Amerikarekin merkataritza-kontrabandoan hasi ziren.

Gainera, Espainiaren aro distiratsua, hain laburra, 1570ean hasi zen beste gertaera bategatik izan zen. Urte hartan, Gaztelan berebiziko inflazioa izan zen: hainbeste urre eta zilar iritsi zenean, luxuzko produktuen eskariak gora egin zuen eta hauek produzitzeari utzi egin zioten. Orduan, produktuen prezioak hainbeste igo zirenez, erregeek Europatik

produktuak inportatzea erabaki zuten, merkeagoak zirelako. Espainian orduan, Gaztelako lantegi askok porrot egin zuten, atzerriko produktuei lehia egiteko gauza ez zirelako. Europan, ordea, Herbeheretako,

Frantziako eta Ingalaterrako industriek aurrera egin zuten, azkar haziz.

*Zenbait egile, 1976.*

#### 4. fitxa: Zer prozesu izan du independentziak?

##### Kontalariarentzako materiala

**E**spainiako monarkia, XVI. mendearen amaieraz gero, ekonomiaren aldetik porrot eginda zegoen. Erret ogasunari laguntzearen, ofizio publikoak saltzen hasi ziren eta laster, beren karguak Koroari ordainduta eskuratutako funtzionarioak erruz ugaltu ziren erregeordeen ondoan. Haien beren inbertsioa berreskuratu eta etekina ateratzea espero zuten. Bide horretatik, kreolen eragina gero eta handiagoa zen. Espainiako monarkiak Ameriketara (orain Itsasoaz bestaldeko Probintziak deitutakoetan) espainiarren eragina handiagoa izatea nahi zuen, orduan, penintsulatik jende ugari bidali eta Administrazioko karguak bereganatu egin zituzten. Orduan, Kreolek beren eragina eta boterea arriskuan ikusi zituzten, hau da, hamarkadatan nobleziako kargu eta tituluak erosita, lurra usurpatuta, ezkontzak eta Elizan karre-  
rak eginda lortutako eragina eta boterea arriskuan zegoen. Kreolak, horren ondorioz, botere politikoan penintsulatik joandako jendea ordezkatzeko hasi ziren. Bi talde horien arteko aurkakotasuna gero eta handiagoa zen, azkenean, lehen Espainiako kolonia izandakoek independentzia lortu zuten arte.

Merkataritzaren arloan, zilar-produkzioa handiagotzeko erreformak egin ziren aldi berean, beste esportazio batzuk bultzatu ziren: kakaoarena Venezuelan, tabakoarena eta azukrearena Kuban, eta metropoliko portuen eta itsasoz bestaldekoen arteko merkataritza-askatasuna aldarrikatu zen, muga batzuk zeuden arren. Merkataritza irekitzeko saio haren ondotik

penintsulako merkatariek uholdeka iritsi ziren Ameriketara; izan ere, han Espainiako industria hasi berriaren produktuak saltzeko merkaturak ikusten zuten. Hala ere, produktu ingelesak eta frantsesak izan ziren, penintsulan zehar bidalita, gehien erosten zirenak, prezio lehiakorragoak zituztelako eta kalitate hobekoak zirelako.

Azkenean, boterea eskuratzeko kreolen eta espainiarren eliteen arteko borrokaren ondotik gerra zibila lehertu zen. Aurkariak bi klase boteretsuak ziren. Botereagatik gatazka haietatik aparte, herri xehea altxatzen hasi zen, desio zuten askatasunaren itxaropenez. Hala ere, arriskutsutzat hartu zituzten, bai penintsulakoek eta bai kreolek ere herriaren altxamenduetan Erregeorderriko aginpidea arriskuan ikusten zutelako eta haien suntsitu ez eta bereganatu egin nahi zutelako. Bitartean, arlo guztietan praktikan gauzatu-tako merkataritza libreari esker, Britainia Handiko manufaktura Hispanoamerikako merkaturak bereganatu egin zuten, eta merkatariek ingelesak eskuratu zituzten etekinak. Une horretan, Espainiatik altxamenduak zanpatzeko bidalitako armada heldu zen. Ordura arte gerra zibila izan zena, gerra kolonial bihurtu zen.


1825ean, Espainiak bere mende Kubako eta Puerto Ricoko uharteak besterik ez zituen, Ameriketako gainerako lurraldeak errepublika independente bihurtu zirelako.

*Mercedes Quintana, 1999.*



**B**eraz, Espainiak Ameriketako zituen koloniak independentzia-prozesuan aurrera ari zirenean, Espainian Independentzia-gerraren (1808-1814) ondoren sortutako Iraultza Liberalaren espirituan oinarrituta. Espainiarrak Frantziako inbaditzailearen kontra borrokan ari diren bitartean, mendetan boterean egondako agintari-klasearen aurka altxatu ziren. Absolutismoaren kontrako eta liberalismoaren aldeko

gerra zen. Biztanleak kutsatzen zituen ideologia liberal berriaren kontra, zaila zen zuzendari-klase urri baina ahaltsuaren botere absolutuan oinarritutako kolonien egitura tradizionala mantentzea. 1812ko Konstituzioarekin gailurrera iritsi zen Iraultza Liberal hark, penintsulako mugak gainditu zituen eta, besteak beste, Bolivar eta San Martinen independentzia-ideietan eragina izan zuen.



## 2. taldea: Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako biztanleak



Antzezlan-gidoia prestatzeko jarraibideak:

## 1

## Kontalaria

Eszenak hobeto ulertzeko, datuak eta arrazoiak emanez, antzezlanari koherentzia emango diona izango da. Kontalariaren helburua, ondoz ondo azaltzen diren eszenak ulertzen, kokatzen eta zentzua ematen laguntzea izango da. Kontuan izan, kontalaria ere istorioaren zati dela eta behar bezala girotuta egon behar duela (jantziak, etab.). Eta ez ahaztu antzeztan ari garela. Kontua ez da datuen laburpena irakurtzea, istorio bat interpretatzea baizik!

Kontalariak, lehen agerraldi honetan, ikusiko dugun istorioa aurkeztuko du, espazioan eta denboran kokatuta: nor zireten, non eta nola bizi zireten eta zuen herriaren historia zergatik kontatuko diguzuen. Kontuan izan, ikusleek ez dakitela zuei buruzko ezer.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

## Lehen eszena

Espainiarrak iritsi baino lehen Ameriketako biztanleak nor ziren eta nola bizi ziren adieraziko duen eszena aukeratu. Jendaurrean aurkezteko era izango da.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarrizketak ere bai.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*



## 2

**Kontalaria**

Hain mundu desberdinen arteko lehen harremana nolakoa izan zen labur esan beharko du: batetik, konkistatzaileak eta bestetik, herri indigenak daude.

*Materiala: 2. fitxa: Nola bizi izan duzue arrotzekin izandako lehen harremana?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Bigarren eszena**

Espainolekin izandako harremana bertako biztanleentzat nolakoa izan zen adierazten duen eszena aukeratu. Zeren beldur ziren? Zer arazo aurkitu zituzten?

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarrizketak ere bai.

*Materiala: 2. fitxa: Nola bizi izan duzue arrotzekin izandako lehen harremana?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 3

**Kontalaria**

Konkistatzaileak Ameriketako lurraldetara iritsitakoan bertako jendearen bizimodua nola aldatu zen adieraziko du:

- Ekonomia erakunde berriak: enkomienda, mita eta errepartimendua.
- Ezarritako ekonomia berria: meatzeak ustiatzea.
- Antolaketa politiko berria: Erregeorderriak eta agintari berriak.

*Materiala: 3. fitxa: Espainiarrak iristeak, zer ondorio izan ditu zuen ekonomian, gizartean eta kulturean?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Hirugarren eszena**

Kontalariak esandakoaren arabera, konkistatzaileek politikan, gizartean eta ekonomian ezarritako sistema berriaren ondorio garrantzitsuenak adierazten dituen eszena aukeratu. Oso garrantzitsua da lehen eszenarekin kontrastea nabarmentzea, hau da, espainiarrak iritsi baino lehen bizitzeko zuten eraren eta gero izan zutenaren arteko aldea azpimarratu behar da.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarrizketak ere bai.

*Materiala: 3. fitxa: Espainiarrak iristeak, zer ondorio izan ditu zuen ekonomian, gizartean eta kulturean?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 4

**Kontalaria**

Amaitzeko, kontalariak independentziaren ondoren bertako indigenen egoera azalduko du. Askatasunik iritsi al zen?

*Materiala: 4. fitxa: Zuen herri indigenentzat zer izan zen independentzia?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

## Antzezlan-gidoia prestatzeko testuak:

### 1. fitxa: Aurkezpena

#### Kontalariarentzako materiala eta lehen eszena

##### Inkak

**G**u munduko inperio handieneko biztanleak gara: Tahuantinsuyo inperiokoak (zuek inken inperioa deitzen diozuenekoak). Gure inperioak barne hartzen ditu Peru (oihana izan ezik), Ekuador, Kolonbia, Txile eta Argentina. 13 milioi pertsona bizi gara gutxi gorabehera.

Tahuantinsuyo-ko hiriburua Cusco da, baina oso zabala delako lau zonatan banatuta dago, bestela antolatzea ezinezkoa izango litzatekeelako.

Herri gerraria gara, eta beste herriekin hainbeste borroka izan ondoren, inperio handi hau osatu dugu. Horregatik, bigarren mailan uzten ditugu arteak, eta tximu herrikoak konkistatu genituenean, metalgintza eta urregintzako artean duten trebetasuna asko errespetatu genuen eta Cuscora eraman genituen arlo hori lan zezaten.

Gerrariak garelako ditugu arkitekturako lan izugarriak, Sacsahuaman-go gotorlekua, esaterako, eta Machupichu-ko hiri harrigarria, ia iritsi ezineko gailurretan eraikia.

Harriz eta lokatzez egindako etxeetan bizi gara. Teilatua adarrez egiten dugu, eta oso malda handia ematen diogu, urak irrist egin dezan. Gure etxeak beste familia batzuen ere baden patioa du, eta hor artoa lehortzen dugu, patatak izozten ditugu eta llamaren okela ihartzen dugu. Familia horiek eta guk ayllu-a osatzen dugu eta ayllu-ko kide garen guztiok

elkarrekin lan egiten dugu. Beraz, inor ez da lurraren jabe, ezin dugu lurra saldu edo oinordetzan geureganatu; izan ere, jabeak ez gara gu, komunitatea baizik.

Lehenbizi geure agintariaren lurra lantzen dugu, hau da, gure jainko Eguzkiaren ordezkari den Inkarena. Horregatik, guretzat botere absolutua da. Historian zehar gobernatzaile ugari izan dugu, baina orain inperioa gobernatzen duena Huayno Capac inka da, gure konkistatzaile handietako bat. Inka Cuscon bizi da, gure hiriburuan. Hiri zoragarria da, harrizko eraikin handiz josia (beste herrientzat ezezaguna den eraikitze teknika famatuaz eginak dira). Plazak, zerbitzu publikoak, kanalak, pasealekuak, etab. ditu, baina denetan Coricancha nabarmentzen da, Inkaren jauregia.

Beste herri batzuek guk baino gehiago landu dituzte zientziak (astronomia eta matematikak, adibidez), baina gure antolamendu politikoa Ameriketako garatuena da. Inperio osoa lotzen duten bideak ditugu, eta horiei esker, armada, merkataritza eta administrazioa bizkor ibiltzen dira.

Albisteak gure postariak, chasqui izenekoek, eramaten dituzte. Korrikalari azkarrak dira, txiki-txikitatik distantzia luzetan korrika ibiltzen ohitutakoak. Horiei esker jakin dugu gizon zuriak, aurpegian ilea dutenak, iritsi direla gure lurraldera. Oraindik inork ez ditu ikusi. Zertara etorri ote dira?

*Waldemar Espinoza Soriano, 1990.*

##### Aztekak

**T**enochtitlan-go (oraingo Mexiko) inperio handiko biztanleak gara. Inperioa gure gerrarako trebezia handiagatik lortu dugu. Beste herri batzuk mendean dauzkagu eta horiengandik zerga handiak jasotzen ditugu.

Gure gizartea zenbait gizarte-taldek osatzen dute. Lehenbizi Tlatoani-a dago, hau da, gure erregea. Gure agintari gorena da, eta hizketan ari natzaizuen une honetan Moctezuma da gure jauna. Erregea, aurreko erregearen anaietatik edo ilobetatik aukeratzen da.

Jarraian nobleak daude, erregearen ondoren klase nagusia. Administrazio publikoan eta armadan horiek dituzte kargu nagusiak. Apaizei begirune handia diegu, hainbat gaitan jakitunak direlako: erlijioan, matematikatan, astronomian eta medikuntzan, adibidez. Pochteca edo merkatariek botere ekonomiko eta politiko handia dute. Gure gizarteko piramidearen azken mailetan klase ugariena eta xumeena dago, nekazariak eta artisauek osatutakoa. Azkenik, esklaboak daude, lanik gogorrenak egiten dituztenak.

Herri gerraria gara, eta borrokarako arkuak eta geziak, mazoa eta txabalina erabiltzen ditugu. Horrela lortu dugu geure inperioa.

Gure bizimoduan nekazaritza oso garrantzitsua da, batez ere artoa eskuratzea, geure elikagai nagusia delako. Nekazaritzarako chinampak erabiltzen ditugu, ihiz egindako baltsa handiak, gero lurrez bete eta hor landareak aldatzeko.

Gure artisauak zeramikan eta ehunak tindatzen aritzen dira, eta gero produktu horiek ondoko herriei merkataritza-tratuetarako erabiltzen ditugu.

Gure hiriburua, Tenochtitlan, ikusi egin beharko zenukete. Hiri zoragarria da. Milioi bat pertsona bizi gara bertan. Oso ongi antolatutako hiria da, eta gure tenpluetako gailurretatik begiratzerik bazenute, gure hiriaren antolamendu mirezgarria ikusiko zenukete. Tenpluak, plazak, etxebizitzak, kiroleterako patioak, kale eta hiribide oso zabalak, nekazaritzarako terrazak eta atzerritarrak gehien harritzen dituenak: ura bideratzeko gure sistema. Tetnochtitlan zeharkatzen duten kanalen bidez hiri osoa behar duen uraz hornitzen da.

1500. urtean gaude, eta gure zibilizazioa bere garapenik handienean dago, Moctezuma enperadorearen agindupean. 25 milioi biztanle gara, baina gudan kezka bat da nagusi. Quetzalcoatl jainkoa, jakituria eta elikatze artoa eman zizkiguna, gaizkiaren indarrek bere erreinutik egotzi egin zuten, eta egunen

batean berea dena eskuratzea itzuliko da. Profeziak iragarri zuen itzulera-urtean gaude. Horregatik, asko kezkatzen gaitu batzuek ikusi omen dutenak: itsasoa, hurbil samar, badirudi etxe bat dagoela eta hortik gizon bizartsuak ateratzen direla.

*Alfonso Santoni, 1992.*


### Historiak gure herriei buruz esan ez duena:

- Cuscok, inken inperioko hiriburuak, 300.000 biztanleraino izan ditu eta beharrezko zerbitzu-azpiegiturako urbanizazioa du. Garai berean, Sevillan, Espainiako hiri handienean, 45.000 pertsona bizi dira.
- Chasqui-ek, korrikalari inkek, mezuak Limatik Cuscoraino, 1.000 kilometroko bidea, 4 egunetan eramaten dituzte. Espainiarren postariak zaldiz bide bera egiteko 12 edo 13 egun behar dituzte.
- Inkak kirurgian trebeak dira: trepanazioak, mozketak, eszizioak, hezur-transplanteak... egiten dituzte, eta biztanle gehienek beren premiak aseta dituzte. Espainian biztanleek goseteak izaten dituzte.
- Gobernari inkek quipuen bidez biztanle guztiak erroldaturik dituzte. Espainian ez dago biztanleen errolda fidagarririk.
- Aztekek beren errituetan giza sakrifizioak egiten dituzte beren jainkoen ohoretan. Batez ere, gerran gatibu hartutakoak hiltzen dituzte. Alemanian, XVII. mendean, Inkisizioak 100.000 pertsona erretzen zituen sorginkeria salatuta.

*Zenbait egile, 1976.*



## Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako herri indigenen mapa XV. mendean



Iturria: Ricardo de la Cierva, 1993.

## 2. fitxa: Nola bizi izan duzue arrotzekin izandako lehen harremana ?

### Kontalariarentzako materiala eta bigarren eszena

**P**iperbeltz-poltsa bakarrak, Erdi Aroan, gizakiaren bizitza osoak baino gehiago balio zuen, baina urrea eta zilarra ziren, Errenazimentuak zeruko paradisuako atea irekitzeko eta Lurreko merkantilismo kapitalistaren atea irekitzeko erabiltzen zituen giltzak. Espainiarren eta portugaldarren Ameriketako epopeiak uztartu egin zituen kristauen fedea zabaltzea, eta hango aberastasunak usurpatzea eta arpilatzea. Europako boterea mundu osoa besarkatzeraino zabaldu zen. Lur birjinek, oihanez eta arriskuz beteak, kapitainen, zaldun kaparen eta zarpail jantzitako soldaduen diru-gosea pizten zuten. Gerrako harrapakin ikusgarriak konkistatu nahi zituzten. Lorian, hildakoen eguzkian, eta ausardian sinesten zuten. "Ausartei zoriak lagundu egiten die" esan ohi zuen Cortés-ek.

Hernán Cortés Veracruz-en lehorreratu zenean ehun marinel, 508 soldadu, 16 zaldi, 32 balezta, brontzeko hamar kanoi eta zenbait arkabuz, moskete eta pistolatzar besterik ez zituen. Hala ere, azteken hiriburua, Tenochtitlan, orduan Madril baino bost aldiz handiagoa zen, eta Espainiako hiri handiena zen Sevillan baino bi aldiz jende gehiago bizi zen.

Indigenak lehenbizi harridurak garaitu zituen. Moctezumak bere jauregian jaso zituen lehen albistek: itsasoan muino handi bat mugitzen ari zen. Gero beste mezulari batzuk iritsi ziren: "... erabat izutu zituen kanoiaren eztanda, haren zaratak zer burrunba duen, eta norbera nola zorabiatzen den; norberari belarriak zorabiatu egiten zaizkio. Eta tiroa erortzen denean, harrizko bola moduko batek irteten du haren sabeletik: suzko euria egiten du...". Arrotzek "oreinak" zekartzaten, "sabaia bezain altuak", eta haien gainean ibiltzen ziren. Gorputzaren alde guztiak estalita zituzten. "Aurpegia besterik ez dute agerian. Zuriak dira, karezkoak balira bezala. Ile horia dute, baina batzuek beltza. Bizar luzea dute...". Moctezuma-k Quetzalcoatl jainkoa itzuli zela pentsatu zuen. Lehentxeago zortzi zantzuk iragarri zuten bazetorrela. Ehiztariek hegazti bat ekarri zioten, buruan ispilu-formako diadema biribila zuela eta bertan zerua islatzen zen eguzkia sartaldera zela. Ispilu horretan, Moctezumak gerrari-taldeak Mexikorantz zihoazela ikusi zuen. Quetzalcoatl jainkoa ekialdetik etorri zen, eta ekialderantz joana zen. Zuria eta bizarduna zen. Eta ekialdea maien arbaso heroikoen sehaska zen.

Orain, beren herriekin kontuak garbitzera zetozen jainko mendeku zaleek armadurak eta kota metaliko-

ak zekartzaten, azkonak eta harriak itzularazi egiten zituzten oskol distiratsuak zeuzkaten; haien armek tximista hilgarriak jaurtitzen zituzten, eta arnastu ezineko kez iluntzen zuten atmosfera.

Konkistatzaileek traizio eta azpikeriazko teknika ere erabiltzen zuten. Azteken inperioak menderatutako herrien haserreaz eta inken boterea ahultzen zuten zatiketez baliatzen jakin zuten. Tlaxkaltekek Cortésen aliatuak izan ziren eta Pizarrok bere alde erabili zuen inken inperioko oinordekoen (Huascar eta Atahualpa anaia etsaien) arteko gerra. Konkistatzaileek laguntzaileak bereganatu zituzten agintarien tarteko kaste-tan, hau da, apaiz, funtzionario eta militarrek bereganatu zituzten, indigenen goi-mailako buruak hil eta desagerrarazita. Gainera, beste faktore batzuek objektiboki lan egin zuten inbaditzaileek irabaz zezaten: zaldiek eta bakterioek, adibidez.

(...) Bertsio batek dioenaren arabera, Atahualpa inkak lehen soldadu espainiarrak iristen ikusi zituenean, kaskabilo eta mototsez apaindutako zaldi kementsuen gainean, apatxekin trumoi-hotsa atera eta hautsa harrotzen zutela, atzeraka erori omen zen. Tecum kazikeak, maien oinordekoen buruak, Pedro Alvarado-ren zaldia bere lantzaz buruan jo zuen, konkistatzaileari eraso egiten ziolakoan. Alvarado jaiki eta kazikea hil egin zuen. Gerrako jantzian zetozen zaldi gutxi batzuek indigena-multzoak sakabanarazi egiten zituzten. Izua eta heriotza zabaltzen zuten.

Bakterioak eta birusak izan ziren laguntzaile eragin-korrenak. Europarrek berekin baztanga, tetanosa, biriketako eta hesteetako zenbait gaitz eta gaixotasun benereokoak, trakoma, tifusa, legenarra, sukarrak eta ahoa usteltzen zuen txantxarra eraman zituzten. Baztanga azaldu zen lehenbizi. Sukarra piztu eta gorputzeko haragia desegiten zuen gaitz ezezagun eta nazkagarri hura, ez al zen zeruko zigorra? "Tlaxcalara sartu ziren. Orduan, izurritea zabaldu zen: eztula, pikor sutuak, erre egiten dutenak" dio lekuko indigena batek, eta beste batek honako hau dio: "persona asko hil zuen pikor-gaitz kutsakor eta gogorrak". Indiarrak eltxoak bezala hiltzen ziren. Haien organismoek ez zuten babesik gaitz berri haien aurka. Eta bizirik ateratzen zirenak, ahulduta eta ezertarako ez zirela geratzen ziren. Darcy Ribeiro antropologo brasildarrak Ameriketako, Australiako eta Ozeaniako irltako biztanleriaren erdia baino gehiago, zuriek lehen harremana izan ondoren hil egin zela uste du.

*Eduardo Galeano, 1996.*

### 3. fitxa: Espainiarrak iristeak, zer ondorio izan ditu zuen ekonomian, gizartean eta kulturean?

#### Kontalariarentzako materiala eta hirugarren eszena

**G**ure gizarte eta produkzio-sistemak antolatze-ko genituen erak helburu nagusi bat (hau da, gure aberastasunak esportatzea) zuen produkzio-sistema batez ordezkatuak izan ziren. Espainiarrak heldu baino lehen, gure lurra lantzen genuen, geure ehunak edo artisauro- produktuak egiten genituen herri bakoitzerako, eta ondoko herriekin maila apaleko merkataritza genuen. Baina, espainiarrak iritsi zirenean, Espainiako Koroak zituen premien arabera produzitu behar izan genuen. Meataritzarekin hasi ginen lehenbizi, eta nekazaritzarekin gero. Gure aberastasunak gugandik oso urruneko errealtateentzat esportatzeko historia luzea da.

Gure bizitzeko eta antolatze-ko era, espainiarrek ezarritako egiturez ordezkatu zen. Hiru egitura garrantzitsuenak enkomienda, mita eta errepartimendua izan ziren.

##### *Enkomienda*

Egindako zerbitzuen sari gisa, Espainiako Koroak konkistatzaileari indiar-taldea eta lurra ematen zizkion. Indiarrek, jasotako kristau-heziketaren truk, enkomendaburuari zerga ordaindu behar zioten, Koroako basailu gisa erregeari zor zioten zerga, hain zuzen. Sistema horrekin, behartuta geunden lurra edo artisauro- produktuak lantzerako (batez ere

ehungintzan). Produktu horiek espainiarrek meataritzako zentroak hornitzeko erabiltzen zituzten. Bartolome de las Casas fraidea, lehenbizi Espainola uharteko (orain Dominikar Errepublikak) enkomendaburu izan zen, eta bera izan zen enkomendaburuak gure kontra egindako ankerkerien lekuko. Gero, gure herri indigenen eskubideak aldarrikatzen ahots ozenenetakoa izango zen. Neurri batean, haren lanagatik argitaratu ziren Indietako legeak 1542. urtean, enkomendetako indiarren eskubideak babestearren.

##### *Mita*

Komunitate indigena bakoitzak, nahitaez, indigena-kopuru bat eman behar genuen txandaka meataritzako, nekazaritzako eta etxeko zerbitzuetako lanetan aritzeko. Lanaldia 15 egunetik 10 hilabete bitartekoa izaten zen, eta espainiarrak kontsideratzen zuenaren arabera ordaintzen zen.

##### *Errepartimendua*

Sistema honen bidez, denboraldika, etxaldeetan lan egitera behartzen gintuzten, eta gero, geure herrixketa itzultzen ginen geure burua elikatu ahal izateko eta Espainiako Koroaren usteko basailu gisa zergak ordaindu ahal izateko.

**E**ra guztietako hain jende hedatu eta ugari hau Jainkoak xaloa, txarkeriarik gabea eta azpikeriarik gabea egin zuen, oso esanekoa, leial beren jaun naturalekiko eta zerbitzatzen dituzten kristauekiko; oso apalak, pazientziadunak, baketsuak eta lasaiak, liskarrik eta zalapartarik gabeak, haragikeria eta lizunkeriarik gabeak, bekaizkeria eta gorrotorik gabeak, batere mendeku zale ez direnak. Era berean, pertsona delikatuenak dira, argalak eta gorpuzkera ahulekoak, lana jasaten ez dutenak eta edozein gaitzekin errazen hiltzen direnak. Gure artean, printze eta jaunen seme-alabak ere, opari eta bizimodu errazean hazitakoak, ez dira haiek bezain delikatuak, nahiz eta haiek nekazarien seme-alaba izan. [...]

Ardi bare hauengana, Sortu eta Hazi dituenak aipatutako ezaugarriez hornitu dituenengana, espainiarrak sartu ziren, ezagutu zituztenez gero egun askotan

goserik egondako otso, tigre eta lehoi guztiz anker gisa sartu ere. Eta azken berrogei urte hauetan, orain arte ez dute beste gauzarik egin, eta oraindik ere halaxe egiten dute, haiek txikitu, hil, estutu, larritu, oinazetu eta suntsitu besterik, orain arte inoiz ikusi, irakurri, entzun diren ankerkeria-era bitxi, berri eta ugarirekin. Horietako gutxi batzuk gero aipatuko ditugu. Ondorioz, Espainola uhartean, lehen hainbat ikusi genituen arimetatik berrehun pertsona besterik ez daude gaur egun. [...]

Eta inoiz indiarrek, oso nekez eta gutxitan, arrazoiz eta justizia santuaz norbait (konkistatzailea) hiltzen bazuten, konkistatzaileek legea egin zuten hildako kristau bakoitzetik ehun indiar hiltzeko.

Fray Bartolomé de las Casas, 1552.



**E**zarritako sistema berriak atzerako bueltarik gabeko ondorioak izan zituen gure bizitza antolatzekeo eran.

Lehenik eta behin, nekez jasan zitekeen lan-egoera ankerra ezarri ziguten:

*"Lanik neketsuena langile espezializatuenei zegokien, barrariei, zainetatik metala pikotx, falka eta barrekin ateratzen zutenei. Lan horretarako indar fisiko handia behar zen eta beti leku txikietan, askotan tenperatura handietan eta beti, gaizki argiztatuetan eta are okerrago aireztatuetan, egin ere. Baina okerragoa zen zamabereen lana egiten zuten trebetasunik gabeko gizonena, hau da, minerala kanpora ateratzen zutenena. Barrariei gehiago ordaintzen zitzaien. Garraiatzaileek, mineralarentzat zenbait ontzi (otarrak, larruzko poltsak, zakuak edo Ilamaren ileaz egindako mantak) eramanda, tunel bihurrietan gora joaten ziren, gizona pasatzeko ia zabalerririk ez zegoen lekuetatik. Haitzean zulatuta egindako mailetan edo enborrez edo bi tantai paralelo larruzko zerrendaz lotuta egindako eskailera piketan gora igozten ziren. Meatzea handiagoa zen heinean, barnean zulo handiak egiten ziren eta han erorita hil egin zitekeen. Kargak astunak ziren. Sinestekoa ez bada ere, zantzu batzuen arabera, Nueva España-ko garraiolariak beren bizkarrean 140 kiloraino garraiatzen zituzten. Ilunpean lan egiten zuten, askotan kopetan edo behatz batean lotutako kandelaren argia besterik ez zutela, eta arrisku askoren mende zeuden. Asko hilda erortzen ziren edo elbarri geratzen ziren, baina ez dakigu zehatz-mehatz zenbat."*

Bigarrenik, gizartearen aldaketa sakonak eragin zituen, nekez konpontzekoak. Gizarte-aldaketa erradikalena, meatzaritzak ezarrita, landetatik hirietara aldatzea

izan zen, jendea nekazaritzako komunitate tradizionalak utzi eta espainiarren mendeko hirietara joan zen. Aldaketa hori indiar askori ezarri zitzaion, errekrutatzen eraginez, baina lana amaitutakoan, batzuek bertan geratzea erabakitzen zuten. Ondorioz, XVI. mendearen amaieraz gero, gune nagusietan meatzari profesionalen talde handiak osatu ziren. Soldataren truke lan egiten zuten eta espainiarren ohiturak bereganatzeko joera izan zuten. Espainiarren erako arropak erosten zituzten eta agian, pulkea baino nahiago zuten ardoa. Jarrera horrekin, apurka-apurka, beren indiar nortasuna galdu egin zuten eta mestizoen kultur kategorian txertatu ziren, ezaugarri genetikoaren arabera kategoria horretakoak ez izan arren.

Seguru asko, indiarren komunitateen aurka egindako hausturirik handiena, Potosiko mitagunean izan zen, hantxe eman baitziren errekrutatze handienak. Herrixketako nekazaritza bertan behera geratzen zen jendea joaten zenean. Komunitateko elikagai-erreserbak eraman egiten zituzten bidaiariak jan ahal izateko; izan ere, bidaiariak bi hilabetera artekoa izan zitekeen urrutiko lurraldeetatik joaten baziren. Asko ez ziren gero inoiz itzultzen. Seguru asko, inoiz ere ez da zehatz-mehatz jakingo meatzean edo findegian, beren lanaren zuzeneko ondorio gisa, zenbat hil ziren.

Mita amaitu ondoren, Potosin geratzen zirenekin batera, askoz ere gehiago ziren mitako zonan leku isolatuetara joaten zirenak, edo errekrutamenduak saihesteko handik kanpora joaten zirenak, eta horrek are eta gehiago kaltetzen zituen beren jatorriko komunitateak.

*Cambridge University Press,  
"Historia de América Latina"tik moldatua.*

**K**onkistaren garaitik 1660. urtera arte, Espainiara 16.886.815 kilo zilar eta 185.333 kilo urre bidali zituen Amerikak. Berez, metal preziatuak eta harri bitxiak izan ziren esportazioen zatirik handiena: % 95, XVI. mendean. Metal preziatuen produkzio osoaren % 25 besterik ez zen Ameriketara geratu.

Baina meatzeak aurkitzearen ondorio larrienak ez ziren mitatarren heriotza-karabana luzeak edo kontinentera abiatu ziren urrez betetako galeoiak izan.

Meatzeen ustiaketak eta Europarako esportazioak Ameriketako ekonomian itzulerarik gabeko aldaketa eragin zuen. Merkantilismoaren eta Espainia urrun egoitearen emaitza gisa, sozietate kolonialek ia autoktonoa zen garapen-prozesuari ekin zioten. Meatzeak esportazioaren mendeko ekonomian bihurtu zituzten. Grabazio-zentroa ozeanoaz haraindi zegoen.

*Pedro M. Arrambide, 1988.*

**G**ure herriak oso ugariak eta era askotakoak ziren: zenbait zientzian jakitunak ziren batzuk (maiak, adibidez), inperio handiak ere baziren (aztekena eta inkena, esaterako), herri batzuk oihanean bizi ziren (guaraniak edo jibaroak, adibidez), herri batzuk erdi sedentarioak ziren, edo nomada ehiztari eta biltzaile (karibeak, araukaniarrak, maputxeak, onak, alkalufek, chiquiyamiak, etab.). Kolon sinetsita zegoen gure lurretara heldu zenean Asian zegoela, eta guztioi "indiar" deitu gintuen. Atzerritarrek bizi ginen lurra eta honek ematen zuena ez ezik, gure erlijioak eta ohiturak ere kendu egin zizkiguten: gure izenak ere kendu zizkiguten.

Gure lurraldeak guk ezagutzen ez genituen irizpideen arabera banatu zituzten. 1650. urtean, gure lurraldeak bi Erregeorderritan zatitu ziren (gero aldatu egin zituzten): azteken Tenochtitlan hiriburua Nueva España Erregeorderriko hiriburu bihurtu zen, eta han, azteken inperioa eta Karibeko oso bestelako herriak (Siboney, Taino edo Ciguayoak) biltzen ziren, eta inken inperioa Peruko Erregeorderrikoa izatera pasa zen, baina


espainiarrek horko hiriburua Liman finkatu zuten, merkataritzarako leku estrategikoa zelako.

Banaketa politiko berri horrek bere gobernu-organoak ere ezarri zituen. Gure herrietako errege, apaiz, gerrari, nekazari eta esklaboek lekurik ez zuten antolamendu berrian. Gure agintariak ez ziren erregeak eta enperadoreak. Denok Espainiako Koroaren basailu bihurtu ginen eta Ameriketara zituen ordezkariari obeditu behar genien: erregeorde, kapitain jeneral eta presidenteak ziren harrezkero agintari militar eta juridiko gorenak. Era berean, Erregeorderriak, Kapitaintza Jeneralak eta Presidentziak Gobernazio eta Korrejimendutan banatzen ziren. Gobernazioak espainiarren udal- edo herri-talde bateko arazoak konpontzeaz arduratzen ziren. Gobernadore, alkate, errejidore eta eskribauak ziren agintari nagusiak eta jatorriz, espainiarrak baino ezin zuten izan. Korrejimenduak indigenen kabildoez edo "indiarren herriez" arduratzen ziren. Indigenen kabildoak Espainiako udalen antzekoak ziren, baina bertako karguak indigenek zituzten.

*Intermón Talde Pedagogikoa, 1993.*





**Espainiar Amerikaren administrazio banaketa: Erregeorderriak**

**K**aribeko uharteetan, biztanleria guztiz desagertu zen. Biztanle-kontzentrazio handiena zeukaten zonetan, indigenen bizimodu tamalgarria, bertako noble edo kazikearen aginpidea eta enkomien-daburu edo meatzeko kapatazaren aginpidea jasateaz gain, ez zen derrigorrean eta doan lan egin beharra bakarrik. Haien tenpluak profanatu egin zituzten, beren jainkoengan sinestea debekatu egin zitzairen, baita egiten zizkieten musika eta dantzak ere, beren historia ukatu egin zitzairen, iturriak oso kontuz suntsituta (Diego de Landa apezpikuak maien kondairak, mitologia eta zibilizazio hartako poesia zuten 27 kodize erre zituen, "deabruaren lanak" zirelakoan). Ustiaketaren eta zanpaketaren emaitza "indiarren bizitzeko gogorik eza" deitutakoa izan zen: hilaurreak

eta umeak hiltzea, bere buruaz beste egitea eta alkoholizatzea. Ameriketako bertako biztanleek espainiarren zanpaketari kontra egiteko erresistentzia bidea zen. Horrez gain, gaixotasun berriek eta lanerako erritmo latzak eragindako heriotzengatik, biztanleriaren maila erabat jaitsi zen. Nueva España, 1519. urtean, 25 milioi indiar inguru ziren, eta 1605. urtean, milioi bat. Tratulari portugaldarrei esklabo beltzak erosten hasi ziren, eskulana falta baitzen. Horrela, XVI. mendean, Europako bi osagaiak azaldu ziren (zuri europarrak eta beltz afrikarrak), eta Ameriketako bertako biztanleekin aro garaikideko ezaugarri diren gizarte mestizoak eratuko zituzten.

*Intermón Talde Pedagogikoa, 1993.*



**S**intesi gisa ikus ditzagun gizarte kolonialaren zenbait ezaugarri:

- Gero erreformak egin ziren arren, politika merkantilistak koloniak metropoliaren mende egoteko egoera sortu zuen. Mendekotasun hori ekonomia-koa ez ezik, politika eta kulturakoa ere izan zen.
- Besteren interesak zerbitzatu behar horrek, egitura ekonomiko berria eratu zuen: nekazaritzan esportaziorako monolaborantza (azukrea, kafea, tabakoa) eta mineral preziatuak indarrez ebastea.
- Sistema merkantilistak eta geroko liberalismo ekonomikoak desberdintasun izugarriak sortu zituzten zurien, indigenen, mestizoen eta mulatoen artean Independentzia politikoak ez zuen pobreen ekonomia-askatasunik ekarri. "Despotismoaren azken eguna eta gauza beraren hasiera" izan zen.
- Politika ekonomikoak eta garapen-motak eskulana gero eta gehiago eskatu zuten. Lortzeko zenbait erakunde eta mekanismo ezarri ziren: enkomienda, errepartimendua, peoiak, esklabo beltzak erostea...
- Gizarte koloniala kontrolatu nahiak burokrazia hipertrofiatua sorrarazi zuen.
- Sistema ekonomikoak indigena eskulan merke gisa besterik ez zuen hartu. Eragin psikologikoak eta ustiaketa ekonomikoak gizarte indigenak zokoratu egin zituzten, eta askotan suntsitu ere bai.
- Enkomienda deitutako egiturak izan ziren lurra esku gutxitan biltzeko abiapuntua. Hori eta beste fenomeno batzuk izan ziren Ameriketako latifundioen hazia.

*Pedro M. Arrambide, 1988.*

## 4. fitxa: Zuen herri indigenentzat zer izan zen independentzia?

### Kontalariarentzako materiala

**1** 825ean, Espainiak bere mende Kuba eta Puerto Ricoko uharteak besterik ez zituen. Ameriketako gainerako lurraldeak errepublika independente bihurtu ziren.

Amerikak independentzia lortu izanak politikan bat-bateko aldaketa eragin zuen, baina gizartean eta ekonomian eraldaketarik ez zen izan. Ez zen proiektu baten emaitza izan, hau da, ez zen gertatu gizartea eta ekonomia heldutasunera iritsi eta koloniak bere egin-kizunak bere gain hartu eta metropoliarekiko loturak hautsi behar zituelako. Gauzak azkarregi egin ziren nazioarteko egoeragatik eta nagusi ziren klaseen arteko borrokengatik, hots, Ameriketako espainiarren eta penintsulakoen arteko borrokengatik. Gure herri indigenentzat protagonistak aldatu ziren, baina historia ez: Espainiako Koroarekiko independentziarekin, gure bizimodua ez zen hobetu. Zertan geratu ziren gure asmoak?

#### *Desberdintasunak ezabatzea*

Espainiako Koroari ordaindu behar genion zerga kendu zutenean itxaropentsu geunden. Hala ere, Peru edo Bolivian neurri horrek baliabide-ekasiaz eragin zuen (etekin horiek jasotzen ez zirelako) eta beste izen batekin laster ezarri zuten berriz ere zerga: handik aurrera zergari kontribuzioa deituko zitzaion.

#### *Esklabotza desagertzea*

Esklabotza desagertzeko zorian zegoen, Britainia Handiak 1807. urtean esklabo-salerosketa debekatu baitzuen. Baina esklabotza kentzeak uste ez ziren ondorioak eragin zituen. Perun eta beste herrialde batzuetan, lehengo nagusiek Estatutik kalte-ordainak jaso zituzten eta azukre-sailetan esklaboen ordeztu Txinatik ekarritako langileak erabiltzen hasi ziren. Txinatar haiek nagusiarekin zorra zuten, Ekialdetik etortzeko bidaia ordaindu zirelako, eta zor hura ordaintzera inoiz ere ez ziren iristen. Yucatango indigenak Kubara eraman zituzten helburu berarekin. Isilpeko esklabotza-erak izan ziren. Beren askatasunera iritsitako gizon eta emakumeak heziketarik gabe zeuden eta, kualifikazioari eta produktibitateari zegokienez, beste langile batzuen parera ezin ziren iritsi. Beraz, askotan zokoratuta geratu ziren.

#### *Lurrak berreskuratzea*

Norbanakoaren askatasuna goraiatzearen ondorioz, komunitateak ondasunen titular izatea debekatu egin zuten. Neurri hark Elizari eta gure komunitate indigenei eragin zien; desjabetze-prozesuari desamortizazio deitu zioten. Gure komunitateei dagokienez, teoriarik, komunitateetako kideok erosteko aukeran lehenak ginen, Gobernuak finkatutako prezioa ordainduta. Indigenok, beraz, aukeratu egin genezakeen beti erabili eta landu genituen lurrak erostea ala handik alde egitea. Baina ezin genituen erosi, dirurik ez genuelako eta tramiteak nola egiten ziren ez genezakeelako. Lurrak, askotan, enkante publikoan saldu ziren. Gure lurrak, gehienetan, bertako lurjabeek eta burgesiakoek erosi zituzten. Emaitza latifundio handiek jarraitzea eta, are gehiago, handiagotzea izan zen. Mexiko, El Salvador, Kolonbia, Venezuela eta Txilen herri-lurren desjabetzea erabatekoa izan zen. 1910. urtean, adibidez, Mexikoko lurraren % 90 herrietako lurjabe ziren % 3ren esku zegoen.

Harrapatu zizkiguten lurretan geratu ginen, jabe berriarentzat lan eginez, eta askotan, zorpetzearen bidez, bizitza osorako haren mende egoten ginen. Lurjabeak elikagaiak, arropak eta tresnak ematen zizkigun eta lanaren kontura kredituak ematen zizkigun. Beraz, nekazariok ezin genuen etxaldea utzi jabeari zorra ordaindu gabe. Baina zorra beti zen jasotzen genuen soldata baino handiagoa. Horrela sendotu zen latifundioko egitura. Lurrak eta aberastasuna oso esku gutxitan bildu ziren eta biztanle gehienak pobre mantendu ziren.

#### *Gure herrien duintasuna onartzea*

Agintarietako konfiantza gutxi zuten beren herrien gaitasuneari, eta indigena zein mestizoak maila beheragoko arrazakotzat hartzen gintuzten; alferrak eta ezdeusak ginen. Kreolen eliteek gure egoera arrazaz maila apalagokoak izateari egozten zioten, eta ez hainbeste urtetan jasaten ari ginen bidegabekeria-egoerari.

*Mercedes Quintana, 1999.*


**G**ure herriek, XX. mendean sufrituko duten arazo handienetako bat Independentziako unean jaio zen: kanpo-zorra. Baina, nola sortu zen egoera hau?

1850. urteaz gero, Hispanoamerikako Gobernuek Ingalaterrako bankuetatik maileguak hartu zituzten. Hasieran kredituak erraz itzultzen ziren. Gero, izandako krisiek, ekonomia kapitalistaren jarduera ziklikoa erakutsi dute, baina orduan hazkundea iraunkorra eta mugagabea zela uste zuten. Beraz, Ingalaterrako mailegu-emaileetan beren inbertsioak gehi interesak hurrengo urteetan berreskuratzeko konfiantza zuten. Hispanoamerikako herrialdeentzat XX. mendean jasan beharko zuten zama astunenetako baten hasiera izan zen: kanpo-zorrena. Izan ere, krisi ekonomikoa denean, Latinoamerikako esportazioen prezioak (kafearena, azukrearena, kobrearena, kakaoarena...) jaitsi egiten dira eta Gobernuek ez dute maileguen interesak ordaintzeko dirurik izaten. Horrelakoetan, "irtenbidea" beste mailegu bat eskatzea izaten da,

aurrekoaren interesak ordaintzeko, eta horrela behin eta berriz. Beraz, azken maileguak ez dira garapenerako izaten, lehenagoko zorra ordaintzeko baizik.

Koloniaren garaian beren eginkizuna metal prezia-  
tuak eskuratzea baldin bazen, orain beste ondasun batzuk dira interesgarriak. Venezuela kakaoarekin; Rio de la Plata larruarekin, okelarekin eta artilearekin; Txile kobrearekin eta larruekin; eta Costa Rica kafearekin, truke-mota berrira arrakastaz moldatu ziren. Meataritza-ekonomiarekin koloniako ordenaren gune izan ziren Peru eta Mexikok, aldiz, beren produkzioan behera egin zuten, neurri batean gerran materiala hondatu egin zelako eta berreskuratzeko inbertsiorik ez zutelako.

Gure herrialdeak, horrela, munduko ekonomian elikagaien (kafea, kakaoa, azukrea) eta Europako industriarentzako lehengaien (kobrea, guanoa, kautxua) ekoizle gisa eta Europako industrien manufakturen kontsumitzaile gisa txertatu dira.



## Ipar Amerikako antzinako kolonia britainiarren kolonializazioa

### 3. taldea: Kolono britainiar ohiak Ipar Amerikan



*Antzezlan-gidoia prestatzeko jarraibideak:*

#### 1

##### Kontalaria

Eszenak hobeto ulertzeko, datuak eta arrazoiak emanez, antzezlanari koherentzia emango diona izango da. Kontalariaren helburua, ondoz ondo azaltzen diren eszenak ulertzen, kokatzen eta zentzua ematen laguntzea izango da. Kontuan izan, kontalaria ere istorioaren zati dela eta behar bezala girotuta egon behar duela (jantziak, etab.). Eta ez ahaztu antzezten ari garela. Kontua ez da datuen laburpena irakurtzea, istorio bat interpretatzea baizik!

Kontalariak, lehen agerraldi honetan, ikusiko dugun istorioa aurkeztuko du, espazioan eta denboran kokatuta: nor zireten, Amerika kontinentera nola iritsi zireten, zeren bila zabilzaten, etab. Kontuan izan, ikusleek ez dakitela zuei buruzko ezer.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

##### Lehen eszena

Ipar Amerikako mendebaldera joan ziren kolono britainiarrak nor ziren eta nola bizi ziren erakusten duen eszena aukeratu. Jendaurrean aurkezteko era izango da.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 2

### Kontalaria

Kolonoak Ipar Amerikako Mendebaldea konkistatzera bultzatu zituen arrazoiak labur azaldu beharko ditu. Han bizi ziren indiarrekin izandako harremanen berri ere emango du.

*Materiala: 2. fitxa: Zergatik abiatu zarete beste lurralde batzuetara? Nor topatu dituzue?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

### Bigarren eszena

Mendebalderantz abiatzen diren kolonoen asmoak eta han bizi ziren indiarrez zuten iritzia azaltzeko eszena aukeratu.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarrizketak ere bai.

*Materiala: 2. fitxa: Zergatik abiatu zarete beste lurralde batzuetara? Nor topatu dituzue?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 3

### Kontalaria

Kolonoak lurralde berrietan finkatzeko eraren alderdi esanguratsuenak aurkeztuko ditu.

*Materiala: 3. fitxa: Nola finkatu zarete lurralde berrian?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

### Hirugarren eszena

Kolonoek lurralde berriak konkistatzen erakusten duen eszena aukeratu.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarrizketak ere bai.

*Materiala: 3. fitxa: Nola finkatu zarete lurralde berrian?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 4

### Kontalaria

Amaitzeko, kontalariak Ipar Amerikako kolonien independentziak izandako ondorioak eta Ameriketako Estatu Batuen oinarri diren printzipioak azalduko ditu.

*Materiala: 4. fitxa: Zer prozesu izan du independentziak?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*



**Antzezlan-gidoia prestatzeko testuak:****1. fitxa: Aurkezpena****Kontalariarentzako materiala eta lehen eszena**

par Amerikako kostaldera 1607. urtean iritsitako lehen kolonoak gara. Orduan sortu genuen Virginia hiria.

Britainia Handiak Atlantikoaren Iparraldeko mendebaldeko kostan ezarritako 13 koloniak sortu genituen. Beraz, Ingalaterra Berriko 13 probintzietan bizi gara. Honaino Ingalaterratik etorri gara batez ere, eta baita Eskozia, Irlanda, Alemania, Herbehereak, Frantzia eta Suediatik.

Oso jende desberdinez osatutako taldea bagara ere, ezaugarri berdin batzuk baditugu.

Lehenik eta behin, kultur aniztasun handia dugu, kolonoak nazionalitate eta erlijio-mota askotakoak garelako. Ez da ahaztu behar Ipar Amerikara asko erlijioagatik etorri garelako. Ingalaterrako puritanoak, adibidez, 1620. urtean Jhon Robinsonen gidaritzapean Mayflower ontzian etorri ziren Virginiara. Han, lehen kolonoak finkatu berriak zituen Londresko Konpainiak.

Bigarrenik, kontuan hartu behar da gure biztanleria hazkunde handia. 1713. urtean, 360.000 kolono inguru ginen eta 1760. urtean berriz, milioia baino gehiago gara. Hilkortasun-tasa txikia eta jaiotza-tasa handia dugu (Europar baino hobea dira biak osasun-egoera hobea delako). Gure artean landetako biztanleria da nagusi. 1790. urtean % 5 besterik ez da bizi 2.500 biztanle baino gehiagoko lekuetan.

Hirugarrenik, gure jardura ekonomikoa nagusia nekazaritza da. Erdialdean eta hegoaldean kotoi, tabako, arroz eta abarren soroak ugari dira. Aristokraziako jendea da jabea, eta gizartean gero eta bereiziago daude, nekazari askeak esklaboez ordezkatuak izan baitira (Sezesio-gerra hasi zenean gutxi gorabehera 3 milioi eta erdi esklabo zeuden).

Iparraldean esklaborik gabeko nekazaritza nagusi bada ere, bada merkataritzan, enpresetan eta industrian diharduen klasea, gainerako kolonietakoek baino indar handiagoa duena.

Azkenik, badugu komunean ezaugarri bat ere: denok gara Britainiar Koroako hiritarrak, kontseilu batek aholkatutako gobernadorea eta Biltzarra ditugu.

Beraz, metropoliaren mendeko 13 kolonia gara, ezaugarri komunak ditugunak, baina forma edo sentimendu aldetik loturarik gabeak.

Kolonien arteko lotura teorikoa, Ingalaterrako Koroak ekonomia aldetik, mehatxatuta sentitu ginelako gauzatu zen; izan ere, lege askoren bidez, gure merkataritza-jarduerak gehiegi kontrolatzen zituen eta kalteztzen gintuzten zergak ezartzen zizkiguten. Beraz, 1774an 13 kolonietako ordezkariak Filadelfian (Filadelfiako Kongresuan) bildu ginen eta behin-behineko Gobernua eratu genuen. Gertaerak segidan etorri ziren eta hurrengo urtean Independentzia Gerra hasi zen. Garaipena izan genuen 1783an, neurri batean Espainiaren eta Frantziaren laguntzari esker.

Gure 13 koloniei, 1783an independentzia lortu ondoren, berehala atxiki zaizkie beste estatu batzuk, eta oso azkar hazten ari gara, batez ere hiru faktoreri esker:


- Hegoaldeko Estatuetakoa esklabotza funtsezkoa izan da ekonomian aurrera egiteko; nekazaritzako produkzioa asko hazi dugu oso kostu txikiarekin. Hala ere, esklaboak erabiltzea gatazka-iturri da iparraldeko eta hegoaldeko Estatuaren artean.
- Iparraldeko Estatuaren industria-garapenak, denbora gutxian, AEBak munduko herrialde indartsuenetako bihurtu du.
- “Muga berriaren” bila mendebaldera joatea. Gero AEBen inperialismoaren oinarri izango zen martxa hori eta mugak hegoalderantz eta mendebalderantz zabaltzea, zuzeneko erosketen bidez gauzatu zen; adibidez, Florida Espainiari eta Louisiana Frantziari erosita; edo lurralde horien jabea gerra eginda (Mexikori, esaterako, hego-mendebaldean). Baina mugimendu hori benetan markatzen ari dena biztanle indigenak mendebaldera eta iparraldera lekuz aldatzea da.

Mendebalderantz jo dugu, aitzindari eta esploratzaile garelako, leku ezezagunetara joan eta Ipar Amerikako mendebaldearen zati handi bat lurren, abereen, urrearen eta abarren bila esploratzen dugunak garelako. Arriskuak eta indiar basatien etsaitasuna ditugun arren, gure jakin-min aseezina ezin dugu geldiarazi. Gu, mendebaldearen lehen kolonizatzaileak, beti mugaren ertzean bizi gara. Urtero lekuz aldatzen gara, armadaren laguntzaz biztanleria indigena egotzi eta murriztu ahala.

Nola amaituko dugu hau guztia? Indiarren basatikeriari amaiera emango al diogu? Urte latzak ditugu aurrean...

*J.A. Gallego, 1978.*

## AEBko hasierako 13 Kolonien lurraldea



1. New Hampshire
2. Massachussets
3. Rhode Island
4. Conneticut
5. New Jersey
6. Delaware
7. Maryland
8. Virginia
9. Iparraldeko Carolina
10. Hegoaldeko Carolina
11. Georgia
12. Pensylvania
13. New York





## 2. fitxa: Zergatik abiatu zarete beste lurralde batzuetara? Nor topatu dituzue?

## Kontalariarentzako materiala eta bigarren eszena

## Ipar Amerikako kolonizazioarekin zerikusia duten gertaera nagusien kronologia

1565	Ipar Amerikako etorkinen lehen kokalekua sortzea: Floridako San Agustin hiri espainiarra (Floridan).
1607	Kolono britainiarrek Jamestown hiria sortu zuten (Virginia). Han, Smith kapitaina bertako indiar tribuetako buruzagiarekin, Powhatan Buruzagi Handiarekin, elkarrizketatu zen.
1620	Cod lurmuturraren ondoan, Ingalaterra Berrian, "erromesak" lehorreratu ziren, eta lehorreratze lekutik gertu Plymouth hiria eta, laster, lehen kolonia (Massachusetts) eraiki zituzten.
1776	Ipar Amerikako Estatu Batuen independentzia.
1784	Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuak "Indiaren tribuekiko tratua eta merkataritza arautzeko eta indiarren mugetan bakea mantentzeko Legea" argitaratu zuen. Lege horren arabera, indiarren lurraldearen muga "eztaba daezina" Mississippi ibaiaren ibilgua zen.
1851	Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuaren ordezkariekin hitzarmena sinatu zen, haien tribuetako lurraldeetan errepideak eta trenbideak eraikitzeko. Horren bidez, baimena ematen da tribuen lurraldeetan errepideak eta trenbideak eraikitzeko.
1861-1865	Iparreko eta Hegoko estatuen arteko gerra zibila.
1876	Zalditeriako 7. Erregimentua Little Big Horn-en suntsitu zuten. Totanka Yotake edo Zezen Eseriak Custer jenerala hil zuen.
1924	Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuak Ipar Amerikako betiko biztanleei, indiarrei, Ameriketako Estatu Batuetako hiritartasuna onartu zieten.

*Miloslav Stigl, 1980.*

**H**amahiru kolonietako biztanlez betetako zatiek 650.000 kilometro koadroko azalera hartzen zuten, hau da, Britainia Handia irla baino ia hiru aldiz handiagoa. 1763an, europar jatorriko milioi bat eta laurden kolono zeuden kolonia horietan, eta horiez gain, milioi laurden bat esklabo baino gehiago bizi zen, hau da, ordaindu gabeko eskulana. Britainia Handiko biztanleria, orduan, 7 milioi ingu-

rukoa zen; beraz, kolonietako biztanleriaren zati handi bat britainiarra zen. Kolono haiek, beraz, jatorriz britainiarrak ez ezik eskoziarrak, irlandarrak, herbeheretarrak, alemanak edo eskandinaviarrak ere baziren. Biztanle haiek beren burua amerikartzat zuten.

Isaac Asimov, 1983.

**A**itzindarien Mendebalderanzko abentura handia Boston-go auzo pobreren batean, Kentucky-ko etxalderen batean edo Ohio-ko lantegiren batean sortu zen. Familiak bere ondasun-apurrak bildu eta, gurdiren bat baldin bazuen, Appalacheak mendiak zeharkatzera abiatzen zen. Gurdirik ez zuenak, berriz, sal zitekeen oro saldu egiten zuen bere orga eskuratzearren. Helburua, Missouri ibaia-eren ertzerantz iristea zen, handik konboiak eta karabanak abiatzen zirelako. Lekua aurkitu behar zen, espedizioko beste kideekin ados jarri behar zen eta, bilduta zeudenean, aurreztutako dirua (askorentzat azken txanponak ziren) gastatu egin behar zen. Hornitzaileek prezioekin espekulatu egiten zuten, aitzindariak tentatu egiten zituzten eta beren ahalmenen arabera kobratuta sosik gabe uzten zituzten. Batzuetan, karabanen leku bat izatearren, azken ondasunak, gauza preziatuenak, saldu egin behar izaten zituzten. Azkenean, gurdira beharrezko gauzak kargatzen ziren: sukaldea, janariak, mantentzako eta arroparentzako kutxa, sukaldeko tresneria eta, jakina, arma

bat: Sharp karabina (geroago ahaltsuenek Spencer errepikapen-arma erabiliko zuten).


Azken egunetako berotasunean, ibilbideak aztertzen ziren, arduradunak izendatzen ziren eta karabanako buruzagia kontratatzen zen (gehienetan lehengo tranpa-jartzaileak eta aitzindariak izaten ziren). Hautagaiak espedizioko kideei bere buruaren berri eman behar zien, bere eskarmentuaz hitz egin behar zien... Hautagaiak gizonak konbentzitu behar zituzten, buruzagia hauek aukeratzeko zutelako. Aukera egin ondoren, karabanako guztiak onartu behar zuten haren aginpidea. Laguntzaileak errekrutatuta gidari-taldea osatzen zen. Haien esku zegoen itxaropen-bidaiarako zeukatzen guztia hipotekatu zuten pertsona haien etorkizuna. Une ospetsua izaten zen karabanako buruak gurdiak, kargamentua, espedizioko kideen egoera, etab. aztertuta orgak ilaran ipini eta keinu eginez "Aurrera karabana!" oihukatzen zuen unea.

*Rafael Abellá, 1990.*

**M**endebaldean espedizionari egon nintzen urteetan ikusi ahal izan nuen hau. Gerrako banketeaz ari naiz. Pentsa ezazue basatien biltzar handi bat dagoela, europarren begientzat fisio-nomia desitxuratzeko gauza diren apaingarri guztiak dituztela. Kolore gorria, zuria, berdea, horia, kedarez edo eltzeen hondoa arraskatuz egindako kolore beltza; basati bakar baten aurpegiak kolore horiek guztiak biltzen ditu, pomada gisa erabiltzen duten gantz-apur batekin metodikoki ezartzen dituztelako.

Pentsa ezazue horrela apaindutako eta ilaran lerrokatutako jende-piloa dagoela. Erdian, eltze handiak dituzte haragi egosiarekin. Haragia zatituta dute, ikusleei banatzeko. Bileraren handitasuna iragartzen duen begirunezko isilaldi baten ondoren, zenbait naziok izendatuta festara etorri diren kapitain batzuk behin eta berriz kantuan hasten dira. Erraz asmatuko duzue musika basati hori europarraren fintasun eta gustuaren ondoan nolakoa den. Edozein eratarik sortutako soinua dira eta batzuetan otsoen oihu eta uluen antz handia dute.

*W. Davis eta J. Rose, 1995.*



“Indiar on bakarra hildako indiarra da.”

*Ustez Sheridan jeneralak esana.*

**V**iktoria erreginak Bufalo Bill bikaina, ederra eta zaldun-itxurakoa zela esan zuen. Behizainak “atseginak” ziren, eta indiarrek, beren pintura eta lumekin, “kezkarriak”; gainera “anker-itxurako” aurpegia zuten.

Custer jeneralak lautadetako indiarrez “era guztietan basatiak” zirela zioen, baina, nobelatu egiten

zituen “haien ohitura bitxiak eta kultura bikaina” eta, harritu egiten zuen ehizarako eta zaldiz ibiltzeko zuten trebeziak.

*W. Davis eta J. Rose, 1995.*

**M**assachussetts-eko Parlamentuak, 1755eko azaroaren 3ko deklarazio batean, Penobscot indiarrek “matxinatu, etsai eta traidoretzat” hartu zituen eta saria eskaintzen zuen: “berrogei libra... indiar gizonen adats bakoitzeko.

Hogei libra... indiar emakumeen adats bakoitzeko edo hamabi urte baino gutxiagoko hildako indiar gazte bakoitzeko”.

*Howard Zinn, 1999.*

### 3. fitxa: Nola finkatu zarete lurralde berrian?

#### Kontalariarentzako materiala eta hirugarren eszena

“**G**ure herriak haien belardien gainean eraikita daude; gure telegrafo-lineak, gure trenbideak eta posta-bulegoak, haien lurralde guztietan sakabanatuta daude, haien basoak ustiatzen ditugu, haien lurrak lantzen ditugu eta natura basatia etxekotuta daukagu. Indiarrek ezin

dute, ez ehizatu eta ez arrantzan egin. Beren bizimodu aldatu egin behar dute.”

Philippe Jacquin, 1990.  
Hunt jauna, Ohiotik senatari zena aipatuz,  
XIX. mendearen amaiera.

**I**ngelesek Ipar Amerika inbaditzearen atzean, sarraskitu zituzten indiarren atzean, beren engainu eta bortizkeriaren atzean, jabego pribatuan oinarritzen den eta zibilizaziotan sortzen den bultzada boteretsu eta berezia zegoen. Moral aldetik bultzada

zalantzarria zen. Espazio- eta lur-premia gizakien benetako premia zen. Baina eskasia-egoeran, lehiak markatutako historiako aro barbaro batean, giza premia hori herri osoak sarraskitzea bihurtzen zen.

*Howard Zinn, 1999.*

Lehen kolono zuriek bizi izandako gorabehera guztiek beltzak esklabo hartzea indartu eta bultzatu zuten. Virginiarrek eskulana behar zuten elikatzeko garia egin eta esportatzeko tabakoa lantzeko. Kolonek bezala, indiarrek ezin zituzten haien zat lan egitera behartu. Ingelesak askoz ere gutxiago ziren eta beren su-arma sofistikatuekin indiarrek suntsi bazitzaketen ere, indiarrek sarraskitu egin zitzaizkien. Ezin zituzten harrapatu eta esklabo moduan mantendu. Indiarrek gogorrak eta adimentsuak ziren, aurre egiten zuten, eta basoetara ongi egokituta zeuden (urrutitik etorritako ingelesak, berriz, oso gaizki). Barruan, agian, amorrua ere izango zuten beren trankesunaren ondoan indiarrek beren burua zaintzeko maila handiagoa zutelako, eta agian, horrek ere, virginiarrek esklaboen jaun izatera bultzatu zituen. Edmund Morgan-ek bere liburu batean honela dio:

*“Kolonoa bazinen, bazenekien zure teknologia indiarrena baino maila hobekoa zela. Bazenekien zu zibilizatu zirela eta haiek basatiak zirela... Baina*

*zure teknologia hobea ez zen aski ezer ateratzeko. Indiarrek, beren isolamenduan, zure metodo hobeei barre egiten zieten eta lurretik zu baino oparago eta zuk baino eskulan gutxiagorekin bizi ziren. Beraz, indiarrek hil eta torturatu egin zenituen, haien herrixkak eta galsoroak erre egin zenituen. Horrek, zeure akatsak izan arren, haiek baino gehiago zine-la frogatzen zuen...”*

Erantzuna esklabo beltzak ziren. Esklabo gisa, beltzak babesik gabe zeuden. Indiarrek beren lurretan zeuden. Zuriak beren kultur ingurune europarrean zeuden. Beltzak beren lurretatik eta kultur ingurunetik erauzita ekarri ziren. Ipar Amerikako esklabotza historiako esklabotza-era ankerrena izan zen: nekazaritza kapitalistatik sortzen den mugarik gabeko etekin-egarria, esklaboari gizaki-maila ez aitortzea eta arrazakeriaren gorrotoa, kolorean oinarritutako argitasunarekin, non zuria nagusia eta beltza esklaboa baitzen.

*Howard Zinn, 1999.*

Historiako liburu ortodoxoenak irakurtzen badi-tugu, baliteke herrialdeko biztanleen erdiez ahaztea. Esploratzaileak gizonak ziren, lurjabe eta merkatariak gizonak ziren, buruzagi politikoak gizonak ziren eta pertsonaia militarrek ere bai. Emakumeak ikusezin izateak eta ahaztuta geratzeak murgildutako egoeran geratu direla adierazten dute.

Beren ikusezintasunean esklabo beltzen modukoak ziren (munduan ez da arrazakeriak Ameriketako Estatu Batuetan adina garrantzi eta iraunaldi izan duen beste herrialderik), eta, ondorioz, emakumea bi aldiz zanpatuagoa zegoen. Emakumearen bakartasun biologikoa, larruazalaren kolorea eta beltzen aurpegiko ezaugarriak, maila apalagoko izaki gisa tratatzeko arrazoi izan ziren. Dena dela, emakumeen ezaugarri fisikoak gizonentzat komenigarriak ziren; izan ere, aldi berean neskame, sexurako kide, lagun eta seme-alaben erditzaile-irakasle-zaindari izango zena erabili, ustiatu eta desiratu egin zezaketen.

Gizarte primitiboetan –Ameriketan eta beste lekuetan–, jabetza guztiena zenean, eta familiak handiak eta konplexuak (osaba-izeba, aitona-amona, etab. elkarrekin bizi) zirenetan, badirudi emakumeak zurien gizarteetan baino berdintasun handiagoaz tratatzen zirela, hau da, gero gizarte haiek

konkistatu eta zibilizazioa zein jabetza pribatua eraman zirenetan baino berdintasun handiagoa zutela dirudi.

Hego-mendebaldeko zuñi herrikoen tribuetan, adibidez, familia handiak –klan handiak– emakumearengan oinarritzen ziren eta senarra haren familiarekin bizitzera etortzen zen. Etxeen jabeak emakumeak zirela eta soroak klanenak zirela denek zekiten, eta produzitzen zenari buruz emakumeek antzeko esku-bideak zituztela. Gehiegikeria izango litzateke emakumeak gizonezkoen parean tratatzen zirela esatea, baina errespetuz tratatzen zituzten, eta gizartearen izaera komunalak maila handiagoa ematen zien.

Ipar Amerikara etortzean kolonoek izan zituzten baldintzek eragina izan zuten emakumezkoen bizitzan. Koloniak ia erabat gizonez osatzen ziren lekuetan, emakumeak sexu-esklabo, seme-alaben ekoizle edo kide moduan inportatzen ziren. 1619. urtean, Virginiara lehen esklabo beltzak iritsi ziren urtean, Jamestown-en laurogeita hamar emakune lehorreratu ziren: *“pertsona atsegin, gazte eta kaltetu gabeak... bere oniritziak kolonoek emazte moduan garraiatzearen kostu-prezioan saldutakoak”*.

*Howard Zinn, 1999.*

Zuri aberatsak nagusi ziren gizartean, emakumeak zeuden etxetik hurbilena, eta, ondorioz, indarrez baino gehiago paternalismoz tratatzen zituzten. Indiarra, ordea, ez zen beharrezkoa eta oztopo ere izan zitekeen. Beraz, indarkeria handiagoa erabil zitekeen haiekin, nahiz eta batzuetan herrixkak erre baino lehen paternalismoz hitz egin.

Eta horrela, adeitsu aipatu izan den indiarren aldaketan (ingelesez *removal*, zeinak aldi berean, aldaketa eta suntsiketa adierazten baitu), Appalacheak mendien eta Mississippi ibaiaren arteko lurraldea aske geratu zen, zuriak okupa zezaten. Hegoaldean kotoia eta Iparraldean garia ereiteko garbitu zen, hedatzeko, emigraziorako, kanalak, trenbideak, hiri berriak eta Ozeano Bareraino hedatzen zen kontinenteko inperio erraldoia eraikitzeko. Zenbat pertsona hil ziren zehatz-mehatz kalkulaterik ez dago, eta sufrimendutan izandako kostua, gutxi gorabehera ere ez.


Independentziako Gerran, ia nazio indiar gehienek britainiarren alde egin zuten borroka. Bazekiten britainiarrek gerra galtzen bazuten (haiek ezarri zuten mendebaldean kolonoen hedapenerako muga) iparramerikar zuriak geratzeko modurik ez zela egongo. Hain zuzen, Jefferson Ameriketako Estatu Batuetako Presidente 1800. urtean izendatu zutenean, 700.000 kolono zuri zeuden mendietatik mendebaldera. Jeffersonek orduan (bitxia da Independentzia Deklarazioa idatzi zuenetako bat hau izatea –gizaki guztiak berdinak dira–, indiarrekin zituen harremanak eta ehunka esklabo beltzen “nagusi” zela kontuan hartuta) Georgiako creek eta cherokeen “aldaketa” sustatzera bultzatu zuen Gobernuak. Indiarren kontrako eraso-jarrera gero eta handiagoa izan zen William Henry Harrison gobernadorearen agintaldian.

Frantziari Louisiana 1803. urtean erosi zitzaionean, lurraldea lehen halako bi bihurtu zen (mendebal-

deko muga horrela Appalache mendietatik Mississippin zehar Mendi Harritsuetaraino zabaldu zen), eta Jeffersonek indiarrek lurralde txikiagoetan geratu eta nekazaritzan hasiera bultzatu behar zituela proposatu zion Kongresuari. Jeffersonek erabilitako hitzak esanguratsuak dira: “nekazaritza... industria... zibilizazioa...”. Indiarren “aldaketa” beharrezkoa zen, haien lurralde zabaletan nekazaritza, merkataritza, azokak, dirua eta ekonomia kapitalista modernoaren garapena izan zitezen. Hori guztia gauzatzeko lurra beharrezkoa zen. Beraz, Gerra ondorenean, espekulatuzaile aberatsek (George Washington barne) lurralde handiak erosi zituzten.

Espekulatuzaile horien taldean Andrew Jackson sartu behar da, erakinen espekulatuzailea, merkataria, beltz-tratulari eta Ipar Amerikako lehen historiako indiarren etsai erasokorrena. 1814. eta 1824. urte bitartean, Hegoaldeko indiarrekin sinatutako tratatuen bidez, zuriak Alabama eta Floridako hiru laurdenaz jabetu ziren, Tennessee-ko laurdenaz, Georgia eta Mississippiko bostenaz eta Kentucky zein Ipar Carolinako zati batzuek. Jackson-ek zerikusi handia izan zuen tratatu haietan, lur gehiago bereganatzeko eroskeria, iruzurra eta indarra erabili zituelako; gainera, bere senide eta lagunak enplegatu zituen. Tratatu haien eta indiarren lurak bortxatzearen bidez, kotoiaren erreinua eta esklabo beltzak erabiltzen zituzten lursailak ezarri ziren. Espainiarren Florida ere okupatu zuen, ihes egindako esklaboen eta indiar suntsitzaileen babesleku zelako aitzakian. Horrela, Jackson Floridako gobernadore izan zen, eta gero, 1828an, Ameriketako Estatu Batuetako Presidente (haren agintaldian eta ondorengoarenean, hirurogeita hamar mila indiar behartu zituzten Mississippiren ekialdean zituzten lurretatik Mendebaldera joatera).

*Howard Zinn, 1999.*



## 4. fitxa: Zer prozesu izan du independentziak?

## Kontalariarentzako materiala

**"B**egi bistakotzat ditugu honako egia hauek: gizaki guztiak berdin sortuak dira; bere Kreatzaileak besterendu ezin diren eskubide batzuk eman dizkie; horietakoak dira bizitza, askatasuna eta zoriona bilatzea; eskubide horiek bermatzeko gizakiek Gobernuak eratzen dituzte, eta hauek beren boterea gobernatuen onespentetik hartzen dute; gobernu-era bat helburu hauekin kontrarian dagoen bakoitzean, herriak eskubidea du era hori aldatzeko edo kentzeko, eta halaber Gobernu berria ezartzeko, printzipioetan oinarrituz eta bere segurtasuna eta zoriona lortzeko egokitzat jotzen duen eran bere botereak antolatuz. Zuhurtasunak, noski, aspalditik ezarritako Gobernuak arrazoi

arin eta iragankorregatik ez aldatzea eskatzen du; eta, ondorioz, eskarmentuak erakutsi duenez, gizateriak sufritzeko jarrera izaten du, gaitzak jasangarriak badira, eta ez ohikoak dituen formak kenduta bere eskubidea ezartzekoa. Baina gehiegikeria eta usurpazio ugariz, beti ere helburu bera lortu nahian, despotismo absolutuaren mende jartzeko asmoa nabarmentzen denean, bere eskubidea da, bere betebeharra da, Gobernu arbuatu eta etorkizuneko segurtasunarentzat berme berriak ezartzea."

Ipar Amerikako kolonien independentzia-deklarazioa, Tomas Jefferson-ek 1776ko uztailaren 14an idatzia.

**"L**ehena: gizaki guztiak, izaeraz, maila berean aske eta independenteak dira, eta beren pertsonari dagozkion eskubideak dituzte.

**Bigarrena:** edozein botere herrian datza eta, ondorioz, harengandik eratorritakoa da; magistratuak haren ordezkari eta zerbitzari dira, eta edozein unetan haren aurrean erantzukizuna dute.

**Seigarrena:** Biltzarrean herriaren ordezkari gisa diharduten kideen hauteskondeek askeak izan behar dute; guztien interesaz nahikoa nabaritasun duten gizon guztiak botoa emateko eskubidea dute, eta ezin zaie zergarik ezarri edo ondasunik desjabetu haren baimenik gabe, edo horrela aukeratutako haren ordezkarien baimenik gabe."

Virginiako Eskubide Deklarazioa, 1776.

**A**meriketako Estatu Batuetan, XX. mendea hasi zenean, nazio-kontzientzia sortu berria estreintatu zuten. Ingalaterrako Jorje III.a erregearen kontrako emantzipazio-gerrak geldialdia eragin zion Mendebaldeko hedapenari, baina estatu independente gisa sortzeak sendotu egin zuen erabilgarri zeuden lurraldeak kolonizatu nahia. Eta indar bat sortu zen –Ameriketako Estatu Batuetako armada–, soldadu profesionalekin eta boluntarioen miliziekin. Armadaren eragina erabakigarria izango zen tribuen kontrako borrokan. Argi eta garbi ikusten zen, kobre-koloreko azala zutenen kontura galoiak irabaztea edo politikan gora egitea alde batera uzteko tentazioa ez zela.

Horrela jokatu zuen William Harrison-ek. 1800. urtean Indianako lurraldeko gobernadore izendatu zutenean, indiarrenganako politikan iruzurra, bortxa eta xantaia konbinatuz zenbait tratatu negoziatu zituen. Haren helburua tribuei milioika akre lur kentzea izan zen. Haren jokabidean, Gobernu Federalak eraginda-

ko presioa alde batera utzi gabe, bere boterea lursail gehiagotara hedatu nahian Harrison-ek maltzurkeria handia erakutsi zuen. Tribuekin banaka eta elkarren ondoren negoziatu zuen, baina azkenean shawnee tribuko buruzagiak, Tecumseh izenekoak, klanen konfederazioa eratu zuen negoziazioetan indar handiago izatearren. Tecumseh-k kide gehiago lortzeko bere tribua utzi eta Hegoaldera abiatu zenean, Harrison-ek mila gizon bildu eta shawnee indiarrei eraso eginda garaitu egin zituen Tippecanoe-ko batailan. Garaipen hura zela eta, Ipar-mendebaldeko armadaren buru egin zuten, eta bere aginpideaz baliatuta, berriz ere indiarrei eraso egin zuten Thames-ko batailan eta han hil zuten Tecumseh. Bakea egiteko tratatua, zuriak oso garbi utzi zuten Ipar-mendebaldeko zehar jabe zein ziren. Harrisonek, bere zerbitzuegatik harro zegoela, Ameriketako Estatu Batuetako Presidentetarako hautagai aurkeztu zenean, bere gerrako ekintzez programa politikoaz baino gehiago hitz egin zuen. Ameriketako Estatu Batuetako Presi-



dente izan zen, baina historiako agintaldi laburrena ere berea izan zen, hautatu eta laster hil egin zelako.

Etxe Zurira, mugako abenturatan ibili ondoren iritsi zen lehen presidentea Andrew Jackson dugu, eta bere biografia osatzeko falta zuen zatia zen harentzat Alabama-n creek indiarrei eragin zien porrota. Lanbide ugari izan zuen, zeren sasiletratu, landatzaile, aitzindari, espekulatzaila eta edozein huskeriagatiko muga-gatazka ebazteko karabina maneiaketen trebea izan baitzen. Tennessee-ko miliziako komandante zenean, creek indiarren indarrak hautsi egin zituen 1814an Horseshoe Bend-eko batailan. Tribua oztupo zen Mendebalde Hurbilean kolono berriak ezartzeko. Indiarren porrotarekin –batailan zortziehun baino

gehiago hil ziren– populazio-exodo handienetakoa izan zen. Haiei eta cherokee herrikoei, paradisuaren antzeko lurraldeetara zihoazela esan zieten, bisontea eta antilopea elikatzeko eta lehengai gisa ugari zego-elako. Beren exodoan ibilitako bideari “malko-bidea” deitu zioten. Han emigratutakoan laurdenak bizia galdu zuen. Helmuga Oklahoma eta Kansas-ko lur malkartsuak izan ziren. Jackson, berriz, Ameriketako Estatu Batuetako zazpigarren Presidente hautatu zuten 1829an.

Hauek dira, kronologiari jarraituz, indigenak beren lurretatik bota eta zuriek kolonizatze borrokan izandako lehen pasarte batzuk.

*Rafael Abellá, 1990.*

*“Potentzia Aliatuen sistema politikoa funtsean Ameriketako sistemarekin konparatuta bestelakoa da. Aldea beren Gobernuak dutenetik sortua da. AEBen eta potentzia hauen artean harreman onak daudela eta, aitortu beharra dugu, horien aldetik, beren sistema hemisferio honetan zabaltzea helburu izango lukeen edozein saio gure bake eta lasaitasunerako egiazko arriskutzat hartu beharko genukeela. Europako edozein nazioen kolonietan edo jabegoetan ez dugu inoiz parte hartu eta ez dugu parte hartuko; baina, beren independentzia aldarrikatu eta mantendu duten Gobernuak direnean (independentzia errespetatu egingo dugu betiere gure printzipioen arabera denean), AEBekiko etsaitasun-joeratzat hartu beharko genuke Gobernu hura zapaltzeko atzeritarren edozein parte hartze”.*

Hau izan zen AEBetako James Monroe presidenteak Kongresuan mila zortziehun eta hogeita hiruko abenduaren bian jakinarazitako mezua eta historian “Monroe doktrina” gisa ezagutzen dena. Hitzaldi hura labor eman daiteke ustez berak aipatutako esaldi honen bidez: “Amerika amerikarrentzat”. Hitzaldia Latinoamerika gehiena independentzia lortuta zegoela egin zuen, eta kontinente horretan Europako potentzietan edozein motatako parte hartzea eragozten zitzaien, behin betiko AEBetako interesen mende egon zedin.

Horrela “muga” zabaldu egin zuen; izan ere, helmuga ez baitzen Ekialdetik Ozeano Bareraino iristea, zuzenean ez bazen, zeharka kontinente osoa kontrolatzea baizik. Horrela, “muga berria” izeneko kontzeptua sortu zen eta urteak igaro ahala gero eta gehiago hedatu zen. Horretaz ohartzeko, T. Roosevelt

presidentek 1904an argitaratutako mezua irakurtzea besterik ez dago. “Monroe doktrina” baieztatu eta “muga berria” munduko beste bazter batzuetara zabaltzen du:

*“Gure interesak berez hegoaldeko geure auzokoen antzekoak dira (...) Haien arazoetan ez dugu parte hartuko, azken irtenbidea ez bada, hau da, bai kanpoan eta bai barnean justizia erabiltzeko beren gaitasun ezagatik edo borondate txarragatik, Ameriketako Estatu Batuen interesak bortxatu ez badi-tuzte, edo oro har, nazio amerikarren kalterako atzeritarren laguntza eskatu ez badu (...) Monroe doktrina baieztatuz, Kuba, Venezuela eta Panamari buruz hartu ditugun neurriak kontuan izanik, eta Ekialde Urrunean gerra mugatzen saiatuz, gure interesen eta gizateria osoaren alde egin dugu.”*

Garbi dago, Monroe doktrina denboran zehar funtsean aldatu egin zela AEBen interesen alde, eta muga-kontzeptua, gero eta gehiago zabaldu zela. Gainera, teoria horretako printzipio batzuk ez ziren errespetatu, nazio indiarrei beren etorkizunaz eta politikako beste zenbait arlotan bezala. Hori adierazten da atal honetan:

*“Europako edozein nazioen kolonietan edo jabegoetan ez dugu inoiz parte hartu eta ez dugu parte hartuko.”*

Nola ulertu, Kuban 1898an izandako parte hartzea eta Espainiaren gainbeherakada eragitea? Historiak hainbat interpretazio eman ditu Espainiaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko liskar horretaz, baina orain, denek onartzen dute, AEBek beren interesentzat piztu zutela irabazitzat zuten gerra. Interes horiek argi eta garbi azaltzen dira bakea sinatzeko

egin zen Parisko tratatuko artikulua batzuetan. Batetik, aipatutako Monroe doktrina ez betetzea, eta bestetik, "muga berria" zabaltzea ikusten dira:

"1. art.- Espainiak uko egiten dio Kubako subiranotasun eta jabetzaren edozein eskubideri. Espainiak uzten duenean uharte hori Ameriketako Estatu Batuek okupatu dutelako, hauek, beren okupazioak irauten duen bitartean, beren gain hartuko dituzte eta bete egingo dituzte okupatzeagatik nazioarteko zuzenbideak ezartzen dizkien obligazioak (...).

2. art.- Espainiak utzi egiten die Ameriketako Estatu Batuei Puerto Ricoko uhartea, eta orain, bere

subiranotasunaren mende, Mendebaldeko Indietan dauden gainerakoak, eta Marianak edo Ladrones artxipelagoan dagoen Guam uhartea.


3. art.- Espainiak utzi egiten die AEBei Filipinak Irlak deitutako artxipelagoa (...).

Geroztik, XX. mende osoan zehar, AEBek beren "muga" zabaltzen jarraitu zuten mundu osoa kontrolatu nahian. Hirurogeiko hamarkadan, espazioa konkistatzen ere saiatu ziren Sobiet Batasunari lehia eginenez, eta 1969an gizakia Ilargira iritsi zen.





## 4. taldea: Ipar Amerikako biztanleak



*Antzezlan-gidoia prestatzeko jarraibideak:*

## 1

**Kontalaria**

Eszenak hobeto ulertzeko, datuak eta arrazoiak emanez, antzezlanari koherentzia emango diona izango da. Kontalariaren helburua, ondoz ondo azaltzen diren eszenak ulertzen, kokatzen eta zentzua ematen laguntzea izango da. Kontuan izan, kontalaria ere istorioaren zati dela eta behar bezala girotuta egon behar duela (jantziak, etab.). Eta ez ahaztu antzezten ari garela. Kontua ez da datuen laburpena irakurtzea, istorio bat interpretatzea baizik!

Kontalariak, lehen agerraldi honetan, ikusiko dugun istorioa aurkeztuko du, espazioan eta denboran kokatuta: nor zireten, non eta nola bizi zireten eta zuen herriaren historia zergatik kontatuko diguzuen. Kontuan izan, ikusleek ez dakitela zuei buruzko ezer.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Lehen eszena**

Ipar Amerikako indiarrek kolonoak iritsi baino lehen nor ziren eta nola bizi ziren erakusten duen eszena aukeratu. Jendaurrean aurkezteko era izango da.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 1. fitxa: Aurkezpena.*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 2

**Kontalaria**

Labur esan beharko du hain mundu desberdinen arteko lehen harremana nolakoa izan zen: batetik, konkistatzaileak eta bestetik, herri indigenak daude.

*Materiala: 2. fitxa: Arrotzekin izandako lehen harremana nola bizi izan duzue?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Bigarren esena**

Kolonoekin izandako harremana bertako biztanleentzat nolakoa izan zen adierazten duen esena aukeratu. Zeren beldur ziren? Zer arazo aurkitu zituzten?

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 2. fitxa: Arrotzekin izandako lehen harremana nola bizi izan duzue?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 3

**Kontalaria**

Kolono britainiarrak lurralde berrietan finkatzeak eragidako aldaketa esanguratsuenak adieraziko ditu.

*Materiala: 3. fitxa: Kolonoak zuen lurretara iristeak, zer ondorio izan ditu?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Hirugarren esena**

Kolonoek ezarritako sistema berriaren ondorio garrantzitsuenak adierazten dituen esena aukeratu: Europako bizimodu berriaren eragina, erreserba-sistema eta bertako biztanleak bizirik irauteko izandako borroka. Oso garrantzitsua da lehen eszenarekin kontrastea nabarmentzea. Hau da, kolonoak iritsi baino lehen bizitzeko zuten eraren eta gero izan zutenaren arteko aldea azpimarratu behar da.

Gidoian pertsonaiak agertzeko ordena idatzi, eta horien artean dauden elkarriketak ere bai.

*Materiala: 3. fitxa: Kolonoak zuen lurretara iristeak, zer ondorio izan ditu?*

*Eszenaren iraupena: 5 minutu.*

## 4

**Kontalaria**

Amaitzeko, independentziaren ondoren bertako indigenen egoera azalduko du kontalariak. Askatasunik iritsi al zen?

*Materiala: 4. fitxa: Zuen herri indigenentzat zer izan zen independentzia?*

*Parte hartzeko denbora: 5 minutu.*

**Antzezlan-gidoia prestatzeko testuak:****1. fitxa: Aurkezpena****Kontalariarentzako materiala eta lehen eszena**

**A**merika kontinentearen iparraldean, iparraldean dagoen zatian bizi gara. Lurraren seme-alabak gara, antzina-antzinatik Espiritu Handiak senide egin gaituen herri-taldekoak. Besteak beste, honako tribu ahaltzu hauetakoak gara: lakota, irokes, zuñi, dwamish, sioux, chiracahua, pequot, narraganset, mohawk eta pokanoket tribuetakoak.

Orain 20.000 urte inguru iritsi ginen Ameriketara Siberiatik izotzezko zubian zehar eta Alaskatik hegoalderantz emigratu genuen. Glaziarren zona zeharkatu ondoren, Ipar Amerikan sakabanatu ginen, baina gutako asko Rio Grande ibaia zeharkatu eta Erdialdeko Amerikara eta Hego Amerikara joan ziren. Ipar Amerikan era askotako tribuak finkatu ginen: irokes, mohawk eta mohikanoen tribuak, adibidez. Iparmendebaldean bizi ginen eta politika zein diplomazia aldetik oso aurreratua zen sistema garatu genuen. Hauen hegoaldean, gure hizkuntza idatzia eta zona horretako baso zein belardi aberatsetako abelazkuntza ezaugarri ditugun tribu asko finkatu ginen; besteak beste, creek, chicksaw eta cherokee tribuetakoak.

Gure bizimodua batzuetan ez da erraza izaten. Urta-roen eta abereen mende bizi gara, eta batzuetan beste tributakoengandik defendatu egin behar izaten dugu. Batzuk, ehizan aritzen gara eta gerrari handien gizartea osatzen dugu geure burua, eta beste batzuek, nekazaritza dugu bizibide. Gure jainko eta hildakoen tontor batzuk egiten ditugu, haitzuloetan, txaboletan, tipietan (dendatan) edo zurezko etxeetan bizi gara, kanoak egiten ditugu, zaldi basatiak bezatzen ditugu eta kultura oso sofistikuak garatu ditugu.

Mashashabe (Mississippi) ibai handiaren beste aldean bizi garen senideok oso bestelako bizimodua dugu.

Zona horretan bizi ziren bisonte-talde ugariak beste larre batzuen bila joan ziren, eta tribu askok jarraitu egin zieten. Texas-en komantxeak zaldi basatiak bezatzen oso trebeak dira eta lautadetako zaldun onenak ere bai. Bisonte iletsuen ondoan zaldiz ibiltzen dira, haiek hil eta jateko. Bisontearen larru lantzarekin dendak ez ezik jantziak edo arkuentzako sokak ere egiten dituzte.

Oso iparraldera dauden lurraldeetan, sioux, oinbeltz, lakota, mpawnee eta beste tribu batzuetakoak bizi ziren. Herrialde hauetan gerrarako tradizio handia sortu zen, ehiza garrantzitsua zelako eta gizontasunaz idealizatutako ideia zutelako. Ondorioz, ezinbestean gatazkak izan zituzten, eta ez lurreratik edo aberastasunagatik, baizik batez ere ospea lortzeko.


Guztira askoz ere tribu gehiago ginen Ipar Amerikan hedatuta geundenak. Mandan tribukoak, adibidez, Europakoen antzera bizi ginen. Skokomish, puyallup, wenatchee, spokan, willa-willa eta beste zenbait tribu Ozeano Barearen ondoan finkatu ziren eta kanoa sendoak egiten zituzten ehizarako eta arrantzarako.

Ilargialdi asko izan dira gizon zuria gure lurretara iritsi zenetik, baina, ekialdeko kostako gure senideek diotenez, azkenaldian itsaso handiaren bestaldetik jendea ugari heldu da eta han ari dira finkatzen. Zer gertatuko da? Nola jokatu dugu guk, eta haiek, elkarrekin topo egiten dugunean? Elkarrekin bakean bizitzeko gauza izango al gara? Dena hain ilun dago...

*W. Davis eta J. Rose, 1995.*



## Ipar Amerikako indigena herrialdeak



1. Eskimalak
2. Atapaskoak
3. Algonkinoak
4. Sioux
5. Irokesak
6. Muskokiak
7. Apatxe herriak
8. Pannes eta Caddos
9. Shoshonak
10. Yumak eta Hokkak



## 2. fitxa: Arrotzekin izandako lehen harremana nola bizi izan duzue?

## Kontalariarentzako materiala eta bigarren eszena

## Ipar Amerikako kolonializazioarekin zerikusia duten gertaera nagusien kronologia

1506	Frantziako espedizio bat Ipar Amerikako Ipar-ekialdeko kostetara iritsi zen.
1534/35	Jacques Cartier frantsesaren espedizioa, San Lorentzo ibaiaren bokalera iritsi zen eta barrurantz joanda gaur egungo Montreal-eraino heldu zen.
1565	Ipar Amerikako etorkinen lehen kokalekua: Floridako San Agustin hiri espainiarra.
1607	Kolono britainiarrek Jamestown hiria sortu zuten (Virginia-n). Bertako Smith kapitaina inguru haïetako indiarren tribuetako buruarekin elkarriketatu zen: Powhatan Buruzagi Handiarekin, hain zuzen.
1620	Cod lurmuturraren ondoan, Ingalaterra Berrian, "erromesak" lehorreratu ziren. Handik gertu, Plymouth hiria eraiki zuten eta gero lehen kolonia: Massachusetts.
1776	Ameriketako Estatu Batuak eratu ziren, Europako estatuetatik independentzia lortuta.
1784	Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuak "Indiaren tribuekiko tratua eta merkataritza arautzeko eta indiarren mugetan bakea mantentzeko" Legea argitaratu zuen. Lege horren arabera, indiarren lurraldearen muga "eztabaïdaezina" Mississippi ibaiaren ibilgua zen.
1851	Hodei Gorri Buruzagi Handiaren agindupean garaipen handia. Sioux, cheyenne, arapahoe, corneja eta belardietako beste zenbait tribuk Fort Laramie-n hitzarmena sinatu zuten Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuaren ordezkariekin, haien tribuetako lurraldeetan errepideak eta trenbideak eraikitzeko.
1861-1865	Iparaldeko eta hegoaldeko estatuen arteko gerra zibila.
1863-1886	Jeronimo edo Coyathlay-k, apatxeen buru zela Ameriketako Estatu Batuen hegoaldean eta Mexikoko iparraldean txandaka egin zuen borroka. Jeronimo preso hartu zuten eta erreserbara sartu zuten, baina bere gerrariekin ihes egin eta mendietan askatasunaren alde borrokan jarraitu zuen.
1868	Washita ibaiaren ondoan, Custer jeneralaren agindupean, kolonizatzaileek siouxak sarraskitu zituzten.
1880	Zezen Eseri edo Totanka Iyotake buruzagiaren agindupean siouxen garaipen handiena: Zalditeriako 7. Erregimentua Little Big Horn-en suntsitua; Custer jenerala hil egin zuten.
1886	Jeronimok armak utzi zituen. Azken gerrari apatxeekin batera Oklahoma-ko Fort Still-en kartzelaratu egin zuten.
1890	Wounded Knee-n defentsarik gabeko indiarrek hil zituzten. Siouxen Oin Handi buruzagia ere sarraskitu egin zuten.

1890	Zezen Eseri Buruzagi Handia hil egin zuten.
1906	Ishi, azken indiar askea, preso hartu zuten.
1908	Jeronimo, apatxeen borrokalari famatuena, hil egin zen.
1924	Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuak Ipar Amerikako aspaldiko biztanleei, indiarreei, hiritartasuna aitortu zien.
1934	Ameriketako Estatu Batuen mugaz hegoaldera, Sierra Madren, apatxeen talde txikien azken ekintza militarra.
1973	Wounded Knee, laurogeita hiru urte lehenago babesik gabeko siouxak sarraskitu zituzten lekua, sioux gazteek hartu zuten. Indiarren eskubideen alde egin zuten eta aste batzuetan bertan iraun zuten.

*Miloslav Stingl, 1980.*

“Europarrak iritsi baino lehen, Ipar-ekialdeko basoetan ez zegoen legerik, ordenantzarik, komisario eta polizia, epaile eta zinpekorik, epaitegi eta presondegirik. Europako gizartee-tako agintari-parafernaliarik ez zegoen. Hala ere, portaera onargarriaren mugak tinko ezarrita zeuden. Norbanako autonomoaz harro egon arren, irokesez ongiaren eta gaizkiaren zentzua zorrotz bereganatu-rik zuten... ohorea kendu eta baztertu egiten zen bes-

teen janariak lapurtzen zituen edo gerran koldar portatzen zena, beren ekintza gaiztoengatik ordaina bete arte eta besteek onartzeko moduan moralki garbitu zela frogatu arte.”

*Howard Zinn, 1999.  
Gary Nash-ek irokesez kulturaz egindako deskribapena.*

Lakota herriko kidea Naturarenganako ulermen eta maitasunez beteta zegoen. Lurra eta lurreko gauza guztiak maite zituen, eta harekin gero eta bat eginago zegoen, adinean aurrera egin ahala. Zaharrak lurraz maiteminduta zeuden eta ez ziren lur gainean esertzen ama-indarregana hurbiltzen ari zirela sentitu gabe. Lurra leuna zen larruazalaren azpian eta, beren mokasinak kenduta, lur sakratuaren gainean oinutsik ibiltzea atsegin zuten. Haien tipiak aldareak egiteko erabiltzen zuten lurraren gainean zeuden. Airean hegan egiten zuen hegaztia lurraren gainean pausatzen zen atsedean hartzeko, eta lurra nekatu gabe ekartzen zuen bizi zen eta ernetzen zen oro. Lurrak baretu, sendotu, garbitu eta sendatu egiten zuten.

Horregatik, indiar zaharrek nahiago zuten lurraren gainean bizitzea, bizi-indarretatik bereiztea baino. Horre-

la eseri edo etzanda, sakonago egiten zuten gogoeta, biziago sentitzen zuten. Orduan, garbiago ikusten zituzten bizitzako misterioak eta inguratzen zituzten indar bizi guztiak gertuago nabaritzen zituzten.

Lurreko izaki guztiekin, zeruarekin edo ibaien hondoarekin zituzten harreman horiek beren bizitzako ezaugarriak ziren. Hegaztien eta animalien munduarekiko anaitasun-sentimendua eta konfiantza zuten. Lakota batzuen eta beren lumadun edo larrudun lagunaren arteko adiskidetasuna hain estua zenez gero, anai-arreba gisa hizkuntza bera hitz egiten zuten.

*Philippe Jacquin, 1990.  
Zutik dagoen Hartza buruzagia aipatuz,  
XIX. mendea.*





**H**ego-mendebaldeko zuñi herrikoen tribuetan, adibidez, familia handiak –klan handiak– emakumearengan oinarritzen ziren eta senarra haren familiarekin bizitzera etortzen zen. Etxeen jabeak emakumeak zirela eta soroak klanenak zirela denek zekiten, eta produzitzen zenari buruz emakumeek antzeko eskubideak zituztela. Gehiegikeria izango litzateke emakumeak gizonezkoen parean tratatzen zirela esatea, baina errespetuz tratatzen zituzten, eta gizartearen izaera komunalak maila handiagoa ematen zien.

Ipar Amerikara etortzean kolonoek izan zituzten baldintzek eragina izan zuten emakumezkoen bizitzan. Koloniak ia erabat gizonez osatzen ziren lekuetan, emakumeak sexu-esklabo, seme-alaben ekoizle edo kide moduan inportatzen ziren. 1619. urtean, Virginia lehen esklabo beltzak iritsi ziren urtean, Jamestown-en laurogeita hamar emakume lehorreratu ziren: *“pertsona atsegin, gazte eta kaltetu gabeak... beren oniritziak kolonoei emazte moduan garraiatzearen kostu-prezioan saldutakoak”*.

Howard Zinn, 1999.

**J**amestown, Virginia, ingelesak Ameriketara ezarritako lehen kolonia iraunkorra, Powhatan buruzagitzat zuen indiarren konfederazio bateko lurraldearen barruan ezarri zen. Buruzagiak ingelesak bere lurra kolonizatzen ikusi zituen, baina ez zien eraso eta egoera lasai mantendu zuen. Gizon zuriak Virginian emandako lehen urtean (1607) Powhatan-ek eskea egin zion John Smith-i, eta profetikoa izan zen:

*“Nire herriko bi belaunaldi hiltzen ikusi ditut... Nire herriko beste edozein gizonek baino hobeto dakit bakearen eta gerraren artean zer alde dagoen. Zergatik hartzen duzue indarrez bakean lor dezakezuen? Zergatik suntsitu nahi dituzue elikagaiak horni-*

*tzen dizkizuetenak? Zer irabaz dezakezue gerrarekin? Zergatik diguzue bekaizkeria? Armarik gabe eta adeitsu bazatozte eskatzen duzuen emateko prest gaude. Inozoak ez gara eta badakigu askoz hobea dela haragi ona jatea, lasai lo egitea, geure emazte eta seme-alabekin bakean bizitzea, barre egitea eta ingelesekin adeitsu izatea eta haien kobrea eta aizkorak lortzeko trukea egitea. Askoz hobe da horien gandik ihes egin eta baso hotzetan gaizki bizi eta ezkurak, sustraiak eta beste zenbait zerrikeria jatea baino, edo nozitutako jazarpenagatik jan eta lo egin ezinik ibiltzea baino”*.

Howard Zinn, 1999.

**"G**izon zuriak! Inork ez dizue eskatu ona etortzeko. Espiritu Handiak lurralde hau eman digu bertan bizitzeko; zuek zeuen lurraldea duzue. Guk zuei ez genizuen inolako oztoporik jartzen; Espiritu Handiak lurralde zabalak eman dizkigu bertan bizitzeko, eta bisonteak, adarzabalak, antilopeak eta ehizaki gehiago ere bai. Baina etorri eta nire lurra lapurtu egin duzue, nire ehizakiak hil egin dituzue, bizimodua gogorragoa da orain. Orain lan egin behar dugula diozue; baina Espiritu Handiak ez gintuen lanerako egin, ehizatik bizitzeko baizik.

Zuek, gizon zuriek, lan egin dezakezue nahi baduzue. Guk ez dizuegu eragozpenik jarriko, baina behin eta berriz esaten diguzue: zergatik ez zarete zibilizatzen? Ez dugu zuen zibilizaziorik nahi! Gure gurasoak eta lehenago haien gurasoak bezala bizi nahi dugu."

Philippe Jacquin, 1990.  
Zaldi Ero, siouxen buruzagia, XIX. mendea.

Independentzia Gerran ia nazio indiar gehienek britainiarren alde egin zuten borroka. Bazekiten britainiarrek gerra galtzen bazuten (haiek ezarri zuten mendebaldean kolonien hedapenerako muga) iparramerikar zuriak gerarazteko modurik ez zela egongo. Hain zuzen, britainiarrek gerra galtzea, indiarren nazioen askatasunari amaiera eman zion azken kolpea izan zen. 1880. urtean Jefferson Ameriketako Estatu Batuetako Presidente izendatu zutenean, indiarren "aldaketa"<sup>2</sup> hasi zen eta, zehazkiago, lehenbizi Georgiatik creek eta cherokeek bidali zituzten, eta Louissiana-tik gero, mendebaldeko muga Appalacheetatik (hamahiru kolonien mugatik) Mississippin zehar Mendi Harritsuetaraino eramanda. Jeffersonek Kongresuari honako hau proposatu zion: indiarrek bultzatu egin behar zirela lurralde txikiagoetan bizitzera eta nekazaritzan lan egitera. Indiarren erreserbak sortzea esan nahi zuen. Appalacheen eta Mississippi ibaiaren arteko zona zergatik "garbitu" zen? Zergatik zabaldu zen denbora gutxian Mendi Harritsuetaraino? Zuriak okupa zezaten, hain zuzen. Hegoaldean kotoia eta Iparraldean garia egiteko, hedatzeko, emigraziorako, kanalak, trenbideak, hiri

berriak eta Ozeano Bareraino hedatzen zen kontinenteko inperio erraldoia eraikitzeko. Zenbat pertsona hil ziren zehatz-mehatz kalkulaterik ez dago eta sufrimendutan izandako kostua gutxi gorabehera ere ez. Orduan, presidente zen Jefferson-en proposamena, bat al zetorren Jefferson berak hogeita bost urte lehenago independentzia-deklarazioaren hitzaurrean idatzi zuenarekin? Hitzez hitz honako hau baitzioen:

*"Begi bistakotzat ditugu honako egia hauek: gizaki guztiak berdin sortuak dira; bere Kreatzaileak beste-erendu ezin diren eskubide batzuk eman dizkie; horietakoak dira bizitza, askatasuna eta zoriona bilatzea..."*

Bat al dator Virginiako deklarazioarekin, zeinetan "gizaki guztiak, izaeraz, maila berean aske eta independenteak dira, eta beren pertsonari dagozkion eskubideak dituzte" esaten baita. Nola uztar daitezke printzipio hauek idaztea eta gero Jefferson berak eta ondorengo presidentek indiarrekin izan zuten politika? (Jeffersonek berak ehunka esklabo zituela ere esan beharra dago).

Howard Zinn, 1999.



<sup>2</sup> Ingelesez "removal", aldatzea eta suntsitzea esan nahi du.



### 3. fitxa: Kolonoak zuen lurretara iristek, zer ondorio izan ditu?

#### Kontalariarentzako materiala eta hirugarren eszena

**“W**ashingtongo Buruzagi Handiak mezu bidali du gure lurak erosi nahi dituela esanez. Buruzagi Handiak hitz eta asmo adeitsuak ere bidaltzen dizkigu. Biziki eskertzen dugu bere fintasuna, zeren bai baitakigu gure adiskidetasunaren premiarik ez duela. Haren eskaintza aztertu egingo dugu; badakigu saltzen ez badugu agian gizon zuria bere su-armekin etorriko dela gure lurak erostera. Washingtongo Buruzagi Handiak Dwamish herriaren buruaren hitzean konfiantza izan dezala, urtaroen segida espero duen itxaropen berarekin.

Nork eros edo sal dezake zerua edo Lurraren berotasuna? Guk ezin dugu horrelakorik pentsatu; izan ere, gu ez gara airearen freskotasunaren jabe, ezta uren distirarena ere. Nola eros genezake hori? Lur honen zati bakoitza nire herriarentzat sakratua da. Izei-hosto distiratsu bakoitza, ibaien ertz hareatsu bakoitza, baso ilunetako ihintz-tanto bakoitza eta intsektuaren burrunbada ere sakratua da nire herriaren pentsaera eta sentitzeko erarentzat. Zuhaitzetan dabilen izerdiak larrugorrien oroimenak ditu berekin. Lurraren zati gara eta lurra gure zati da. Lore usaintsuak gure arrebak edo ahizpak dira; oreina, zaldia, arrano handia, gure anaiak dira. Haitz malkartsuak, belardi leunak, zaldiaren eta gizonaren gorputzaren epeltasuna, denak dira familia berekoak. Baso honetan alai sentitzen gara. Uraren zurrumurrua nire arbasoen ahotsa da. Ibaiak gure anaiak dira eta egarria asetzen digute, gure kanoak eramaten dituzte eta geure seme-alabak elikatzen dituzte. Badakigu gizon zuriak gure bizimodua ez duela ulertzen. Harentzat lurraren zati bat beste baten berdina da. Lurra ez du bere arrebak edo ahizpa, bere etsaia baizik, eta konkistatzen duenean bere bideari jarraitzen zaio. Bere arbasoen hilotzak utzita ere ez dio axola. Bere seme-alabei Lurra lapurtu egiten die, eta ez dio batere axola. Gose denean Lurra irentsi egingo du, eta ez du ezer utziko.

Ez dakit, baina gure bizimodua zuena ez bezalakoa da. Hiriak ikusita begiko mina egiten zaio larrugorriari. Zurien hirietan ez dago inolako isiltasunik, udaberrian hostoak hazten edo intsektuak burrunbaten entzuteko lekurik ez dago. Agian, ni basati hutsa naizelako eta ezer ulertzen ez dudalako izango da.

Airea oso baliotsua da larrugorriarentzat; izan ere, izaki guztiek arnasa bera hartzen dute: animaliek, zuhaitzek, gizakiok, denok aire bera arnasten dugu. Gizon zuria badirudi ez dela arnasten duen aireaz ohartzen; egunetan hiltzeak dagoena bezala, kiratsik ez du sentitzen. Mila bisonte ustel ikusi ditut, gizon zuriak utzita. Handik zihoan konboitik hil zituzten. Ni basatia naiz eta ezin dut ulertu kea botatzen duen burdinazko zaldia nola den guk bizirik irauteko baino hiltzen ez dugun bufaloa baino ahaltsuagoa. Animalia guztiak ezkutatu balira, gizakia ere bakardade espiritual handiaz desagertu egingo litzateke. Animaliei gertatzen zaiena gizakiei ere gertatuko zaie.

Lurrari gertatutako oro Lurraren seme-alabei gertatuko zaie. Gizakiak lurrera txistua botatzen badu, bere buruari botatzen dio. Izan ere, guk badakigu Lurra ez dela gizakiena eta gizakia Lurrarena dela. Dena lotuta dago, familia bera elkartzen duen odola bezala.

Washingtongo Buruzagi Handiak leku bat eman nahi digu denok elkaturik bizi gaitezen. Hura izango da gure aita eta gu, haren seme-alaba izango gara. Erreserbara joateko egiten diguzuen eskaintza aztertuko dugu. Gure seme-alabek beren gurusoak esaneko eta garaituak ikusiko dituzte. Gure gerrariak lotsatuta egongo dira. Beste bi negu gehiago eta lurralde honetan garai batean bizi izandako leinu ospetsuko seme-alabarik ez da geratuko. Baina zergatik tristatu herri bat desagerrarazita? Zuriak ere sunsituko dira beste tribu batzuk baino lehenago. Beren oheak kutsatu egiten dituzte eta gauren batean beren hondakinetan itota hilko dira. Gure lurra saltzera iristen bagara, kontuan hartu sakratua dela eta ibai eta aintziretako urek gure herriko gertaeren kontakizuna ematen dutela; maita ezazue guk maitatu dugun bezala. Zaindu guk zaintzen dugun bezala.”

Dwamishen buruzagi indiarrek 1855. urtean Ameriketako Estatu Batuetako Franklin Pierce presidenteari idatzitako gutunaren laburpena. Presidenteak indiarrei beren lurak erostea eta erreserbara bidaltzea proposatu zien.

**A**zken batean, Ipar Amerikako indiar herri guztiek beren jatorriaz gain bazuten ezaugarri bat. Ez zeuden gizon zurien ondoan bizitzeko presaturik, ezta haien gaixotasunetarako (asko hil ziren horien ondorioz) eta jabego-motarako edo lur-goserako ere. Haientzat guztientzat negarrezko bidea ireki zen esploratzaileak eta aurkitzaileak iritsi zirenean. Aurpegizurbilek kontinentean mendetan bizi izandako lurak

lapurtu zizkieten, eta haien oreka ekonomiko hauskorra eta mendetako bizimodua suntsitu egin zituzten. Borroka eta gerra ere egin zuten, beren arbasoen bizimodua defendatzeko, baina handinahiaren, boterearen eta kolonia izandakoetako gizarte, politika eta ekonomiaren eboluzio azkarrak mendean hartu zituen.

*W. Davis eta J. Rose, 1995.*

**"M**undua etortzen ari da, nazio bat, horrela ari da etortzen" zioen siouxen espiritu-dantzako kantu herrikoi batek, Wovokaren promesak. Baina Wounded Knee-ko tragedia agian hobeto laburbilduta dago 1890eko neguko egun ilun haietan bizirik atera zen Altze Beltzaren hitz hauetan:

*"Nik orduan ez nekien zenbat gauza amaitu ziren. Orain neure zahardadeko muino handitik atzera*

*begiratzen dudanean, oraindik ikus dezaket pilatuta edo sakabanatuta zeutzan emakume eta umeekin egin zuten sarraskia... eta, halaber, odolez betetako lokatzean zerbait gehiago hil zela eta haize zakarrak lurperatuta geratu zela ikus dezaket. Herri baten ametsa han hil zen".*

*Rafael Abellá, 1990.*

**Z**ibilizazio zuriak bere aurrerako bidean indiarrenkin topo egin eta hauek beren lurak nahitaez eman egin behar izan zituzten. Lehen garaitik konkistatzaileek eztabaidak izan zituzten bertako indiarreei zer egin behar zieten erabakitzeke. Azkenean, irtenbideak bi zati izan zituen. Lehenbizi, bertakoei eutsi egin behar zieten. Bigarrenik, haien kultura eta gizartea suntsitu egin behar zituzten eta zurien arabera aldatu, horrela erresistentziaren mehatxua murrizteko eta Ipar Amerikako gizarte berrira mugatuta txertatzeko.

Hori esatea egitea baino errazagoa zen. Lehenik eta behin, politikak gobernatzen zituen indiarren gaiak; beraz, lau urtetik behin administrazio berria zenean aldatu egin zitekeela esan nahi zuen. Are eta okerrago, inork ez zituen ulertu erreserbetako bizimoduaren eragin psikologikoak. Kontzentrazio-esparruak bezalakoak zirelako espirituak deprimitu egiten zituen, norbere buruaren estimua murriztu edo erauzi egiten zuen eta harro eta independente izandako herriak etsipenak jotako Washingtonen mendeko bihurtzen zituen. Erreserbei laguntzeko zerbitzuak administratzen zituztenek ere, elikagaiak emateko erantzukizuna zuten agenteek ere, ez zuten lagundu, beren ustezko onuradunen bizkar ustelkeriaz aprobetxatu egiten zirelako.

Lehen erreserbei ez zieten horrela deitzen. 1830eko hamarkadan, Zibilizatutako bost Tribuak eta beste

zenbait taldek (Hego-mendebalde zaharretik Arkansas-en kolonizatu gabeko zonetara eta indiarren lurraldera eramandakoak), gizon zuriek nahi ez zituzten lurak jaso zituzten eta han oztoporik gabe bizi izan ziren beren burua gobernatzen zutela. Erreserba-sistema berez ez zen Gerra Zibilaren garaia arte hasi. Orduan, aurpegizurbilen hedapena lehenago lekuz aldatutako tribuei emandako lurraldeetaraino iritsi zen. Gobernuak erreserbak antolatu zituen lurraldeen truk edo indiarrek gerrarik ez egiteko hitzarmenak sinatu zituzten. Kongresuaren agindupean presidentek tribu batekin hitzarmena egiten zuen eta prozesuan urtero tresna, arma, arropa, janari eta dirua emango ziela agintzen zien. 1870eko hamarkadan hitzarmen haiek txarrera jo zuten. Ez ziren Kongresuaren agintepean eta Kongresuaren oniritziarekin egiten, eta presidentek ekiteko askatasun handiagoa zuen. Gizon zuriek zuten lur-goseak, jakina, ez zituen denbora luzez erreserbak errespetatu.

Erreserba-sistemak ia bere helburu guztietan egin zuen huts. Indiarrak pobre bihurtu ziren eta ia erabat Gobernuaren mende, eta aldi berean bereizita eta zurien gizartea bereganatu gabe jarraitu zuten.

*W. Davis eta J. Rose, 1995.*

“**E**ne anaia, Espiritu Handiak gauza guztiak sortu ditu; goian dagoen zerua eta gu bizi garen lurra sortu ditu; handia den eta txikia den oro sortu du. Lurra gizaki guztien etxea izan zedin sortu zuenean, bi herrialde handi egin zituen eta ur handiez bereizi zituen. Eguzkia altxatzen den aldean uharte handi bat dago. Eta eguzkia altxatzen den aldeko uharte handi horretan, Espiritu Handiak zure arbasoa ipini zuen, larru zuriko gizakia, eta hemen Espiritu Handiak gure arbasoa ipini zuen, larru gorriko gizakia.

Beraz, zuk ere ikusten duzu. Horregatik beharrezkoa da gutako bakoitzak Espiritu Handiaz bere pentsaera eta harekin hitz egiteko era edukitzea. Ene anaia hori, agian pentsamendu hau izango zenuen: astakirten handiak dira, begiak irekitzen dituztenean ikusitakoa besterik ez dute ezagutzen, adimenik gabe ibiltzen dira... Agian, oso oker ibiliko zarela diotsut. Dakidana,

ene anaia, ez dut liburuetan ikasi. Espiritu Handiak gure arbasoari irakatsi zion eta gure arbasoak Espiritu Handiak esan zionaz hitz egin zidan. Zorionekoa naiz ezagutza horiek izan ditudalako. Neure bihotzean ditut eta ez diet inoiz uko egingo.

Ene anaia, baliteke zu bazter guztietan irakasten ari zaren gauza horietaz zuk uste bezain ezjakin ez izatea. Espiritu Handiak ordena zure uhartean eta nirean ezarri zuen. Zure arbasoari opari handiak egin zizkion. Baina zuk ez duzu abantaila baliotsu horiek aprobetxatzen jakin eta zure arbasoaren bedeinkapenak arbuiatu egin dituzu. Horregatik, seguru asko, Espiritu Handiak bere semea bidali zion gizaki zuriari, baina gizaki zuriak egotzi egin zuen.”

Lorenzo Cadieux aipatuz, “Carta de las nuevas misiones del Canadá”, 1843-52.

Ipar Amerikako Mendebaldearen kolonializazioko tragedia handia ia indiar guztiak, Ipar Amerikako kontinenteko bertako tribuak, suntsitzea izan zen. Garai hartako moralarentzat indigenak oztipoa ziren, federik gabeko basatiak eta zibilizazioaren aurrerapena eragozten zutenak. Arrazoi horietan oinarrituta, kolonoek (eta independentzia lortu ondoren Ameriketako Estatu Batuetako armadak ere bai, noski) gaur egungo pentsaerarekin nekez ulertzen den gorrotoaz sarraskitu zituzten indiarak. Ekintza haiek definitzeko hitz egokia genozidioa da, Ameriketako Estatu Batuetako lurraldetik indiarrek ezkutarazi nahi zituztelako... Begi bistako tragedia honetan gezurra badirudi ere, indiarrek (zen-

bait tribuk) oso antzinako kultura sofistikatu (primitiboa bazen ere) zeukaten eta alderdi askotan munduari buruz zuten ikusmoldea menderatzaile ziren gizon zuriena baino espiritualagoa eta zibilizatuagoa zen... Haien patua erabat lazarria izan zen, zeren armaz hil ez zituztenek zuriek ekarritako gaixotasun benereok, baztanga, elgorria eta beste zenbait gaitz harrapatu zituzten, gorputzean haien kontrako defentsarik ez zutelako. Gainerako lana alkoholak egin zuen, zurien zibilizazioak ekarritako ustelkeriarako bide gisa.

Rafael Abellá, 1990.  
Virginia Hopkins-en  
“Pioners of the Old West” aipatuz.



## 4. fitxa: Zuen herri indigenentzat zer izan zen independentzia?

### Kontalariarentzako materiala

**Z**er izan zen independentzia Ameriketako indiarrentzat? Independentzia Deklarazioko hitz ospetsuak alde batera zokoratuta utzi zituzten. Ez zituzten berdintzat hartu, batez ere bizi ziren lurraldeak gobernatuko zituztenak aukeratzekoan, eta Europako zuriak iritsi baino lehenago bezala zoriontsu bizitzeko aukera izateko ere ez. Britainiarrek egotzita, kolono ohiek indiarrek beren lurretatik

bidaltzeko prozesu errukigabeari ekin ziezaioketen, kontra eginez gero hilda ere bai. Francis Jennings-ek hitz gutxitan esan bezala, Ipar Amerikako zuriak Ekialdeko inperio britainiarren kontrolaren kontra eta Mendebaldean beren inperialismoaren alde egin zuten borroka.

*Howard Zinn, 1999.*

**"G**izon gorriak hautsitako zer tratatu errespetatu du gizon zuriak? Bat bera ere ez. Zer tratatu egin du gurekin gizon zuriak gero errespetatu duenik? Bat bera ere ez. Ni ume nintzenean siouxak munduaren jabe ziren; eguzkia haien lurretan sortu eta sartzen zen. Hamar mila gizoneraino joaten ziren gerrara. Non dira orain gerrariak? Nork suntsitu ditu? Non dira gure lurrak? Nork arpilatzen ditu? Zer gizon zurik esan dezake berea duen lurra edo xentimorik lapurtu diodanik?

Eta, hala ere, lapurra naizela diote."

*(Zezen Eseri Fort Buford-en (Kanada) aurkeztu zen amnistia aginduta, baina Standing Rock-eko agenziara bidali zuten, bere herriko ia guztiak bizi ziren tokira).*

*Philippe Jacquin, 1990.*


**"G**izon zuria nire ondoan, eta ez nire gainean, egotea nahi dut."

*Ustez Zezen Eserik esana.*

**T**ecumesh-ek, Shawnee-en buruzagi eta hizlari famatuak, indiarrek zurien inbasioaren aurka biltzeko saioa egin zuen. "Lurra", zioen, "guztiena da bakoitzak erabil dezan". Bere kide indiarrek Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuari lurraldearen zati bat eman behar izan ziotenean haserretuta, Tecumesh-ek indiarren bilera handi bat antolatu zuen 1811. urtean. Bost mila indiar bildu zituen Alaba-

ma-n Tallapoosa ibaiaren ertzean, eta honako hau esan zien: "Hil dadila arraza zuria. Horiek lurrak harrapatzen dizkigute; gure emakumeak hondatu egiten dituzte, gure hildakoen errautsak zapaldu egiten dituzte! Odolezko bidetik bidali behar dira etorri ziren lekura".

*Howard Zinn, 1999.*



“ Ipar Amerikako bertako jatorrikoen patua edozein alderditatik aztertuta ere, haien zorigaiztoak badirudi ez duela konponbiderik: basati izaten jarraitzen badute, lehentxeago edo geroxeago menderatu egingo dituzte, eta beren bizimodua zibilizatzeko bidea hartzen badute, zibilizatuagoa den komunitatearen harremanak zanpaketa eta men egitea ekarriko die. Basamortuz basamortu hara eta hona ibiltzen segitzen badute, hil egingo dira, eta nonbaiten sustraiak itsasten badituzte ere hil egingo dira... Ohiturak aldatzeari uko egiten diote, espazio zabalak berenak direlako eta, azkenean mendera etorri beste erremediorik ez dutenean, beranduegi dela-

ko... Ameriketako Estatu Batuetako zuriak indiarrekin izandako portaera, bestetik, legearen betebeharratara mugatu zen. Indiarrek beren izaera basatia alde batera uzten badute, kolonoek ez diete erasoko; komunitate independentetzat hartuko dituzte eta ehi-zarako dituzten lekuez ez dira jabetuko, legezko salmentaren hitzarmenaz ez bada; eta uneren batean indiar herriren bati esleitutako lurraldean bizi ezina iristen bazaio, kolonoek paternalismoaz haren arbasoengandik behar bezain urrun dagoen hilobiren batera lekuz aldatzen lagunduko diote.”

Rafael Abellá, 1990.  
Alexis de Tocqueville-koa aipatuz.

“ Non dira pequot-ak gaur egun? Non dira narraganset-ak, mohawk-ak, pokanoke-tak eta lehen ahaltsu ziren tribu guztiak? Desagertu egin dira gizon zuriaren arpilaketa eta zanpaketaaren pean, elurra udako eguzkipean bezala.”

(Shawnee-en Tecumesh buruzagi handiaren arrangura AEBak independentzia lortu berrian XIX. mendean Mendebaldea konkistatzen hasi zirenean)

W. Davis eta J. Rose, 1995.

“ Gure herriak haien belardien gainean eraikita daude; gure telegrafo-lineak, gure trenbideak eta posta-bulegoak, haien lurralde guztietan sakabanatuta daude, haien basoak ustiatzen ditugu, haien lurrak lantzen ditugu eta natura basatia etxekotuta daukagu. Indiarrek ezin

dute, ez ehizatu eta ez arrantzan egin. Beren bizimodua aldatu egin behar dute.”

Hunt jaunak, Ohiotik senatari zenak esana, XIX. mendearen amaieran.

Philippe Jacquin, 1990.

Kolon Ameriketara iritsi zenean, 75 milioi pertsona inguru zeuden Ameriketako masa izugarrian oso banatuta, eta horietako 25 milioi Ipar Amerikan zeuden. Bertako lurralde eta klimen arabera tributako ehunka kultura desberdin eta ia bi mila hizkuntza desberdin garatu zituzten. Europa, Asia, eta Afrikako beste herri batzuen garai berean haiek ere nekazaritzako iraultza handian murgildurik zebiltzan. Kolon eta haren ondorengoak ez ziren basamortu elkorrean lehorreratu, leku batzuetan Europa bezain ugari populatutako munduan baizik. Han kultura konplexua zen; giza harremanak Europan baino berdintasun handiagokoak ziren, eta gizon, emakume eta

umeek naturarekin zituzten harremanak munduan beste inon baino zintzoago ezarrita zeuden. Indiarrekin bizi izan zen John Collier jakitun estatubatuarrek haien espirituaz honako hau idatzi zuen: “Guk geureganatzerik izango bagenu, inoiz agortzen ez den lurra eta menderik mende iraungo lukeen bakea izango genuke”. Agian, esaldi hori erromantikoegia izango da, baina balio dezake arrazak suntsitzeko aurre-rapenaren aitzakia erabiltzea eztabaidatzeko edo, historia mendebaldeko zibilizazioaren konkistatzaileen eta buruzagien ikuspegitik esateko ohitura zalantzan jartzeko.

Howard Zinn, 1999.



## Eszenaratzeaz hitz egiteko alderdi batzuk


- Berritzaile ("Bi Ameriketako" errealtateez ezezagun) gertatu diren alderdiez elkarrizketa, "antzezleengan" pertsonaiak interpretatzeak sortu dituzten sentimenduak, etab.
- Ipar Amerikako prozesuaz, konparatu biztanleen azalpena Mendebaldeko konkistaz eman ohi den irudiarekin eta, lotu garai hartako muga berriaren espiritua Ipar Amerikaren geroko politika inperialistarekin.
- Latinoamerikaren eta Ipar Amerikaren kolonializazioko ezaugarri berdinak eta desberdinak.
- Latinoamerikako herrialdeek independentzia hastean zuten gizarteko, ekonomiako eta politikako egoeraren funtsezko ezaugarriak eta gaur egungo egoerarekin dituzten loturak (biztanleen horrelako independentziarik ez dago Ipar Amerikan, biztanleria indigena ia dena sarraskitu eta erreserbetara baztertuta baitago).

*Alderdi hauek lagundu egingo digute gaur egun pobretutako herrialdeek dituzten arazo batzuk kokatzen. Analisi hau osatu egingo da ondoren hasten den azterketarekin: neokolonialismoarekin. Hor protagonistak aldatu egiten dira, baina ekonomia, politika eta kulturarekin dauden zerikusiek antz handia dute hasierako kolonializazioarekin.*



## 5.3. Gaur egungo Amerikari begirada: merkataritza-neokolonialismoa

7. jarduera: Cati Rodriguez-en kasua



### Irakasleentzako gida

#### 1. Helburuak

- Hegoaldeko herrialdeen pobretzea iraunarazten duten bidegabeko egitura batzuk analizatzea.
- Latinoamerikako enpresa "maquilatzaileen" fenomenoaren ezagutzea.
- Nazioarteko merkataritzan kontsumo-ohiturek duten eginkizunaz gogoeta egitea.
- Herrialde pobretuekiko anaitasun-jarrerak eta portaerak sustatzea.
- Nork bere besteen lekuan ipintzea.

#### 2. Jardueren segida

##### 7. jarduera: Cati Rodriguez-en kasua

- *Deskribapena:* Ondoren aurkezten dugun jarduera rol-jokoa da. Bertan multinazionalak Hegoaldeko herrialdeetan (hain zuzen, Latinoamerikan) egotearen aldeko defentsak eta salaketak, aldeko eta kontrako arrazoiak azalduko dira. Jokoa azaltzen diren enpresen izenak asmatutakoak dira. Hala ere, deskribatutako egoerak eta dokumentazioan dauden datuak zorrotz aztertuak eta egiazko kasuetakoak dira.
- *Beharrezko materiala:* Talde bakoitzak bere papera prestatzeko behar dituen testuak.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* Programa prestatzeko 50 minutuko 2 saio, programa egiteko 50 minutuko saio bat eta bat etortzeko 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.



## 7. jarduera



### Cati Rodriguez-en kasua



## 1

### Kasuaren azalpena

Honako rol-joko hau proposatzen dugu. Hondurasko neska gazte baten, Cati Rodriguez-en kasutik abiatuko gara. Fao-Fang maquilan lan egiten du, hau da, Hondurasen finkatutako enpresa korearrean. Alkandorak egiten dituzte Happy Shirt enpresa multinazionalarentzat. Neska gaztea bere enpresan oso lan-egoera txarrean aritu da eta kasua iritzi publikoari jakinarazi zaio. Telebista-programa antolatu da eta, kasua aztertuta, zinpekoek "epaia" emango dute. Programara kasuan parte hartutako protagonistak joango dira, eta bakoitzak istorioari buruzko bere ikuspegia adieraziko du. Batetik, Happy Shirt multinazionalako agintariak, eta Fao-Fang maquilako arduradunek beren enpresa defendatuko dute; eta, bestetik, Cati Rodriguez-ek eta Giza Eskubideen aldeko erakunde batek gaiaren beste alderdia azalduko dute. Azkenean herritar zinpekoek, lekukoei entzun ondoren, epaia eta gomendioak jakinaraziko dituzte.

## 2

### Kasuaren kontakizuna

Cati Rodriguez-ek 15 urte ditu eta Hondurasen Choloma herrian bizi da. Catik Fao-Fang-en lan egiten du, Ipar Amerikako multinazional ezagun batentzat (Happy Shirt izenekoarentzat) alkandorak egiten dituen maquila deitzen dioten fabrikan. Catiren lana 16 urteko Carmen Alonso lankideak botoiak jositako uzten dizkion alkandoren lepoak jostea da. Cati eta Carmenekin batera Fao-Fang-en 600 jostun ari dira lanean.

Joan den martxoaren 8an, Cati ohartu zenez, Carmenek lana ez zuen lehen bezain bizkor egiten. Gainera, egun horretan, lan asko zeukaten, presazko eskari bat etorri zelako. Baina Carmen gero eta okerrago zegoen, eta bere eguneko 10 orduak amaitu zituenean irteerako atera hurbildu zen,



baina atea itxita zegoen. Atea ireki ziezaioten eskatu zuen, gaixo zegoelako eta etxera joan behar zuelako, baina arduradunak erantzun zionez, egun hartan denek aparteko orduak egin behar zituzten, hurrengo egunean eskaria entregatu beharra zutelako. Carmen gau osoan geratu zen, baina egunsentian kordea galdu zuen, 40 graduko sukarra zuelako. Hurrengo egunean lanera joaterik ez zuen izan, bere osasun-egoera benetan txarra zelako, eta bi egun igaro ondoren, maquilara azaldu zenean, arduradunak kanporatuta zegoela esan zion, bi egunetan lanera etorri ez zelako.

Gertatuaren berri izan zuenean, Catik zerbait egitea erabaki zuen, eta beste 30 lankiderekin batera sindikatua antolatzen hasi zen. Egun horretantxe, ordea, fabrikatik bota egin zituzten. Orain enplegurik gabe eta beste inongo maquilatan ez dituztela hartuko sinetsita daude. Baina Catik, bere egoeraren berri eman nahi izan du eta herriko aldizkari batera idatzi zuen. Happy Shirt-eko langileak botatzeak eztabaida handia sortu du.

## 3

**Telebista-programaren prestaketa**

Kasu eztabaidagarri hau dela eta, "Albistearen bila" telebista-saioak bi ordu eskaini dizkio eta bertan, istorio honetako protagonistek parte hartuko dute. Horrela, Cati-ren istorioaren atzean dagoen eta gaur egun hain eztabaidatua den gaia dago: multinazional handiak Hegoaldeko herrialdeetan maquila deitutako enpresen bidez eta hauek, ezartzen diren herrialdeetan, izaten duten eragina. Horretarako, honako hauek izango ditugu:

1. taldea: Happy Shirt multinazionalerako buruzagiak (horientzat ari da Fao-Fang maquila lanean).
2. taldea: Fao-Fang maquilarako arduradunak (Hondurasko Maquila Elkartereko kideak dira).
3. taldea: Cati Rodriguez eta Fao-Fang-eko langile emakumeen ordezkariak.
4. taldea: Giza Eskubideen Batzordea.
5. taldea: Zinpeko<sup>1</sup> herritarren lana egingo duen jendea.

Talde hauetako bakoitzak informazio hau emango du:

- Ordezkatzen duen erakundea eta gizarte-taldea aurkeztea.
- Arazoa definitzea.
- Bere aldeko arrazoiak.
- Kasua ebazteko proposamenak.

## 4

**Herritar zinpekoen epaia eta gomendioak**

Azkenean, taldeei entzun ondoren, jendeak "epaia" emango du Cati Rodriguez-en kasuaz eta ebazteko gomendioak ere bai.

## 5

**Bat etortzeko galderak**

Telebista-saioa amaitu ondoren, planteatu den gaiaren inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko galdera batzuk eskaintzen dira. Helburua, talde bezala, ideia batzuetan ados jartzea da.

<sup>1</sup> Ikastetxeko beste gela bat publikoa izan daiteke, aldez aurretik alderdi guztiei entzun ondoren azken "epaia" eman beharko dutela jakinarazita.

## 1. taldea: Happy Shirt multinazionaleko buruzagiak

# 1

### Nor gara?<sup>2</sup>

Happy Shirt enpresako buruzagiak gara; Ipar Amerikako konpainia multinazional handi batekoak. Gure zentrala Oregon-en (AEB) dago, eta handik merkaturatzen ditugu jantziak (alkandorak eta galtzak) munduan zehar dugun hainbat eta hainbat dendaren bidez. Gu ongi ezagutzeko ulertu beharra dago enpresa multinazionalak zer diren.

Gehienak kapital pribatuaz sortutako enpresak gara. Jatorria zenbait herrialde garatutan dugu eta gure jarduerak nazio eta kontinente bat baino gehiagotan gauzatzen ditugu. Horregatik gara multinazionalak.



Gure enpresak, multinazional guztiek bezala, jakineko helburu batzuk ditu:

- Kapital handiak biltzea, gure egitura handiak mantentzearen.
- Gure produktuentzat merkatu berriak aurkitzea.
- Lehia mugatzea.

Hiru faktore hauen mende dago gure iraupena. Horregatik, enpresak trust edo holding-etan biltzen gara, munduko ia merkatu osoa kontrolatu ahal izateko; horrela (lehiakideak deuseztatuta) prezioak finkatu eta igo egin ditzakegu, eta, aldi berean, produkzio-kostuak merkatu egiten ditugu.

Guretako batek, Nestlé-k, adibidez, 178 filial ditu mundu osoan banatuta. Espainian multinazional honenak dira marka oso ezagun batzuk: Nescafé, Camy, Milky Bar, Cruncnch, Tip Top, Nesquik, Eko, Ideal, La Lechera, Maggi, Chambourcy, Flamby, Findus, Libby's, Friskies, Kit-Kat, After Eight, Festival, Smarties, Lancôme, Claudel, Vichy, Perrier, Bonka eta L'Oreal, besteak beste. Inperio hori kudeatzeko Nestlé-k beste bi sozietate finantzario sortu ditu: Unilac eta Nestlé's Holding. Lehenak egoitza Panaman du eta bigarrenak Bahametan. Herrialde horietan, guretzat politika fiskal onuragarriak daude (horrela ordaindu beharreko zergak eta tasak asko murrizten dira) eta gure balantze ekonomikoak argitaratzera ez gaituzte behartzen.

Azken batean, munduko ekonomian multinazional asko izateak merkatuetako egitura klasikoetan aldaketak eragin ditu. Enpresa handiek hartzen dute beretzat botere-kuota handiena eta prezioak ez dira eskariaren eta eskaintzaren arabera finkatzen, baizik enpresek duten merkatu-boterearen arabera.

Beste multinazional askotan gertatzen den bezala, gure enpresak beste batzuk (askoz ere txikiagoak) kontratatzen ditu gure jantziak fabrikatzeko. Azpikontratatuta guretzat lan egiten duten enpresa txiki hauei maquila deitzen diegu. Happy Shirt-ek hainbat maquila ditu Latinoamerikan eta Asian (Hondurasen, Haitin eta Indonesian, batez ere).

Gure kasua, hain zuzen, Hondurasko maquila horietako batean gertatua da.

<sup>2</sup> Centro Nuevo Modelo de Desarrollo, 1994; Juan Claudio Ferrera, 1997.

## 2

## Hegoaldeko herrialdeetan gu egotearen aldeko arrazoiak

1. *Kapital-kopuru handien ekarpena egiten dugu.*  
Askok ahaztu egiten dute joaten garen herrialdera diru-kopuru handiak eramaten ditugula guk. Hegoaldeko herrialdeentzat beharrezko dirua izaten da hori, lurralde horietan inork inbertitu nahi ez duelako eta aurrezteko ahalmen txikia dutelako.
2. *Ustiatu gabeko baliabideak mobilizatzen ditugu eta azpiegitura handiak sortzen ditugu.*  
Natur baliabideak erauzi eta merkatuan kokatzeko ahalmena dugu. Hegoaldeko herrialdeetako lekuko enpresek ezin dute hori egin finantza, teknologia, merkatu eta abarren aldetik baliabideak ez dituztelako. Gainera, lekuko enpresentzat inbertsio handiegiak eskatzen dituzten ekintzak gauza ditzakegu: trenbideak, errepideak eta telefono-lineak, adibidez.
3. *Teknologia-transferentziako bitartekari gara.*  
Teknologia ez dago mundu osoaren eskueran. Hegoaldeko herrialdeetan ditugun filialek gure jatorriko herrialdeetatik (Japonia, Europa eta AEBetatik batez ere) ekartzen dugun teknologia berria transmititzeko lana egin dezakete.
4. *Lanpostuak sortzen ditugu.*  
Oso industria ahula duten eta enplegu-aukera gutxi dagoen herrialdeetan, lanpostu ugari eskaintzen dugu.
5. *Enpresa-espirtua ekartzen dugu.*  
Gu iritsitako Hegoaldeko herrialdeetan, normalean, enpresa-ahalmena oso txikia izaten da. Guk "enpresa-espirtua" deitzen dugunik ez dago. Gure enpresekin eredu gara herrialde horientzat, enpresak sortu eta mantentzeko.
6. *Gure jarduerak ordainketa-balantza hobetu egiten du.*  
Herrialde horietan ezarri garelako, esportazioek gora egiten dute; izan ere, kanpo-jarduera handia dugu eta gure produktuak nazioarteko sare komertzialetan erraz kokatzen ditugu. Gainera, inportazioak murriztu egiten dira; izan ere, lehen herrialdeak kanpotik erosten zuena orain bertako enpresa batek egiten baitu.

## 3

## Cati Rodriguez-en kasuari buruzko iritzia

Tamalgarría da hona ekarri gaituen egoera. Benetan izugarria da Carmen eta Cati-ren moduko kasuak gertatzea. Baina gai batzuk argi utzi nahi ditugu.

Askok guri buruz egitura gaiztoak bagina bezala hitz egiten dute. Berez, enpresa txikiek bezala bilatzen dugu gure etekina. Gertatzen dena, zera da: hain boteretsuak izanda gure bitartekoak eraginkorrakoak direla, bai politikaren arloan eta bai ekonomiaren arloan. Gaur egun inork ez du ukatzen lortu dugun garrantzi ekonomikoa. Berez, gure mendeen 65 milioi langile daude eta gure negozio-bolumena munduko produktuaren ia erdia adinakoa da<sup>3</sup>.


Gure enpresak, Happy Shirt-ek, Fao-Fang maquilarekin zuzeneko harremanik ez du. Beraz, barregarria da maquilan gertatzen denaren erantzule gu garela salatzea. Gainera, ez da bidezkoa irregulartasun hauen erantzukizuna guri leporatzea eta herrialde horietara garapena gu ari garela eramaten ez onartzea. Izan ere, enplegu-aukerak ematen ditugu eta herrialde horiek nazioarteko merkatuan parte hartzeko aukera dute, bestela ezingo lukete-eta.

**Telebista-programarako prestatu behar dituzuen ondorioak:**

- Nor zareten: helburuak eta jarduerak.
- Hegoaldeko herrialdeetan multinazionalak egotearen abantailen arrazoiak.
- Kasua ebaluatzea eta irtenbideak proposatzea.

<sup>3</sup>Centro Nuevo Modelo de Desarrollo,1994.

## 2. taldea: Fao-Fang maquilako arduradunak



### 1

#### Nor gara?

Hondurasko Fao-Fang maquilaren jabeak gara eta, gainera, Hondurasko Maquila Elkarteko kide gara. Arrazoirik gabe errua egotzi nahi diguten Cati langilearen kasua ebaluatzeko, maquila zer den jakin beharra dago.

Maquilak lehen aldiz Mexikon sortu ziren 1965ean. Sistema honetan, gehienetan, multinazionala den enpresa batek azpikontratatu egiten du beste bat, lehengaiak multinazionalaren jatorriko herrialdeetik inportatuta produktuak fabrikatzeko eta gero produktu horiek kanpoko merkatuetan saltzeko. Maquila industriaren ezaugarria garapen bidean diren herrialdeetan fabrika berriak ezartzea da. Hor produktuak fabrikatzen dira (horietako asko ehungintzakoak), eta gero, jatorrizko herrialdera joaten dira, handik mundu osora saltzeko.

Jatorrizko enpresa produktua beste herrialde batean lantzen duena izan daiteke (Adidas enpresak, adibidez, "sukurtsalak" ditu Txinan eta Bulgarian), edo beste enpresa bat izan daiteke. Disney multinazionalak, esaterako, Megatex enpresa kontratatzen du Haitin ume-arropa egiteko.

Muga-zergei dagokienez, Erdialdeko Amerikako herrialderen batean maquila duten enpresak "esportaziorako zona frankoak" izaten dira, hau da, muga-zergarik ordaindu gabe herrialdera erraz sar ditzakete lehengaiak eta produktuak fabrikatzeko behar diren beste produktuak. Esportazioak ere erraztasun horiek guztiak ditu. Halaber, produktuak landuta Ameriketako Estatu Batuetara (AEBetara) iristen direnean, sharing produkzioko erregimena dago (produkzio partekatua), hau da, produktu horrek muga-zergak ordaintzeko erraztasunak ditu esan nahi du. Erraztasun horiek izatearren, Ameriketako Estatu Batuetako legeek ehuna gutxienez AEBetan ebakitakoa izatea exijitzen dute.

Gure Fao-Fang maquilak ehuna AEBetatik inportatzen du, eta hemen, Hondurasen, gure langileek alkandorak egiten dituzte Happy Shirt multinazionalarentzat. Hau da, ehuna AEBetatik etorritakoa da, eta alkandorak egin ondoren, beren jatorrizko lekura itzultzen dira, handik Happy Shirt-en bidez mundu osora saltzeko.

Gure arrazoiak multinazionalak dituzten berak dira. Gainera, Honduras herrialdean arrazoi ematen diguten datuak daude:

1. Hondurasen maquila-industria Erdialdeko Amerikako lehena da eta Karibeko bigarrena, Dominikar Errepublikakoaren ondoren.
2. Kafearen eta bananaren ondoren, Hondurasko hirugarren sarrera-iturria da.
3. 1996an, 259 milioi dolar garbiko aberastasuna sortu genuen eta 75.000 pertsona ingururi lana eman genion. Horietako % 75, emakumeak dira, eta emakumeen langabezia murrizten laguntzen dugu.
4. Gure langile emakumeek dituzten soldatak txikiak direlako kritikatzeko gaituztenek, jakin beharko lukete, ordaintzen dugun soldata gutxieneko soldata baino handiagoa dela (gutxienekoa 600 lempirakoa da, 40 euro ingurukoa). Nekazaritzan, berriz, gure langileek egunean 30 lempira inguru irabazten zuten, eta Fao-Fang-en, eguneko, 40 lempira ordaintzen ditugu.
5. Gainera, herrialde hauetan soldatak txikiagoak izateak etekin bikoitza du: gure enpresek kostuak jaitsi egiten dituzte herrialde garatuetan baino soldata txikiagoak ordaintzen ditugulako, baina garapen bidean diren herrialdeek ere irabazi egiten dute; izan ere, oso atzeratuak diruditen herrialdeek hainbat sektore erakar dezakete, informatikakoa (mikroprozesadoreak muntatzeko) eta arropagintzakoa (joskintza) adibidez, eta horrela bestela herrialdera iritsiko ez litzatekeen teknologia etor daiteke.
6. Herrialde hauentzat hain beharrezkoa den industria-garapena sustatzen dugu: ez da ahaztu behar industriako jardueretan soldatak eta enpleguaren kalitatea beste sektoreetan (zerbitzuetan edo nekazaritzan) baino hobekiago direla. Horrela, herrialdeko industria sustatuta, nekazaritzan edo zerbitzuetan baino baldintza hobeko enplegua sustatzen dugu.
7. Enplegua sortzen (eta, ondorioz, pobrezia murrizten) lagunduta, herrialde horietako ingurumenaren kalitatea murrizten ere laguntzen dugu; izan ere, askotan beren baliabide naturalak ustiatu behar izaten dituzte oinarriko premiak asetzearren. Erdialdeko Amerikako lurzorua, oihana eta bioaniztasuna gero eta gehiago ari dira kaltetzen nekazaritzako muga hedatuta... Herrialde bati ezin dakioke errua egotzi bere natur baliabideak erabiltzeagatik, baldin eta bertako biztanleen oinarriko premiak asetzen ez badira. Behar adina enplegu ez sortzearen eta pobrezia arazoaren konpontzen ez baldin bada, herrialdeko ingurumen-kaltea geratzerik ez da egongo. Industriak lagun dezake herrialdean lurzoruari eta baliabide naturalei eragiten zaien presioa arintzen.
8. Fao-Fang eta antzeko maquilen bidez enpresa ertain eta txikiak indartu egiten dira (herrialde hauetan enpresa hauek oso ahulduta daude); izan ere, lantzen ditugun produktuak, gero, esportazioaren bidez, nazioarteko merkatuan sartzea bermatzen dugu.
9. Gainera, guri kontra egiten digutenek jakin behar lukete Hondurasko maquila-jabeek maquila guztietarako portaera-kodea sinatu dugula eta langile emakume guztien egoera zaintzen dela. Portaera-kode horretan, barne daude 15 urtetik beherakoak ez kontratatzea, asteko lanorduak 60ra mugatzea eta langileek antolatzeke duten eskubidea babestea.

Cati Rodriguez langilearen kasua dela eta, gure langileei tratatu txarrak ematen dizkiegula salatzen digute. Hori ez da egia. Gure fabriketan langileak ongi tratatzen dira. Carmen Alonso langilearen kasuan beste arazo batzuk daude. Gure ustez, langile honek arazo pertsonalak zituen, eta, ondorioz, fabrika errendimendua jaitea eragin zuten. Hori izan da egoztearen arrazoia eta ez dugu ulertzen horrenbesteko istiluak zergatik sortu diren. Hain zuzen, langileak maquilara etortzen direnean askatasunez hartzen dute alkandora-kopuru jakin bat josteko konpromisoa.

Gure jarduera, azken batean, Happy Shirt enpresak gure alkandorak erostearen mende dago. Guretzat ez da mesedegarria hark guk langileekin arazoak ditugula jakitea, zeren prentsan albisteak ateratzea eta Giza Eskubideen erakundeek presio egitea esan nahi baitu. Horrelakorik gertatzen baldin bada, Happy Shirt-en irudia arriskutan egon daiteke, eta, gaur egun, hori nahi duen enpresarik ez dago. Eskandalua saihesteko, gure alkandorak erosteari utzi eta beste herrialde batera joateko gauza dira. Beste fabrika batek egingo lizkioke han alkandorak. Langileei ere ez zaie horrelakorik komeni; izan ere, maquila ixteak lanik gabe geratzea esan nahi du, hau da, langile guztientzako porrota. Hori Hondurasko Gobernuak ere badaki eta arrazoi ematen digute agintariek maquilen aurrean makurtu egin behar dutela dioenean; hura sortzeko gauza ez den milaka enpleguren gorabehera baitago.

Garbi dago, Cati Rodriguez-en kasuan, sindikatuen aldetik manipulazioa egon dela, 15 urte besterik ez dituelako. Horrelako kasuetan, aberriaren kontrako jarrerak ikusten dira eta langileen aldetik, arduragabekeria handia ere bai. Badirudi, ez direla ohartzen, maquilari esker lan egiten dutela eta neurritz gainera protesta hauekin enpresak beste alde batera (langileek buruhausterik emango ez dieten lekuetara) joatea nahi dutela. Eta joaten badira, nondik jango dute? Jaten ematen dion eskuari hozka egiterik ez dago eta hori oso kontuan eduki beharko lukete Giza Eskubideen erakundeek eta langileak irteerarik gabeko bidera eramaten ari diren sindikatuek.

#### **Telebista-programarako prestatu behar dituzuen ondorioak:**

- Nor zareten.
- Hegoaldeko herrialdeetan maquilak egotea defendatzeko arrazoiak.
- Kasua ebaluatzea eta irtenbideak proposatzea.

### 3. taldea: Cati Rodriguez eta Fao-Fang-eko langile emakumeen ordezkariak

#### 1

#### Nor gara?

Cati-rekin batera, Fao-Fang maquilako 600 langile emakumeen ordezkariak gara. Gure enpresa, maquila guztiak bezala, Hirugarren Munduko herrialde batean dago. Guk guztiok alkandorak egiten ditugu Ameriketako Estatu Batuetatik etortzen den ehuna josita. Gero, alkandorak multinazionalari saltzen zaizkio aurrez gure fabrikarekin adostutako prezioan. Gure alkandorak erosten dituen enpresa multinazionalak, gero Londres, Paris eta Madrilgo dendetan saltzen ditu. Multinazionala AEBetako da eta Happy Shirt du izena. Guk lan egiten dugun fabrika, ordea, korearra da.

Gu Choloma-ra orain 5 hilabete inguru iritsi ginen. Gure herritik lan bila atera ginen. Heldu ginenean Fao-Fang-en langile bila ari zirela esan ziguten eta hara joan ginen. Gogoan dut lan bila atera ginen lehen egunean egunsentia zela. Fabrikako atarira iritsi ginenean, ehunka neskatxa ikusi genituen, ia umeak, ate metaliko izugarrien ondoan, gu bezala aldi baterako lana emango zieten zain. Orduan, ez genekien gaztetxo haiek oso hilabete gutxi iraungo zutela, laneko egoera jasateko gauza izango ez zirelako. Baina horrek ez du kezkatzen Fao-Fang-eko nagusia; izan ere, badaki lantegiaren atarian egunero biltzen diren beste ehunka emakumerekin erraz ordezkaturako dituela.

#### 2

#### Maquilan egiten dugun lana

Hondurasen maquiletan lan egiten dugunak ia 90.000 gara, gehienak emakumeak, % 72 - % 75 hain zuzen, eta ia denok gazteak gara<sup>4</sup>.

Horregatik eman ziguten lana, gu gazteak ginelako (gehienok 16 eta 18 urte bitartekoak gara). Nagusiek diotenez, emakumeak ez gara hain arazotsuak, geure eskubideak eskatzeko eta antolatzeke ohi-turarik ez dugulako. Gainera, nagusiak lehen egunean esan zigunez, "handiagoak balira ez liokete erritmoari eutsiko".

Fao-Fang-era iritsi ginen egunean, diru-premian ginelako lanean hasi nahi genuen, baina ez ziguten utzi, lehenbizi haurdun ez geundela frogatu behar izan genuelako. Lanean hasi nahi bagenuen, haurdunaldi-testa egin behar genuela esan ziguten.

Hurrengo egunean gure lanari ekin genion alkandora-jostun gisa, eta Fao-Fang-eko lana ez dela erraza konturatu ginen. Guk ez diegu maquila deitzen, izerdi-lantegia baizik, lan egiteko egoera benetan latza delako.

Gure fabrika soto ikaragarria da, zementuzko hormak eta uralitazko sabaia dituen. Fao-Fang-eko nagusiak Hondurasko enpresaburu ezagun bati erositako lurretan eraikia da. Ia leihorik ez dago eta barruko beroa jasanezina da. Goizeko 7,30etan hasita gauera edo goizaldera arte lan egiten badugu ere, edateko urik ere ez dago. Fabrika gehienetan bezala, atsedean hartzeko aukirik ez dago, eta, ondorioz, gaixotasunak eta gaitzak sortzen dira egun osoan zutik gaudelako. Gure lana alkandorak egitea da. Oso lan monotono eta errepikakorra da, zeren bakoitzak alkandorako zati bat egiten baitu (adibidez, guk lepoa josten dugu) eta egun osoan gauza bera errepikatzen da. Guretzat pizgarri bakarra honako hau da: gure jatorriko nekazaritza-

<sup>4</sup>Maurice Lemoine, 1998.

herrixketan fabrikan irabazten duguna ezingo genukeela irabazi jakitea. Gure gurasoek nekazaritzan 30 lempira inguru (2 euro inguru) irabazten zuten, eta diru horrekin ezin ginen bizi. Hemen egunean 40 bat lempira (2,7 euro) ordaintzen digute. Soldata handiagoa da, baina lanerako ordutegi izugarriak eta nahitaezko aparteko orduak (beti ez dizkigute ordaintzen) dauzkagu.

Lehengo egunean lankide batek aldizkari bat ekarri zuen fabrikara, eta iragarki batean fabrikan egiten ditugun alkandorak ikusi genituen. Barre egin genuen neska ile-hori eta begi-urdin batek jantzita zeukalako!! Prezioari begiratuta, zera ikusi genuen: AEBetan alkandora bakoitza 34 \$ etan saltzen dutela (32 eurotan gutxi gorabehera). Harrituta geratu ginen, zeren guri 27 dolar-xentimo (0,24 euro) besterik ez digute ordaintzen alkandora osoa egiteagatik.

Egunero ematen ditugu fabrikan 10 edo 12 ordu, baina hori ere ez da beti gertatzen, zeren eta eskaria iristen denean (joan den hilean bezalako, esaterako) gau osoan geratu gabe lan egin behar dugu, eta denboraldi horretan asteen 60 lanordutara iristen gara. Aparteko ordu horiek sartzeari ezin diogu uko egin, fabrika itxi eta irten ezinik geratzen garelako. Carmen Alonsok, guk bezala, egunak zermatzen 14 orduko lanaldiak egiten, eta azkenean jota geratu zen. Alkandoraren botoiak josten ari zela, egun hartan egin beharreko kupora (orduko 16 alkandora) ez ginela iritsiko ikusi genuen. Carmenen atzean dagoen emakume zaintzaileak eskuan kronometroa zuen eta oihu egiten zion azkarrago lan egin zezan, alkandorak pilatu egiten zirelako. Baina Carmenek kopeta izerditan zuen eta sukarrak ikusmena lausotu egiten zion<sup>5</sup>. Fabrikatik bota egin zutela jakin genuenean, 30 langileren artean sindikatua eratzea erabaki genuen; izan ere, Carmenen kasua ez da bakarra. Egoera horretan lanean jarraitzerik ez genuela erabaki genuen, baina gure kexen berri ematera joan ginenean fabrikako arduradunak, hari ezer esan baino lehen, fabrikatik bota egin gintuztela jakinarazi zigun, Fao-Fang-en sindikaturik nahi ez zutelako. Badakigu horrelako arazoak gertatzen direla fabrikan orain ere. Gure lankideei, gu botatzeagatik protesta egin zutenei, eraso egin zieten eta kolpatu egin zituzten, eta ezer esatera ez dira ausartu, lana galtzeko egoeran ez daudelako.

Maquila-jabeek badakite, ustiaketa-egoera honetan egon arren, lan egitera etortzen jarraituko dugula, lanaren premian garelako eta gaur egun lana aurkitzea zaila delako. Gainera, gaur egun enpresa guztien helburua kosturik txikienean ahalik eta gehiena produzitzea da, eta horrek guretzat gero eta diru gutxiagotatik lan gehiago egitea esan nahi du. Hondurasko Gobernuak enpresa hauek etortzea beharrezkoa dela esaten digu, herrialderako inbertsioak gaur egun langabezia murrizteko sistema onena direlako. Hondurasko enpresaburuek ere laguntzen diete (izan ere, maquiletako jabeek haiei alokatzen die lurra maquila ezartzeko eta horrek diru asko ematen du, jakina). Horregatik, Maquila Elkarteak beti mehatxuka ari zaigu, gure eskakizunekin jarraitzen badugu atzerriko inbertsioek arazorik sortzen ez dieten herrialdeetara hegan egingo dutela esanda. Horregatik "enara" deitzen diegu. Hala ere, mehatxu hori nolabaitekoa da, egunero Hondurasera "hegan" gero eta maquila gehiago etortzen delako.

---

<sup>5</sup> Red Centroamericana de Mujeres en Solidaridad con las Trabajadoras de la Maquila (CODEMUM) erakundeak salatu duenez, maquila batzuetan emakumeei tratu txarrak eman zaizkie, osasun-zerbitzuetara joatea eragotziz; halaber, zenbait maquilatan langileak jaiotza-kontrola egitera behartu direla salatu da.



## 3

## Cati Rodriguez-en kasuari buruzko iritzia

Guk dena arriskatu dugu eta zer galdurik ere ez dugu ia, geure lanpostua galdu dugulako. Baina borrokan jarraitu behar dugu geure bizi-baldintzak hobetzarren.

Enpresaburuak eta maquila-elkarteak saiatu dira gure ahotsa isilarazten. Portaera-kodea sinatu dutela diote, fabrikako horman dagoela, baina gehienok ez dakigu irakurtzen eta gainera ingelesez dago. Irakurtzen jakinda ere, nola ulertuko genuke?

Gure eskakizunak argi eta garbi daude: Happy Shirt-ek eta Fao-Fang-ek sinatutako portaera-kodea eraginkorra izatea nahi dugu, eta ez baliorik gabeko paper hutsa izatea. Horretarako, ikuskapen independenteko sistema nahi dugu (beste herrialdeetan diren bezalakoak), portaera-kodea bete egiten dela segurtatzeko. Horixe da, hain zuzen, gure eskubideak bermatuta ikusteko dugun bide bakarra.

**Telebista-programarako prestatu behar dituzuen ondorioak:**

- Nor zareten.
- Maquilan duzuen egoeraren azalpena.
- Fao-Fang-eko langileen egoerarentzat irtenbideak proposatzea:
  - a) Zer eskatzen diezue maquila-elkartekoei?
  - b) Zer eskatzen diozue Happy Shirt multinazionalari?
  - c) Zer eskatzen diezue zuen alkandorak erosten dituzten Iparraldeko kontsumitzaileei?



## 4. taldea: Giza Eskubideen Batzordea

### 1

#### Nor gara?

Hondurasko Giza Eskubideen elkarteek, emakume-elkarteek eta GKEk osatzen dugu batzordea. Oso kezkatuta gaude maquiletan lan egiteko dagoen egoeraz. Gertaera hauek salatu ditugunean, gure herrialdeetako Gobernuak konplota egiten dugula eta sindikatuak mesede eginez herrialdea desorekatu egin nahi dugula salatzen digute. Hala ere, gu ez gaude geure herrialdeetan inbertsioak egitearen kontra. Onartzen dugu enpresak hemen geratzera etorri direla. Baina indartsu diogu langileen eskubideak, sindikatutan biltzeko askatasuna eta pertsona gisa duten duintasuna errespetatu egin behar dituztela.

Cati-rekin eta Fao-Fang maquilako eta beste herrialdeetan dauden antzeko maquiletako langile emakumeekin ikerketa- eta elkarriketa-prozesu serioaren ondoren, Hegoaldeko herrialdeetan multinazionalak eta maquilek duten jardueraz honako ondorio hauek atera ditugu.

### 2

#### Hegoaldeko herrialdeetan multinazionalak ez egotearen aldeko argumentuak

##### 2.1. Multinazionalak Hegoaldeko herrialdeentzat etekin ekonomiko handiak daudela adierazi arren, historikoki atzerriko kapitala garapen bideko herrialdeetara etortzeko zeuden eta dauden arrazoiak funtsean hauek dira<sup>6</sup>:

- Baliabide naturalak ustiatzea (petrolio, kobrea, ezta inu eta bauxitetik hasi eta tropikoko nekazaritza-sailtaraino).
- Zerbitzu publikoak ezarri eta ustiatzea (trenbideak, telefono-, gas- eta telegrafo-konpainiak, etab.).
- Garatutako herrialdeetako muga-zergak saihesteko. Herrialde industrializatuetan ohartu dira Fao-Fang-en antzeko enpresak kontratatzea askoz ere merkeagoa dela beren produktuak zuzenean esportatzeko. Maquilekin lan eginda, beren alkandorak esportatzeagatik ordaindu beharreko muga-zergetan diru asko aurrezten dute.
- Soldatatan diru asko aurrezteko. Multinazionalak gure herrialdeetara etorrira dituzten abantailak argi eta garbi daude: Europar kualifikatutako langile baten soldata orduko 7,2 eurokoa da, Marokon 0,8 eurokoa eta Filipinetan 0,15 eurokoa. Hondurasen maquiletako langileek nekazaritzan baino gehiago kobratzen dute, noski, baina, era berean, jasotzen duten soldata gutxieneko soldata baino apur bat handiagoa da. Gainera, kontuan hartu behar da, lan-ustiaketa dagoela eta lanerako baldintzak ez direla batere duinak<sup>7</sup>.

##### 2.2. Multinazionalak ukiezin bihurtzen dituen boterea lortzen dute:

Gehienetan multinazionalak zuzendariak, Estaturuei dagozkien ohoreekin, hartzen dituzte herrialdeetako Gobernuak, eta demokraziaren arabera aukeratutakoak ere ez dira izaten. Beren baldintzak ezartzen dituzte, herrialdean geratzearen truke. Enpresa hauen boterea izugarria izan daiteke. Batzuen fak-

<sup>6</sup> Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE), 2000.

<sup>7</sup> Juan Claudio Rodriguez Ferrera, 1997.

turazioa zenbait herrialdetako Barne Produktu Gordina adinakoa izaten da. 1989. urtean, adibidez, General Motors-en fakturazioa Austriako BPG adinakoa izan zen, Shell enpresarena Hego Afrikarena adinakoa, eta Peugeot-ena Perurena adinakoa.

Botere horren bidez, hartzaile den herrialdeko ekonomia kontrolatzen da eta zigorrik gabeko ekintzak burutzen dira (langileak gaizki tratatuz, jatorriko herrialdean debekatuta dauden kutsatzaileak isurita, sindikatuak zanpatuta edo egoera aldekoa ez denean, beste herrialde batera joanda langileak lanik gabe utzita eta desinbertsio handia utzita).

Multinazionalak munduko merkataritzan duten nagusitasun handiegia ere arriskua da; batez ere zenbait lehengaitan dutena. Esate baterako, kotoiaren munduko merkatuaren % 85 sei taldek menderatzen dute, eta bi talderen artean kakaoaren merkatuko % 75 erabiltzen dute.

Kontrol horrek enpresei produktu horien prezioan, eta oro har, munduko merkatuan eragina izateko ahalmena ematen die.

### **2.3. Maquilen jabeek eta zuzendariak aipatzen dituzten abantailek errealitatearen zati handi bat ezkututzen dute**

Fao-Fang-eko eta Happy Shirt-eko jabeek Hondurasentzat enpresa horiek etortzeak dituen abantaila ekonomiko handiak aipatuko dizkigute. Ez dugu ukatuko pertsona askori lana ematen diotela eta soldata Cati-k nekazaritzan izan dezakeena baino handiagoa izan daitekeela. Hala ere, makilako jabeek eta Happy Shirt-eko zuzendariak errealitatearen zati handi bat ezkutuan uzten dute.

Enplegurako egiten duten ekarpen hori kenduz gero (gehienbat kualifikazio txikiko langileentzat izaten da), fabrikek lotura txikia dute ezartzen diren herrialdeko ekonomiarekin; izan ere, muga-zergak ordaintzeko abantailetan babesturik AEBetatik inportatutako produktuak lantzen baitituzte. Maquilak herrialdean sortzen duen aberastasuna ia erabat langileen soldatetara eta erabiltzen dituzten nabeen alokairura mugatzen da. Nabeak familia aberatsenak izan ohi direnez gero, lehen ere aberatsa zen Hondurasko biztanle-sektorearentzat izaten dira etekinak.

Gainera multinazionalak sartzen direnean, sortu berriak diren nazioko enpresak baztertuta gera daitezke, berehala lehia izugarria aurkitzen duelako, eta horrek askotan herrialde horietako industria ahulari kalte egiten dio.

### **2.4. Zoritxarrez planeta osoko egoera da**

Izerdi-lantegien egoera ez dago Hondurasen edo Erdialdeko Amerikan bakarrik. Langile-ustiaketako egoera hau egunero milaka langile ari dira jasaten Asian ere, eta azkenaldian Afrikan ere bai, multinazionalak kontinente horretara joaten hasi direlako.

### **2.5. Multinazionalen erantzukizun morala**

Multinazional gutxi batzuek ezartzen dituzte saltzen dituzten jantzien prezioa eta emateko epea. Horren bidez, kontratistak beti laneko kostuak jaisteko presiopean daude. Eskariei exijitutako epean erantzuteko, produkzio-kuota zorrotzak ezartzen dituzte, eta aldi berean, etengabeko lanorduak exijitzen dituzte. Langileak bizitzeko soldata eta lanerako egoera duina lortzearren antolatzen hasten direnean, marka handiek mehatxu egiten dute produkzioa beste herrialde batzuetako fabriketara eramatearekin.

Benetan sinetsita gaude Fao-Fang maquilak, eta azken batean, Happy Shirt multinazionalak, Cati eta beste 30 langile kalera botatzearen erantzukizuna dutela; baita hauek nozitutako lan-egoera tamalgarriarena ere.

Giza Eskubideen Batzorde gisa, Hondurasko Gobernuari eskaria egiten diogu enpresari portaera-kodea betearaz diezaiola ikuskapen-talde independentea eta eraginkorra sortuta. Talde horretako kide, gizarteko eta estatuko zenbait ordezkari izan behar dute, behar izanez gero, maquilan objektibotasunez eta independenteki parte hartu ahal izateko.

Gainera, Happy Shirt-en alkandorak erosten dituzten kontsumitzaileei produktuak erosten dituztenean erantzukizuna izatea eskatzen diegu, Happy Shirt multinazionalari eta bere azpikontratatua den Fao-Fang-i (presio-kanpainaren bidez, enpresara gutunak idatzita, komunikabideetan egoera salatuta...) beren langileen lan-egoera hobetzeko konpromisoa har dezaten exijituz: soldata duina eta bidezkoa ordainduz, langileen eskubideen nazioarteko arauak bete daitezen zainduz eta oinarritzko eskubideak bortxatzeko kasuak saihestuz (Fao-Fang maquilan Cati-ren eta bertako langileen kasua, adibidez).

#### **Telebista-programarako prestatu behar dituzuen ondorioak:**

- Nor zareten.
- Fao-Fang-eko langileen arazoari buruz duzuen jarrera.
- Hegoaldeko herrialdeetan maquilan bidez multinazionalak egoteari egindako kritikak.
- Arazoarentzat irtenbide-proposamenak eta honako hauei egiten dizkiezuen eskariak:
  - a) Multinazionalei.
  - b) Maquila-elkarteari.
  - c) Iparraldeko kontsumitzaileei.

## Bat etortzeko galderak

- Zeuen papera antzezten ari zinetenean, nola sentitu zarete? Zer da atentzioa gehien eman dizuena?
- Zer iritzi duzue multinazionalak Hegoaldeko herrialdeetan duten eraginaz? Zer abantaila ditu? Zer ondorio?
- Zuzenean aipatu gabe, produktu baten gizarte-kostuaz etengabe hitz egin dugu, hau da, produktua duintasun, berdintasun edo justiziaren aldetik zer egoeratan lantzen den. Guk kontsumitzaile gisa presio egiteko geure ahalmena ere badugu, horren ondorioz, zer mekanismo iruditzen zaizue izango lirakeela baliagarriak, hegoaldean landutako produktuek langileen duintasuna eta beren eskubideak errespetatzea segurtaturik izan ditzaten? (adibidez, portaera-kodeak sina ditzaten eta ikuskapenak egin ditzaten lobbya, GKEk gidatutako kanpainen bidez duintasunik gabeko egoeran egiten diren produktuei boikota egitea, bidezko merkataritza indartzea).
- Gizarte zibilak era askotara erantzun du bidegabekeriako egoera hauetan. Era garrantzitsu bat bidezko merkataritza sortzea izan da. Sustapen honetan, merkaturatzen diren produktuek, langileentzat lanerako gutxieneko baldintzak segurtaturik edukitzea da, bidezko prezioak izatea, prezioa kalkulatzeko gardentasuna izatea eta produkzio-prozesuak ingurumena eta osasuna errespetatzen dutenak izatea. Hortik abiatuta, ba al dakizue bidezko merkataritza zer den? Bidezko merkataritzako produktuak saltzen al dira zuen hirian? Non?
- Produktu horien kontsumitzaile gisa dugun eginkizunari dagokionez, gure kontsumo-ohiturak aldatzeko prest al gaude? Neurri eraginkorra dela iruditzen al zaizue?
- Aurreko jardueran Latinoamerikako pobretzeko hazia ereiten lagundu zuten kolonietako ekonomia-mendekotasuneko egiturak analizatu ditugu. Maquila-industrien fenomenoaz aztertu ondoren, kolonializazio-era berriaz hitz egin al daiteke? Zergatik? Antzinako kolonializazio-eraren antza zertan ikusten duzue? Zer desberdintasun daude? Ameriketako Estatu Batuetako “muga berriko espirtua” non sortu zen?
- Azkenik, Hegoaldeko herrialdeetako maquilen arazoentzat, zer irtenbide proposatuko zenituzkete?





## Dokumentazio osagarria<sup>8</sup>

### Zure kontsumoak erabaki egiten du

- % 100 Soldata duinak.
- % 100 Askatasun sindikala.
- % 0 Ume-ustiaketa.
- % 0 Esklabo-lana.
- % 0 Emakume-bereizkeria.

Hirugarren munduko pertsona askoren duintasunaren eta eskubideen alde.

### Zer da Arropa Garbia Kanpaina?

#### 1. Xedea

Arropa Garbia Kanpainak, munduko ehungintza-sektorea aztertetik abiatuta, nabarmendu egin nahi ditu oraingo nazioarteko ordena ekonomikoak Hegoaldeko eta Iparraldeko herrialde pobreenetan dituen kalteak.

#### 2. Helburuak

##### a) *Ehungintza-sektoreko milioika langileren ustiaketa-egoeraz sentikortzea.*

Kanpaina honek Hegoaldeko herrialdeetako ehungintza-sektoreko langileen eskaeren bozgorailu izan nahi du. Besteak beste, honako hauek sortzen dituen eredu ekonomikoaren hutsuneak salatu nahi ditu: lanaren behin-behinekotasuna, umeak lanean ustiatzea, emakumea bereiztea, ingurumena kaltetzea. Horretarako, talde pobreenen interesak babesteko etengabeko ahaleginean, Latinoamerika, Afrika eta Asiako erakundeekin harremana eta elkarriketa sendotu egiten da. Erakunde horiek biztanleen gizarteko eta laneko eskubideen (azken batean Giza Eskubideen) alde ari dira borrokan.

##### b) *Hegoaldearekin merkataritza bidezkoagoa eta zuzenagoa sustatzea.*

Arropa Garbia Kanpainak pertsonarekiko errespetuan oinarritutako merkataritza bultzatzen du, eta kontra egiten dio, erabiltzen dugun arropa egiten duen ehungintza-sektoreko milioika langile ustiatzen dituenari. Arropa Garbia Kanpainak ordainsari eta baldintza duinak eskaintzen dituen merkataritza defendatzen du, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) hitzarmenak errespetatzen dituena, hau da, nahitaezko lana ezeztatzen duena, bereizkeriarik eza, lanerako gutxienerako adina, sindikatuetan biltzeko eta negoziazio kolektiborako eskubideak babestea errespetatzen dituena.

##### c) *Iparraldean erantzukizun handiagoko kontsumoa sustatzea.*

Arropa Garbia Kanpainak kontsumo kritikoa eta informazioduna sustatzen du, erosten dituen produktuak zer baldintzatan egin diren kontuan hartzen duena. Horretarako, garrantasun handiagoa eskaintzen duten neurriak (gizarte-bermeko zigiluak edo etiketak dituztenak, adibidez) bultzatuko dira.

<sup>8</sup> Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://www.ropalimpia.org>

**d) Hegoaldeko eta Iparraldeko herrialde eta populazio pobreenak kaltetzen dituzten jardunbideak alda ditzaten, enpresa multinazionalak salatzea eta presio egitea.**

Arropa Garbia Kanpainak etekinen banaketa bidezkoagoa bultzatzen du, beste sektore askotan bezala ehungintzakoan ere bidegabea delako. Onartezina da, alde batetik, duintasunik gabeko egoeran lan egiten dutenei miseriako soldatak ordaintzea, eta bestetik, publizitatean berebiziko dirutzak gastatzea. Beraz, bidezko hazkunde ekonomikoa eta giza garapen jasangarria bultzatzen ez duten eta herrialdean dauden enpresak salatu egingo ditu.

**e) Hegoaldeko langileen gizarteko eta laneko egoera hobetzeko ekintza zehatzak gauzatzeko aukerak planteatzea.**

Arropa Garbia Kanpainak enpresaburu eta kontsumitzaileen artean neurri positiboak hartzea sustatzen du, adibidez, bidezko merkataritza, gizarte-bermeko etiketak ipintzea edo enpresek benetan eraginkorrak izan daitezen eta erakunde independenteek bermatutakoak izan daitezen kontrol-neurriak hartzeko portaera-kodeak izatea. Halaber, anaitasun sindikaleko ekintzei lagunduko zaie eta gizarte-klausulak ezartzea babesten da, betiere hauek Iparrak Hegoaren aurka tresna protekzionista huts gisa erabiltzeko ez badira.


**Koordinazio orokorra**

Bisbe Laguarda, 4  
08001 Bartzelona  
Tel. 934415335 • Faxe. 934432069  
E-maila: ropalimpia@pangea.org

**Orri Nagusia**

Zer da CLR?  
Erakundeak  
Jarduerak  
Albisteak  
Presazko Ekintzak

Garbi ezazu zure arropa bidegabekerietatik  
ARROPA GARBIA KANPAINA



## Arropa-enpresa nagusiei buruzko balioespena

Ematen den informazioa, Europako Arropa Garbia Kanpainaren bederatzi sustapen nazionaletan lortutako datuetatik eta, arropa-fabrikatzaile eta -banatzaile garrantzitsuenek eskainitako datu eta harremanetatik prestatutakoa da.

Enpresek kontsumitzaileen aurrean beren gizarte-erantzukizuneko eta gardentasuneko politiketan hartutako konpromisoak balioesten dira. Ez dira balioesten, ordea, arropa egiteko bere fabriketako eta azpi-kontratutako fabriketako gizarte- eta lan-baldintzak, informazio hori zenbait eratakioa izaten delako eta beti eskueran egoten ez delako.

### 1. Honako hauetaz zer ulertzen dugu?:

- **Gizarte-erantzukizuneko konpromisoa:** enpresak LANEn (Lanaren Nazioarteko Erakundea) funtsezko hitzarmenetan oinarritutako portaera-kodea du; bere jardunbide egokien kodea bete egiten dela segurtatzeko, mekanismo eraginkor eta independenteak ditu; gizarte-erantzukizunerako berariazko saila dago; gizarte-eragileekin lankidetzan aritzen da bere konpromisoak definitzeko eta gauzatzeko.
- **Gardentasuna:** enpresak informazioa ematen dio Arropa Garbia Kanpainari bere erosketa-politikaz, produkzioa duen herrialdeez; bere fabriketarako bisitak prestatzen ditu...
- **Kontsumitzailearentzako informazioa:** enpresak informazioa ematen du bere gizarte-erantzukizuneko politikaz; Arropa Garbia Kanpainarekin elkarrizketatzeko prest dago; bere urteko txostenetan gizarte-informazioa ematen du; eztabaida eta foroetan parte hartzen du.
- **Azkenaldiko eboluzioa:** enpresak jarrera aktiboa eta etengabeko hobekuntzakoa du; aurreko esperientzietatik ikasi egiten du eta gizarte-erantzukizuneko konpromisoak hobetuz aurrera egiten saiatzen da.

Enpresa/marka	Gizarte-erantzukizuneko konpromisoak	Gardentasuna	Kontsumitzailearentzako informazioa	Azkenaldiko eboluzioa	Oharrak
Adidas	Ona	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Barne-ikuskaritzak (enpresa bereko sailek egindakoak) eta batzuetan kanpo-ikuskaritzak dituen portaera-kodea du.</li> <li>• Bere kodea ez betetzeaz dauden salaketak enpresak ez ditu behar bezala argitzen.</li> </ul>
Adolfo Domínguez	Ez da aski	Ez da aski	Ez da aski	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arropa Garbia Kanpainaren harremanak izateari beti uko egin dio. Ez dio inolako informaziorik eman, ez kanpainari eta ez kontsumitzaileei.</li> <li>• Portaera-koderik ez du.</li> </ul>
Alcampo	Ona	Hobe daiteke	Ona	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arropa Garbia Kanpainaren gomendioen araberrako portaera-kodea du.</li> <li>• Ikuskaritze-sistema bikoitza (barnekoa eta kanpokoak) du.</li> <li>• Eskatutako informazio gehienetan konfidentzialtasuna exijitzen du.</li> </ul>
Burberry	Hobe daiteke	Ona	Ona	Hobera	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Portaera-koderik ez du. Bere hornitzaileentzako gomendio batzuk besterik ez.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainarekin hitz egiteko prest. Kanpainarekin 2002rako gardentasunaz hitzarmena sinatu du.</li> <li>• Eskatzen zaionean kontsumitzaileei informazioa ematen die.</li> </ul>



Empresa/marka	Gizarte-erantzukizuneko konpromisoak	Gardentasuna	Kontsumitzailearentzako informazioa	Azkenaldiko eboluzioa	Oharrak
C&A	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1996. urteaz gero portaera-kodea du, LANEren hitzarmenetan oinarrituta, nahiz eta eskubide sindikalez eta bereizketarik ez izateko hutsuneren batzuk dauden.</li> <li>• Ikuskapenak taldeak berak sortutako erakunde batek egiten ditu.</li> </ul>
Carrefour	Hobera	Hobe daiteke	Hobera	Hobera	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1997. urteaz gero Arropa Garbia Kanpainako gomendioen arabera portaera-kodea du.</li> <li>• Gizarte-ikuskapenak egiten ditu (batzuk SAI8000 sistemarekin).</li> <li>• Erosketa-saileko enpleguak gizarte-alderditan trebatzen ditu.</li> </ul>
Cortefiel	Hobe daiteke	Hobera	Hobera	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez du portaera-koderik. Aitzitik, gomendio zehatzak ematen ditu bere hornitzaileentzat.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainarekin elkarriketatzeko prest daude.</li> <li>• Eskatzen zaionean kontsumitzaileei informazioa ematen die.</li> </ul>
Decathlon	Ez da aski	Ez da aski	Hobe daiteke	Txarrera	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Portaera-kodea oso lausoa. Hori garatzea ezarri gabe daukate.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainarekin elkarriketatzeko irekitasun-apur bat.</li> </ul>
El Corte Inglés	Ez da aski	Ez da aski	Ez da aski	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arropa Garbia Kanpainari edo kontsumitzaileei inolako informazioa ematera ukatu egin dira.</li> <li>• Ez du portaera-koderik.</li> </ul>
H&M	Ona	Hobe daiteke	Ona	Hobera	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arropa Garbia Kanpainan oinarritutako portaera-kodea du.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainarekin kontrol independenteko proiektuan lanean hasiko da.</li> </ul>
ZARA, Massimo Dutti, Stradivarius, Bershka, Pull&Bear eta Oysho bezala INDETEX taldekoa da	Ona	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2001. urteaz gero portaera-kodea du eta Gizarte Erantzukizuneko saila sortu du.</li> <li>• Eskatzen zaionean kontsumitzaileei informazioa ematen die.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainako proposamen eta gomendioetarako borondate gutxi.</li> </ul>
Les Mousquetatres (Intermarché)	Ez da aski	Ez da aski	Hobe daiteke	Hobe daiteke	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Portaera-kodea oso gutxi garatua (umeen lanari buruz besterik ez).</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainarako elkarriketatzeko borondate apur bat.</li> </ul>
Intersport	Hobe daiteke	Ez da aski	Ez da aski	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arropa Garbia Kanpainako gomendioetan oinarritutako portaera-kodea du, baina nola garatuko duen ezarri gabe dauka.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainako eskaerei zehaztasunik gabeko erantzunak.</li> </ul>

Empresa/marka	Gizarte-erantzukizuneko konpromisoak	Gardentasuna	Kontsumitzailearentzako informazioa	Azkenaldiko eboluzioa	Oharrak
Levi's	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Ez da aski	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1991. urteaz gero LANEko hitzarmenetan oinarritutako portaera-kodea du, nahiz eta hutsune batzuk badituen.</li> <li>• Kanpo-ikuspenak baino ez ditu egiten. Arropa Garbia Kanpainarekin elkarrizketzeari sistematikoki uko egiten dio.</li> </ul>
Mango	Hobe daiteke	Ona	Ona	Hohera	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez du portaera-koderik, hornitzaileentzako zehaztasun gutxiko gomendio batzuk besterik ez.</li> <li>• Arropa Garbia Kanpainarekin elkarrizketzeko prest. Kanpainarekin gardentasun hitzarmena sinatu dute 2002. urterako.</li> </ul>
Nike	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Hobe daiteke	Aldaketarik gabe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskatzen zaienean kontsumitzaileei informazioa ematen die.</li> <li>• Barne-ikuskapenak, eta batzuetan kanpo-ikuskapenak, dituen portaera-kodea dute.</li> <li>• Bere kodea ez betetzeagaitik azaltzen jarraitzen duten salaketak, enpresak ez ditu behar adina argitzen.</li> </ul>

Eguneratze data: 2002ko urtarrila.

# 6.

## Unitate didaktikoaren ebaluazioa

Ondoren, ebaluatzeko bi proposamen aurkezten dizkizuegu. Lehenengoa ikasleentzako da eta irakasleen helburuaren arabera egoki daiteke.

Gure ustez garrantzitsua da, ikasitako ezagutzak, prozedurak eta jarrerak ebaluatzeaz gain, ikasleek proposamen didaktikoaren balorazio bat egiteko aukera izatea.

Bestea irakasleentzako ebaluazioa da. Gure material didaktikoak egiten jarraitzeko, ezinbestekoa deritzogu hezitzaileen ebaluazioak edukitzea haiek hobetzen joan ahal izateko.

Beraz, bi ebaluazioak **ALBOAN**era bidaltzea eskatzen dizuegu:

Funikular plaza, 2 • 48007 Bilbao

Bergamin kalea, 32 • 31004 Iruña

Ebaluazioak Interneteko gure orrian ere topa ditzakezue:

<http://www.alboan.org>

Gure posta elektronikoaren helbidetara ere bidal ditzakezue:

[alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org) • [alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org)

## 6.1. Ikasleentzako ebaluazio-proposamena

### Zein da egindako jardueri buruzko nire iritzia?

Unitate didaktiko honetan erabilitako jardueren, metodoen eta baliabideen baliotasuna egiaztatzeko, erantzun ondoko *galderei*. Ikasleak dira (material honetako protagonistak eta hartzaileak) hori ebaluatzeko pertsonarik egokienak. Gainera, galdera horietan behin eta berriz azpimarratzen da unitate osoan nagusitu den ideia: ikaslea ikasketa-prozesuan duen arduraz jabetu behar da.

#### 1. Eman 1etik 4ra arteko kalifikazioa honako jardueri<sup>1</sup>

	1	2	3	4
1. jarduera: Azpigarapeneko eta garapeneko mapa				
2. jarduera: Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak				
3. jarduera: Osatu gabeko esaldiak				
4. jarduera: Zer da Garapena?				
5.1. jarduera: Afrika prentsan				
5.2. jarduera: Afrikatik gutuna				
5.3. jarduera: Logika-hausnarketa				
5.4. jarduera: Afrika koloretan				
5.5. jarduera: Inkesta				
6. jarduera: Antzerki-tailerra				
7. jarduera: Cati Rodriguez-en kasua				

<sup>1</sup> Jarduera bakoitzaren ebaluazioa jarduera bera amaitzean egitea komeni da.

2. Zer abantaila ikusten diozu taldeka lan egiteari?

---

---

---

3. Eta zer zailtasun edo alde txar?

---

---

---

4. Alderatu eskola horiek ohikoekin. Zer desberdintasun ikusten dituzu?  
Zure ustez, horrela gehiago ikasten al da?

---

---

---

5. Beste zer gaitan gustatuko litzaizuke erabiltzea eskola emateko modu hori?

---

---

---

6. Aldatu al zaizu, aldez aurretik Hegoaldeko herrialdeei buruz zenuen irudia? Zertan? Azaldu erantzuna.

---

---

---

7. Egindako jarduerak kontuan hartuta, zer ezaugarriren bitartez deskribatuko zenuke Hegoaldeko herrialdeetan bizi diren milioika pertsonen errealitatea?

---

---

---

8. Kolonizatzaileen eta kolonizatuen bertsioak kontuan hartuta, nola berridatziko zenuke Ipar Amerikako eta Hego Amerikako historia?

---

---

---

9. Oro har, unitate didaktiko hau da?

	Oso	Nahiko	Erdizka	Gutxi	Batere ez
Interesgarria					
Originala					
Aspergarria					
Baliagarria					
Zaila					

10. Zein gai iruditu zaizu interesgarriena? Eta zein gutxiena?

---

---


---

11. Gustatuko al litzazuke beste gairen bat lantzea? Zein?

---

---

---



## 6.2. Irakasleentzako ebaluazio-proposamena

### Irakasleentzako inkesta

Ikastetxearen izena

---

Izen-deiturak

---

Lan egiten duzun hezkuntza-alorra eta -maila

---

Erabilitako unitate didaktikoaren izenburua

---

Esperientzian parte hartutako ikasle-kopurua

---

Beste irakasleren batek parte hartu al du unitate didaktikoa gauzatzen?

---

---

---

---



## a) Ebaluazio kuantitatiboa

Eman 1etik 4rako kalifikazioa ondoko kontuetan (kalifikazio gutxienetik handienera: 1= ez edo gutxi baloratua / 4= bai edo asko baloratua)				
Kontuak	1	2	3	4
<ul style="list-style-type: none"><li>Erabilitako materiala oso eraginkorra da edukiak, jarrerak eta prozedurak sustatuz ikasleen arteko elkartasuna bultzatzeko.</li></ul>				
<ul style="list-style-type: none"><li>Materiala gauzatzea zaila egin zait.</li></ul>				
<ul style="list-style-type: none"><li>Ikasleen erantzuna positiboa izan da.</li></ul>				
<ul style="list-style-type: none"><li>Proposatutako jarduera gehienak gauzatu ditut.</li></ul>				
<ul style="list-style-type: none"><li>Materialeko edukiak nire ikasgaiaren programara egokitzea erraza izan da.</li></ul>				
<ul style="list-style-type: none"><li>Interesgarria da gai horiek curriculum-arloka lantzea.</li></ul>				

## b) Ebaluazio kualitatiboa

Aberastu al du **ALBOAN**en material didaktikoak zure Elkartasunerako Hezkuntzari buruzko ikuspuntua? Zergatik?

---

---

---

Proposatutako zein jarduera gauzatu dituzu?  
Jarduerarik prestatu al duzu materialetik abiatuta?

---

---

---

Zenbat baloratzen duzu material didaktikoaren egitura? Positiboa iruditzen al zaizu unitatearen osaera: irakasleentzako gida eta ikasleentzako gida?

---

---

---

Zailtasunik topatu al duzu? Zein? Nola konpondu duzu?

---

---

---

Balioetsi ikasleen erantzuna. Zerk harritu zaitu gehien?

---

---

---

Zer alderdi direla positiboak esango zenuke materialean eta esperientzia didaktikoan?

---

---

---

Zer alderdi sartuko zenituzke haiek hobetzeko?

---

---

---

Zure iritziz, zer behar da eskolan ikasleen artean elkartasunerako edukien, prozeduren eta jarreraren transmisioa gauzatzeko?

---

---

---

Zer esperientzia arrakastatsu edo kalitatezko material didaktiko ezagutzen dituzu arlo horretan?

---

---

---

Zure ustez, zer egin dezakete GKEek eskolan Elkartasunerako Hezkuntza sustatzeko?

---

---

---

Zure ustez, interesgarria al da **ALBOAN**ek material mota hau eskaintzen jarraitzea? Zergatik?

---

---

---

Interesgarria al deritzozu hainbat ikastetxetako irakasleak beste ikastetxe batzuetan gauzatu diren esperientzia didaktikoak partekatzeko elkartzeari?

---

---

---



## Bibliografía

- Akal, "El estado del mundo. Anuario económico y geopolítico mundial, 1999", Madril 1998.
- Alfonso Santoni, "500 años de colonización", Venezuela 1992.
- Bob Jeffcott eta Linda Yanz, "Enfrentando a los talleres del Sudor".
- Cambridge University Press, "Historia de América Latina".
- Campaña Ropa Limpia-Internacional (Clean Clothes Campaign) eta SOMO.
- Centro Nuovo Modello de Sviluppo, "Geografía del Supermercado Mundial" Setem argit., Bilbo 1998.
- Centro Nuevo Modelo de Desarrollo, "Norte, Sur la fábrica de la pobreza" Popular argit., Madril 1994.
- Christliche Initiative Romero, "Informe sobre la empresa Formosa Textil S.A". (98/11/30).
- C.W. Ceram, "Dioses, tumbas y sabios" Destino Libro argit., 12. alea, Bartzelona 1993.
- Daniel Vidart, "Ideología y realidad de América", Montevideo 1968.
- Eduardo Galeano, "Las venas abiertas de América Latina" Siglo XXI argit., Mexiko 1996.
- Eduardo Galeano, "Memorias del fuego" Siglo XXI argit., Madril 1994.
- Fray Bartolomé de las Casas, "Brevisima relación de la destrucción de las Indias", 1552.
- Gert Chesi, "Los últimos africanos", Perlinger argit., Austria 1981.
- Howard Zinn, "La otra historia de los Estados Unidos" Hiru argit., Bilduma Otras Voces, Nafarroa 1999.
- Isaac Asimov, "El nacimiento de los Estados Unidos" Alianza argit., 1983.
- J.A. Gallego, "Historia contemporánea" Librería General argit., 1978.
- J. Comunero, T. O'Kane, E. Gutiérrez, P. Breslin, A. Dos Ríos eta M.L. Pallais, "Hambre, AOD, Ongs y Maquilas", "La voz de los sin voz" bilduma, Madril 1995.
- José Gutiérrez, Guillermo Fatás eta Antonio Borderías, "Geografía e Historia de España, 3º de BUP" Edelvi- ves argit., 1977.
- Juan Claudio Rodríguez Ferrera, "La economía mundial y el desarrollo" Acento argit., Madril 1997.
- Intermón Talde Pedagogikoa, "Redescubrir América Latina" Octaedro argit., Bartzelona 1993.
- Kevin Thomas, Red de Solidaridad de la Maquila, "Solventes en la producción de calzado", 1998ko uztaila.
- "La encrucijada de las maquilas" A Mecate Corto-n argitaratua, Boletín mensual al servicio de las Comunidades Cristianas de Honduras, C.A. 3. zk., 1995eko ekaina.
- LANE, "Memoria del Director General. Actividades de la OIT, 1998-99" Oficina Internacional del Trabajo, Ginebra 2000.

Larousse, "Beautés du monde", 1980 Paris.

Leo Salvador, "Pueblos africanos" Mundo Negro argit., Madril 1996.

Luis de Sebastián, "Mundo rico, mundo pobre" Sal Terrae argit., 1993 Bilbo.

Maurice Lemoine, "Feroz explotación en las zonas francas de América Central" Le Monde Diplomatique-n argitaratutako artikulua, 29. alea, 1998ko martxoa, "Growth in employment in the Maquila Industry" aipatuz.

Maquila Solidarity Network, (Maquilarekin Anaitasun Sarea) Presazko ekintzetarako alertak.

Mercedes Quintana, "Historia de América Latina" Edi Lumen argit., Madril 1999.

Miloslav Stingl, "De Sasacus a Jerónimo" Juventud argit., 1980.

Mundu Bankua, "Informe sobre el desarrollo mundial 1998/99" Mundu Bankua, Washington 1999.

Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP), "Informe sobre desarrollo humano 1998" Mundi-prensa argit., Madril 1998.

Pedro M. Arrambide, "Los desposeídos" San Pío X argit., Madril 1988.

Philippe Jacquin, "El ocaso de los pieles rojas" Aguilar argit., 1990.

Rafael Abellá, "La conquista del Oeste" Planeta argit., 1990.

Ricardo de la Cierva, "Atlas Histórico Integral Espes" Vox argit., Bartzelona 1993.

Sodepaz, "Dossier Comercio Justo", martxoa, 1998.

Trish O'Kane, "Las golondrinas de los huevos de oro" Envío, Revista de la Universidad Centroamericana Simón Cañas-en argitaratutako artikulua, (UCA), El Salvador.

Tshimpanga Matala Kabangu, "El poder por el poder en Africa" Eusko Jaurlaritzako argitalpen zerbitzua, Bilbo 1996.

Waldermar Espinoza Soriano, "Los Incas: Economía, Sociedad y Estado en la era del Tahuantinsuyo" Amaru argit., Lima 1990.

W. Davis eta J. Rose, "El Oeste" Libsa argit., 1995.

Zenbait egile, "Geografía e Historia de España y de los países hispánicos" Vicens-Vives argit., 1976.

Zenbait egile, "Colección de dibujos Norte-Sur" Inter-món, Gasteiz 1987.

# 8.

## Sareko beste zenbait baliabide

### 1. Ipar-Hego gatazkari buruzko sarrera

<http://www.undp.org/spanish>  
<http://www.bancomundial.org>  
<http://www.eurosur.org>  
<http://www.pangea.org>  
<http://www.nodo50.org>  
<http://www.alboan.org>  
<http://www.unescoeh.org/unescoeh/bolunt>  
<http://www.ptmhirugarren.org>

### 2. Amerikako giltzarri historikoak

<http://www.monografias.com/trabajos/sinteconam>  
<http://www.fortunecity.es/imaginapoder/humanidades>  
<http://www.editorialjuventud.es>  
<http://teletline.terra.es/personal/pilipu>  
<http://www.zientzia.net>

### 3. Merkataritza-neokolonialismoa

<http://www.ropalimpia.org>  
<http://www.setem.org>  
<http://www.canalsolidario.org>  
<http://www.hrw.org>  
<http://www.itglwf.org>  
<http://www.citinv.it>  
<http://www.intermonoxfam.org>  
<http://ibs.lgu.ac.uk/forum>

